

NEKAZARITZA MUNDUA XIX-XX.eko MENDE ALDAKETAN

Pedro Berriochoa Azcárate*

* Leitzaran Institutuko irakaslea (1995-2009)

1920ko hamarkadaren erdialdera arte industria sektoreak ez zuen lortu bere nagusitasuna. Zaharra eta modernoa elkarrekin bizi izan ziren hamarkada askotan. Baserria herriaren ardatz ekonomikoa izan zen, mendetan. Hala ere, eta clichéak kontrakoa badio ere, nekazaritza mundua aldatu egin zen. Baserritar txiroa, maizterra kasu gehienetan, beti prest egon zen beste sektore batzuetan lan egiteko. Mundu zaharra (herri lurrak, autoaskitasuna, oinarri komunitarioak) beheraka etorri zen. Baserria modernitatera zabaldu zen: jabego indibiduala, monetarizazioa, merkatua, abeltzaintzarako bokazioa, kontsumo handiagoa, bizimodu berriak eta aisia modu berriak. Baltzuketa Handia aldaketa horien guztien adibidea da, eta haren etxejoauna, Cándido Mendizabal Zatarain, baserritar ilustratuaren ereduia izan zen, eta haren garrantzia herriko mugetatik at zabaldu zen.

Baserria, nekazaritza mundua, XIX. eta XX. mendeak, aldaketak, ekonomia, gizartea.

El sector industrial no alcanzó su hegemonía hasta mediados de la década de 1920. Lo moderno y lo antiguo convivieron durante decenios. El caserío fue el eje económico del pueblo durante siglos. Sin embargo, y frente a un cliché muy extendido, el de la foto fija, el mundo rural evolucionó durante esta época. El pobre baserritarra, colono en su gran mayoría, siempre estuvo dispuesto a trabajar en otros sectores. El mundo antiguo (los pastos comunales, la autarquía, los principios comunitarios) fue desapareciendo. El caserío se abrió a lo moderno: la propiedad individual, la monetarización, el mercado, la vocación ganadera, un mayor consumo y nuevos modos de vida y ocio. Baltzuketa Handia es un ejemplo de esas transformaciones, y su etxejoaun Cándido Mendizabal Zatarain fue el prototipo de baserritarra ilustrado, cuya influencia traspasó los límites de lo local.

Caserío, mundo agrario, siglos XIX y XX, transformaciones, economía, sociedad.

Until the middle of the 1920s the industrial sector didn't manage to get the hegemony. The ancient and the modern sides had been together for decades. Throughout centuries, baserrria was the economic key in the village. However, and although there was an opposing extended cliché, the rural world was actually modernising. The poor farmer, who used to be a tenant farmer generally, had always been ready to work in other sectors. The ancient world (the common lands, the autarchy and the community principles) started fading away. The farmhouse started modernising: individual property, the monetarization, the market, the livestock vocation, a growth in consumption, new lifestyles and leisure. Baltzuketa Handia is a clear example of those transformations and its etxejoaun, Cándido Mendizabal Zatarain was an model of an illustrated farmer, whose influence spread beyond the local village limits.

Baserrria, the agricultural world, the 19th and 20th centuries, transformations, the economy, the society.

ESKEMA

HITZAURREA.

1. TESTUINGURU HISTORIKOA.

- 1.1. Gerra eta bakea.
- 1.2. Populazioa.
- 1.3. Industria eta elektrizitatea.
- 1.4. Komunikazioak eta zerbitzuak.
- 1.5. Politika.
- 1.6. *Diktadura* integrista.
- 1.7. Kultura eta aisia.

2. ALDERDI MATERIALA: BASERRIA.

- 2.1. Oinarri orokor batzuk.
 - 2.1.1. Espazio eta errekurtsoen arteko borroka.
 - 2.1.2. Jabegoa: pribatizazioa eta maiztergoa.
 - 2.1.3. Espazio periurbanoak.
 - 2.1.3.1. Txitibar eta hango lurrak.
 - 2.1.3.2. Baroja, Zalacain, eta Santa Cruz apaiza, Arrantzuko Bentan.
 - 2.1.4. Lan asko eta kapital gutxi.
- 2.2. Basetxea.
- 2.3. Lursailak, laboreak eta garia.
- 2.4. Ganadua.

3. ALDERDI SOZIOKULTURALA: BASERRITARRA.

- 3.1. *Lanak eta egunak*: pobrezia eta beharra.
- 3.2. Bizitza eta erritu-pausoak.
- 3.3. Erlijioa.
- 3.4. Hezkuntza.
- 3.5. Baserritar zuzenbidea.
- 3.6. Auzolana eta elkarteak.
- 3.7. Eguneroko bizitzaren zenbait alderdi.

4. BALTZUKETA HANDIA ETA CÁNDIDO MENDIZABAL ZATARAIN.
5. ZENBAIT ONDORIO.
6. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.
7. ERANSKINA: 1925eko NEKAZARITZA ESTATISTIKA.

HITZAURREA.

Zenbait hamarkadatan Andoaingo eskribaua izan zen Miguel de Bergararen notario-eskriturak –1820ko azaroaren 9koak, hain zuzen ere– azaltzen digu nola hautsi zen Baltzuketa baserriaren familia-sozietatea. Etxekojaun zaharrak, Martín José de Echabe Balzuquetak, eta gazteak, beraren suhi Sevastian de Mendizabalek, amaiera eman zioten beren “*mesa y compañía*”-ri, eta banandu egin ziren, zeren eta “*ha llegado el caso de no poder congeniar*”, eta hitzarmen berri bat sinatu zuten “*para evitar discordias y disturbios que hasta ahora han experimentado entre sí*”.

Familia-sozietateen disoluzioa ez zen erraza, gehienetan arrazoi ekonomikoen-gatik. Biziraupenaren atarian bizi ziren baserrien zatiketak hondamendia zekarren berarekin, eta eginahal guztiak egin behar ziren, nola edo hala mutur horretara ez heltzeko. Baltzuketa, ordea, baserri *fuerte*a zen, eta hori egitea bazuen.

Etxekojaun gazteak zaharrari utzitako eskubideak ere esanguratsuak dira: 5 anega gari, 10 anega arto, 1 anega “*de abas*”, eta, batik bat sagardo asko edo “*bebedage*”: 2,5 edo 3 karga zituen kupel bat; 5 gurdi sagar, etxeko dolarean sagardo bihurtzeko; eta baserriko sagastirik ederrena, non artaldea bakarrik sar zitekeen. Gainera, borda baten zatiarekin geratzen zen “*desde el primer frontal hasta la puerta de hacia Yoyoaga*”, bertako simaurra ateratzeko. Gela urtebetez gordetzen zitzaion, baina sukaldetik bota egiten zuten, eta handik aurrera, sua, atarian egingo

zuen. Handik urtebetera, maizterrei alde zurretik abisua eman behar zitzaielako, haiek zuten baserri zatira pasako zen: “*el cuarto de abajo y de arriba que hoy tienen los inclinados (sic) para que en ellos habite*”. Beste eskubide bat lanabesena zen: aitzurra, aizkora, trintxa “*y un barreno llamado estaguimbeleta*”. Betiko erritu juridikoek jarraitzen zuten, sinaduren lekura iritsi arte, baina tartean, eta hizki txikia-goekin, eskribauak argi uzten digu nor zen Baltzuketako nagusia:

“*Ademas se obliga Mendizabal á dar á Echabe mientras biba la cama regular y de costumbre y camisas de uso para sí solo, y no para criado alguno, y que si Echabe volviere á casarse no tenga derecho á ninguna cama, ni á camisa.*”

Dokumentuaren bukaeran bien sinadura ederrak, batik bat Sevastianena: XIX. mendearen hasierako bi nekazari ilustratu. Beste salbuespen bat.

Irakurleen begietara ekarri dugun hori ez da pasadizo bat, eta ez dauka Mendizabal familia abegikorren trapu zaharrak astintzeko helbururik. Gertaera horrek aditzera ematen ditu lan honen hiru zati nagusiak: alderdi materiala, soziala eta biografikoa. Uste dut baduela bere interes metodologikoa. Baserriak ez du izan ez emaitza-konturik, ez akziodunen etekinik, ez sozietateen estatuturik, ez kronistari, ezta biografik ere: opakotasuna eta anonimatua. Bakarrik, Gintzburrek aipatzen dizkigun *zantzuek* atera dezakete baserri zaharra kamera ilunetik, eta erakutsi, orain dela 80 urte arte Andoingo egituraren bizkarrezurra izan zena.

Arreta jartzen badugu, dokumentuak zenbait gako ekonomiko ematen dizkigu: zerealak (garia eta artoa) nagusi ziren baserrian, lekadunak ere bazeudelarik (“abas”, eta ez babak); sagarrak eta sagardoak garrantzi handia zuten Baltzuketan; abeltzaintza larreako nekazaritzaren menpean zegoen baserri bat, non borda zen garrantzizkoa, ez ukuilua. Mende bat beranduago Baltzuketan ez zen ereiten ez garirik ezta baba handirik ere, eta garrantzia zutenak belazeak ziren; behi suizarrak ziren ukuiluko printzesak, eta ez zegoen ardirik; sagarrek ere ez zuten garai bateko pisurik. Hori horrela izanda ere, Historia liburuek jarraitzen dute aipatzen baserriaren immobilitatea, haren atzerapena, haren usadio zahar eta mugiezinak: modernizazioaren oztopo.

Arlo ekonomikoaz gain, baina, baditu alderdi sozialak ere. Anoetatik etorritako Mendizabal suhiak baztertu egin zuen leinu zaharra, Echabe Balzuquetarena, alegia, eta sukaldetik bota zuen: “*y hará fuego en el zaguán en el parage que se le designe*”. Sevastian, harrezkero, pertsonaia nagusia zen Andoainen: alkatea, jабeduna, negozio gizona... Eta, kontuz berriro ezkontzeko ideiarekin! (aitagi-narriba alarguna zen). Ezta pentsatu ere!: ohea eta alkandorak kenduko zizkion. Non dago mitoak ekarri digun irudi errepikatu hori: baserri tradizionala,

baketsua, non gazteek zaharrek erakutsitakoa entzun eta dastatzen zuten? Non dago istilutik eta liskarretik kanpo dagoen baserri hori? Non dago Joanes Artzaiaren¹ alegoria? Atari bazter zokoan, Martin Jose² agure zaharra bezala.

Lan honen³ helburua da Andoingo XIX. eta XX. mendeen arteko nekazaritza mundura hurbiltzea, hiru abiapuntu kontuan harturik: orokorra edo lurraldekoa, hau da, Gipuzkoakoa; herrikoa; eta partikularra edo indibiduala, non nekazaritza familien gorabeherak hartuko diren kontuan. Hirugarren atal hori notario-protokoloetan oinarritzen da, eta baserriko sukalderraino atea jo gabe sartzen ari garela ematen du. Hori ez da historialarien helburua, baizik eta gertaera txiki horiek historia orokorrean txertatzea. Historialariaren xedea ez da inor epaitzea, baizik eta testuinguru zabal batean ulertzea. Duela gutxi arte, Historiaren subjektuak *heroiak* edo *gizon handiak* ziren; orain, berriz, ateak zabaldu nahi dizkiegu gizon-emakume xumeei, eta haien lanei eta ezbeharrei. Ez dira bakarrik intrahistoriaren partaide, baizik eta Historiarenak ere bai.

Metodologia pixka bat heterodoxoa da, Historiaren atala Antropologia eta Teknologia ataltxoekin nahastu baititugu. Lanak lau zati ditu: lehenengoa Andoingo herriaren testuinguruari dagokiona; bigarrena, alderdi materiala eta ekonomikoa; hirugarrena, alderdi soziala; eta azkenik, atal indibidualago bat: Baltzuketan baserria, eta hango nagusia, Cándido Mendizabal.

Iturriak ere anitzak dira: bibliografikoak, artxiboetakoak (batez ere, Andoingo Udalekoa eta Gipuzkoako Orokorra), herriko historiografia (gehienbat *Leyçaur* aldizkari abegikor honen bidez), eta testuinguru pertsonalak ere bai.

Eskerrak eman nahi dizkiet lagundu didaten guztiei. Hobe ez esatea izenak, erantzukizuna nirea da-eta. Gogoratu nahi dut nire laguna den Iñaki Ibáñez San Román, berak nire euskara ahula ederki jorratu eta ongarritu duelako.

Lantxo hau, andoaindarra eta Karrikako errotako lamia den Izaskuni eskaini nahi diot. Baita ere azken 14 urteotan Leitzaran Institutuan nire ikasle izandakoei ere. Urte horietan eguneroko ogiaz gain, batzuetan poza ere eman baitidate. Espero dut nire maitasunak klaseetan izandako zalapartak ahaztaraztea.

¹ Joanes Artzaia da *Gara* nobelako pertsonaia eta bere gain hartzen ditu baserriar topikoaren bertute guztiak. AGUIRRE, Domingo de: *Gara*, 5. argitaraldia, Arantzazuko Frantziskotar Argitaldaria, Oñati, 1981.

² Martin José hamaika urte gehiago bizi izan zen. 1831ko Santu Guztien egunean hil zen. Ziurrenez Baltzuketaren agintea galdu zuen, baina suhiak emandakoarekin baketsuago biziko zen. Ez zen berriro ezkondu, eta ikusi zuen nola bere alaba Jesusa M^a hil zen, hau da, Sevastianen andrea. Biloba, ordea, izen berdina zeramana, Martin José Mendizabal Echabe, 1840an ezkondu, eta etxekojaun berria suertatu zen. Mendeku txiki bat suhiaren aurka?

³ Lan hau, “Euskal identitate historikoak” izeneko IT-260-07 Lan Taldearen barruan kokatzen da, Luis Castells Artechek bere ikerlari nagusia, eta Eusko Jaurilaritzaren Zientzi Politikorako Zuzendaritzak onartu du.

1. TESTUINGURU HISTORIKOA.

1.1. Gerra eta bakea.

XIX. mendea zoritxarrekoa izan zen Gipuzkoarentzat, eta batez ere, Andoainentzat. Frantses okupazio iraunkorrek (1793-1795, 1808-1813, eta 1823-1827) eta bi gerra zibilek (1833-1839 eta 1872-1876) hondamendia ekarri zuten, bai pertsonen galera aldetik bai errekurtsu eta kapitalenetik. Gertaera odoltsu horiei garai historiko oso gorabeheratsuak atxikitzen badizkiegu –esaterako, Hirurteko Liberala (1820-1823) eta Seiurteko Demokratikoa (1868-1874)–, orduan konprenituko dugu Caro Barojak *ciclo catastrófico* deitzen zuen hori. Mende malapartatu horri Kubako gerrak eman zion amaiera. Gainera, hogeitau urte lehenago, Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak beren Foruak galdu zituzten (1876), eta bakarrik Kontzertuaren bitartez (1878) gorde ahal izan zuten autonomia ekonomiko eta administratiboa.

Andoainek beste edozein herrik baino gehiago pairatu zituen gerraren ondorioak. Ezin dugu ahaztu zeukan eta daukan garrantzi estrategikoa: Oria eta Leitzaran ibaien elkargunean, Tolosaren eta Donostiaren arteko bidearen erdigunean. Horrela, ez da harritzekoa armada guztiak herriaren jabe izateko helburua.

Karlistadek interes berezia dute gure lanerako. Lehenengoak, batez ere, kru-delena izan baitzen. Donostiak bere 1813a eta Gernikak bere 1937a badituzte, Andoainek eta bere inguruak beren 1837a dute.

Urte horretan herrian bi batailoi karlista omen zeuden, eta Buruntzako biztanleak kexu ziren, zeren eta

“tienen abandonadas sus labores del campo; pues que la sola conducción por los montes de la leña que necesitan en cantidad es un ramo que les ocupa mucha parte del tiempo (...) los voluntarios, que en la requisita de las habas recorren los trigales y los desperdician (...); así como sufren varios de dichos habitantes también en los aperos de labranza y otros efectos”⁴.

4 OTAEGI NEGREDO, Karmele: “La primera guerra carlista en Andoain”, *Leyçaur*, 1, 73.-144. or.

1837ko irailean borrokatu ziren elkarrekin, alde batetik, armada liberala (gero Gobernuaren presidentea izango zen Leopoldo O´Donnell jeneralaren zuzendaritzapean), gehienbat ingelesez osatua, eta, beste aldetik, armada karlista. Liberalak Hernanitik zetozen, eta honela dio Antonio Pirala historialariak:

“fueron quemando los caseríos, resultando unos ciento ventiséis, que dejaban mayor número de familias sin hogar; teniendo los ingleses la mayor parte en estos incendios (...) el hecho de quemar tanto caserío, aislados casi todos, infundió en los guipuzcoanos odio y rencor”⁵.

Urnietak hartu zuen okerrera, eliza eta guzti erre baitzuten. Hala ere, Otaegiren arabera, Andoainen 60 etxe inguru erre ziren, batzuk herriko kaskoan, baina gehienak Buruntza eta Leizotzeko baserriak ziren. Notario-dokumentuek ia ez dute aipatu ere egiten tragedia hori, baina badakigu Kaletxikiko Loidi etxea⁶ oraindik erre zegoela sei urte beranduago, 1843an (*“incendiada en la última guerra civil”*), eta Leizotzeko Txutxurretegi⁷ eta Bentaberri baserria ere horrela zeudela urte horretan.

Karlistek Sorabillatik kontraeraso zuten⁸, eta galdutakoa berreskuratu. Piralak baserriarren erantzunaren eta triskantzaren berri ematen digu:

“porque los paisanos que habían perdido sus casas, mezclados con los soldados, vengaban matando el incendio de sus hogares y gritaban: “ezdá cuartelíc sú ematen dubenentzat”⁹.

5 PIRALA, Antonio: *Historia de la guerra civil y de los partidos liberal y carlista*, II. Alea., Felipe González Rojas editor, Madrid, 1890, 756. or.

6 Carlos de Ondarreta jabeak Loidi etxea saldu zuen. Badakigu karga zentsalak zituela (*“á lo menos de cinco capitalidades censales”*), hutsik zegoela (*“germada”*), erreta, eta egin zuela *“cesión, multa y dejación de la mencionada casa germada de Loidi mayor, su terreno solar, paredes y escombros, de su huerta”*, 41,5 posturakoa. Gainera, bazuen 123,5 posturako erein-soro bat, Etxeberri Galtzada eta Txitxarrainekin muga egiten zuena. Antonio José de Orcaiztegui izan zen eroslea. G.P.A.H. 40401, 242 i.-243 i.

7 Eskritura Donostian eman zen 1843ko apirilaren 20an, Manuel de Alzate eskribauaren aurrean. José M^a de Iguerateguik, apaiz eta sakristauak, bere anaiarengandik botere bat hartu zuen, azken hori *“estrechado por sus acreedores”* baitzegoen, eta auziperatua. Horrela saldu zuen Txutxurretegi, utzia eta erre, errege bidearen ondoan zegoena, Aranaztegi, Idiazabal Txiki eta Anzizu ondoan. Salneurria 1.600 errealekoa izan zen, eta 20 urteko epea ematen zen berrerosteko. G.P.A.H. 40401, 245 a.-247 a.

8 Bi armadek *lur errearen* taktika omen zuten, eta ohitura zen, gerra askotan bezala, etsaien etxea erretzea. Adibidez, karlistek Olaberriako ola erre zuten, jabea liberala zelako. Karlistek bere kontraerasoari ekiteko batera Sorabillako Bazkardon jarri zuten. Kasualitatea izango da baina Bazkardokoak, beste baserri bakar batekin, liberalak izango ziren Bigarren Karlistadan. Zein kalte egin zuten karlistek han? Ez du ematen Bazkardoko Zatarain familia oso librepsalaria izango zenik, zeren Ascensio Zatarain txokolategilea elizaren maiordomoa baitzen.

9 PIRALA, Antonio: *Historia de la guerra civil...*, *Op. Cit.*, 757.-758. or.

Legendak¹⁰ dio Kaletxiki odolezko erreka bihurtu zela, eta aldapaz behera zihoala O´Donnellen trikornioa. Antonio Zavalak jasotako bertso karlista batzuek jasotzen dute gertakizun odoltsu hori, aurretik agintean egon zen Gaspar de Jauregui, Urretxuko jeneral liberalarekin konparatuz.

“Orain abiatzen naiz
paratzen kantuak
Kobardiatu dute
kristino tontuak.
Karlistak a cuchillo;
an ziran kontuak!
Milagroa egin du
Gurutze santuak. (...)

“Orenbeste bat pena
nekazariari
eman gabe zebillen
Dn. Gaspar Jauregui;
gogor abiatu da
O´Donnell jaun ori,
besterik ezin du ta
jende komunari”¹¹.

Gerrak bere hildakoak, zauritutakoak, miseria, eta zor handiak ekarri zituen. Mendian ez zegoen ezta egurrik ere (“*no se encuentra un palo*”) eta Urnieta kexu zen “*porque los de Andoain van a sus montes á por leña*”.

Bigarren gerra zibila ez zen hain odoltsua izan, baina orduko garaiak ere oso gorabeheratsuak izan ziren politikoki. 1869ko hauteskundeak karlistek irabazi zituzten, eta liberalak ez ziren aurkeztu. Alkatea gerrilla karlistarekin joan zen, eta zinegotziak auziperatuak izan ziren. Gobernadoreak udal liberal bar izendatu zuen, baina armada karlistak herria hartu zuenean, Donostiaratu, eta han egon ziren bi urtez, 1876ko martxoan Andoainera bueltatu arte.

Garbi zegoen Andoaingo gehiengoa Don Karlosen aldekoa zela. Soldadu karlistak bost aldiz ugariagoak ziren. *Ejército de la Fe*-koak baserritarrak ziren gehienbat; *Voluntarios de la Libertad*-ekoak, ordea, zerbait indartsuagoak ziren kaleko zerbitzuen arloan. Dena den, karlista edo liberala izatea familiako zerbait bezalakoa zen.

¹⁰ ARREGUI, Ricardo: *Aspectos de la vida e historia de Andoain*. Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 1970, 35.-38. or.

¹¹ ZAVALA, Antonio: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*. Auspoa, Tolosa, 1992, 257.-262. or.

“Liberalen izaera hiritarra nabarmena da. Berriro ikusten dugu karlisten “harrobi” nagusia (baino ez bakarra) baserri mundua zela. Hori horrela zen karlistek maite zuten eta ezarri zuten gizarte eredua baserrikoa zelako. Etxea, lurra, familia, kristautasuna, arbasoei eta gurasoei begirunea, baserriko bizimoduaren oinarriak ziren”¹².

Harritzekoa da nola horrelako gauza *terrible*ak, ehunka pertsonarengan eragina izan zutenak –hildakoak, etxe erreak, konfiskazioak, miseria...–, dokumentuetan tangentialki bakarrik agertzen diren. Bizitzak aurrera darrai! izango zen leloa. Hala ere, eta paralelismo zuzen bat eginez, horrek gogora dakarkigu Sebastian Zapirainek bere baserriaren okupazioari buruz esandakoa (Bordaxar baserria, San Markos gotorlekuaren azpian):

“Jainkoak bestek etzekik, zenbat ximaur ta zikinkeri atera zituzten gure etxe barrindik (...) Pentsatu besterik etzegok, seireun soldadutik gora biltzen ziran egunak bazirala. Negu-partean beñepin, beti betea egoten omen uan. Lenbiziko lana, etxe-garbiketa ziteken. Etxe aurre ortan, or egon itun, egunak eta egunak, belar meta año txondor zarrak sutan, arraska-laño itxi batek bezela, sakon au guzia ketan estaltzen zutela. Amak, berriz, etxeko maindire, lastaira, koltxoi, estalki, denak egosi zizkin, zorritz betea baizegon etxea. Ez itun berak nai ordurako galdu. Hamai-ka kupel ur ekarri ziteken gure iturritxotik, etxea garbitzeko. Tellatu solairuka konpondu ta etxea barru eta kanpoz karez txuritu bitarte, ez uan ama konformatu; bai karea oparo bota-erazi ere. (...) Aita, berriz, bere karobi-erretze orrekin ez baizan ixiltzen ere. (...) Gero, bazter guziak karetu ta irauli zizkitek; leku erosoan goldez, beste sagarpe ta arri-tarteak laiaz”¹³.

Denborak dena sendatzen du, eta herriak barkatu eta ahaztu egiten du.

1876an etorri zen berriro bakea, baina Foruen deuseztapenak mingostu zuen poz hura. Euskal Herriko indar politiko guztiak Foruak mantentzearen alde egon arren, 1876ko uztailaren 21a etorri zen. Handik aurrera Foruen berrezarpena izango zen helburua, askotan itxurazkoa gehiago, benetakoa baino. Dena den, Foruak garai bateko fetitxe eta sinbolo bihurtuko ziren, eta identitatearen oinarri bihurtuz, sentimendu sakonak eta zabalak erakarri eta mobilizatuko zituzten. Hala ere, eta alde negatibo guztiekin, Berrezarkuntzak 50 urteko bakealdi luze bat ekarri zuen, Kubako hondamendiak eta Marokoko triskantzak hautsia.

¹² GARMENDIA AYESTARAN, Aitor: “Bigarren Guda Karlista Andoainen”, *Leyçaur*, 5, 1998, 168. or.

¹³ ZAPIRAIN, Salbador “Ataño”: *Txantxangorri kantaria*, Auspoa, Sendoa, Oiartzun, 2. argitaraldia. 1993 (Lehenengoa, 1979), 58.-59. or.

1.2. Populazioa.

Andoain Gipuzkoa mailan populazio ertaineko herri bat zen. Hona hemen zenbait datu, XIX. eta XX. mendeen bitartekoak:

URTEAK	IZATEZKO POPULAZIOA ¹⁴
1860	2.617
1887	2.648
1888	2.600
1896	2.957
1898	2.878
1900	2.975
1909	2.866
1910	2.850
1920	3.322
1923	3.274
1924	3.310
1930	3.729

Ez da momentua analisi sakonak egiteko, baina garbi dago populazioaren bila-kaera bat datorrela garapen industrialarekin. XIX. mendearen hasiera datu eska-sagoekin zetorren: 1.515 biztanle 1814an, eta 1.602 biztanle 1843an¹⁵, hazkunde tasak minimoak zirelarik. Baserri populazioa zen nagusi; gero, kaleko zerbait; bi errota; eta bi ola. Ez zegoen besterik. Baina La Algodonera Guipuzcoana (1856) eta trenbidea (1863) eraiki zirenean, populazioak 1.000 biztanleko jauzi bat eman, eta %50 igo zen 20 urte baino gutxiagoan¹⁶. Baserrietako populazioa, ziurrenik, herri lurak saldu eta lur goseak ekarritako kolonizazioagatik ere igoko zen, eta 1860tik aurrera populazioa egonkortu egin zen. Esan daiteke Andoaini 50 urte kosta izan zitzaioela 3.000 biztanleko muga gainditzea. XX. mendeko lehenengo hiru bosturtekoetan galerak egon ziren, beti La Algodoneraren gorabeheren araberak. Subijanak 1917an enpresa hura erosi zuenean, eta beste enpresa txikiago batzuen laguntza jasota, populazioak 3.000ko maila hautsi zuen.

¹⁴ Andoaingo Udal Artxiboa (A.U.A.), B.9.II., 243H/; B.9., LH/211; B.9.II., 48H/4; B.9.II., 48H/3; B.8., 29H/5; B.9.II., 70H/2; B.9.II., 3H/3; B.9.II., 48H/5; B.9.II., 75H/1; BARRUSO BARÉS, Pedro eta PICAVERA SALVIDE, Pedro: "Andoain en 1900: análisis demográfico, económico y social de un municipio guipuzcoano a principios del siglo XX". *Leyçaur*, 3, 1994, 195-263. or.; RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Miguel José: "Andoain durante la Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930)". *Leyçaur*, 7, 2002, 255-338. or.; INSTITUTO NACIONAL DE ESTADÍSTICA: 1910eko eta 1920ko populazio datuak.

¹⁵ OTAEGI, K: "La primera guerra carlista..." *Op. Cit.*

¹⁶ 1860ko erroldak ematen digu 57 atzerritar zeudela herrian (32 gizonezko eta 25 emakumezko). Ez zen sekula eza-gutu horrelako kosmopolitismorik. Dudarik gabe, Algodonerarekin ezarritako frantses kolonian zuen jatorria (zuzendaria ere frantsesa zen), eta ezin dugu ahaztu trenbidearen eraikuntzan ere atzerritar askok parte hartu zutela.

1897ko erroldak¹⁷ sexu-ratio orekatu bat ematen digu, 0,94koa: 2.878 biztanle-tatik 1.333 ziren gizonezkoak, eta 1.417, berriz, emakumezkoak, genero oreka zegoela adieraziz.

1900eko populazioak erakusten digu populazioa oso gaztea zela gaur egungo parametroekin alderatuz: talderik handiena 15-44 urte bitartekoa zen, %45,3; bestalde, 0-15 urte bitartekoa %32,5 zen; eta, 65 urtetik gorakoa, ordea, %4,54 bakarrik¹⁸.

Urte hartako populazioaren jatorri nagusia bertakoa zela adierazten digu. Industrializazioaren hasierako urteak kenduta (%3 atzerritarra zelarik), lanekua bertakoa zela ematen du: baserria uzten zutenek edo bi lanbideak uztartzen zituztenek osatua. 1900ean populazioaren bi heren bertakoa ziren, eta %85 Gipuzkoan jaioak. Paradoxikoa dirudi, baina lehen sektorean ematen zen andoaindarren tasarik baxuena: beste mito bat hautsita: *jatorrena*, *baserritarra*. Bada, ez. San Martinetan egiten zen maizterren lekualdatze mugimendua –*sanmartingoa*– oso zabala zen; beraz, kasu gutxitan jarraitzen zuen familia batek belaunaldiz belaunaldi baserri berebean: oinetxekotasunaren beste mito bat hautsita. Oraindik 1940an baserritarren %40 inguru Andoaindik kanpo jaiotakoak ziren¹⁹.

Honela deskonposatzen zen 1900eko populazioa auzoz auzo:

- Udaletxea: 488
- San Pedro kalea (Kaletxiki): 124
- Alhondiga (Eskolak kalea): 291
- Santa Krutz: 348
- Larramendi: 294
- Herriz kanpoko entitateak (Arrantzuko Benta, Geltokia, La Algodonera, Olaberria...): 37
- Sorabilla: 257
- Buruntza: 287
- Bazkardo: 102
- San Esteban: 243
- Leizotz: 407

¹⁷ A.U.A., B.9.II., 48H/3.

¹⁸ BARRUSO, P., PICAVERA, P.: "Análisis demográfico..." *Op. Cit.*, 210.-218. or.

¹⁹ A.U.A., B.8., 238H/19. *Nekazaritzako langileen errolda*. 145 baserritarretatik 55 ez ziren jatorriz andoaindarrak. *Sanmartingoa*ren fenomeno hori ez zen bakarrik Euskal Herriko berezitasun bat. *Novecento* pelikulan ikus dezakegu nola gurdiairen gainean traste zaharrak jaso, eta egun berean egiten zen lekualdatze-konkurtsu berezi eta mingarri hura, San Martin egunean, alegia.

Harrezkero, zenbait baserri desagertzen hasiak ziren, zalantzarik gabe pobreenak, eta haien izenek ere hala adierazten digute: Borda, Etxeberri, Txiki... Baserri kaxkar horiek ez ziren gauza familia bat sostengatzeko. Michel Duvertrek dio bordak izan zirela mendiaren kolonizazioaren bideak Iparraldean. Gauza bera esan daiteke Gipuzkoarako: XIX. mendean baserri bihurtu ziren zenbait borda, baina haiek izan ziren utzitako lehenak. Ekialdeko alderdian²⁰ hutsik zeuden honako hauek: Amezti, Artola Borda, Artola Etxeberri, Meaka Erdikoa, eta Meaka Etxeberri. Iparraldeko alderdian utzita zeuden: Auzanea, Eguskitza Borda, Etxeberri Galtzada Borda, Generalena Borda, eta Derrepente Borda; eta erorita, berriz: Arantzaluz, Areta, Ubalategi Txiki, eta etxetxo bat Arrantzuko Bentaren atzean. Hegoaldean, hutsik zeuden Matiasen Borda, Azpillagako Borda eta Donatxele Borda.

Eraikuntzei buruz²¹, kaskoak 142 etxe zituen, eta horietatik 11 hutsik zeuden. Udaletxetik 500 metrora baino gertuago zeudenak 38 ziren, eta 97 baserri zeuden urrutia. Gainera, bazeuden zenbait eraikuntza berezi, bizilagunak zituztenak: Arrantzuko Benta, Geltokia, Algodoneran bi etxe, Olaberriako errota...

Kaskoan, San Pedro kaleak 19 etxe zituen: Nagusiak, 61; Zumeak, 21; Berriak, 23; Eskoletakoak, 4; Ankorasek, 5; Larramendik, 18 ("Echeverriac" kontuan harturik).

Baserriei dagokienez, iparraldean 46 baserri zeuden, ekialdean 60, hegoaldean 30, eta mendebaldean 12.

Sorabillak ere bere kaskoa zuen (5 etxe), eta hango baserriak ere "cuartel"-etan zatituak zeuden: guztira, 34²².

Orotara, Andoainek 582 familia zeuzkan, eta familia bateko batez besteko pertsonak 5 ziren. Baserrietako pertsonak, berriz, 7-8 bitartekoak ziren. Beraz, kaleko etxeak baino populatuago zeuden.

Aipatu dugu arestian XX. mendeko bigarren hamarkadan populazioa bizkortzen hasi zela, eta nola populazioa hasierako urteetan galdu egin zen. Konkretuki, 1900. urtetik 1910.era 134 biztanle galdu ziren, eta honela banatzen ziren²³:

²⁰ Administratiboki baserriak "cuartel"-etan zatitzen ziren: "cuartel de Oriente, de Poniente, Norte, Sur" ziren haien izenak. Iparraldeko Ospitaleetik eta Ikutza Zaharretik Arrantzuko Goikoraino zihoan; ekialdekoa, Garaiko Errotatik Meaka Etxeberri eta Idoiagaraino; hegoaldekoa, Juandeizurruena eta Aldakaitzetik Txertuetaraino; eta mendebaldekoa, berriz, Larmenditik Ubillutseraino.

²¹ A.U.A. B.9.II., 48H/4.

²² Iparraldean (Gaztañaditik Garateraino) 16; ekialdean (Etxeberri eta Kordobatik Allurralde Txikiraino) 5; hegoaldean 1 (Azelain); eta mendebaldean (Igelutsetik Ballestageraino, edo Balastraineraino) 12.

²³ A.U.A., B.9.II., 70H/2.

ALDERDIAK	EREMUAK	BIZTANLEAK
UDALETXEA	KALETXIKITIK NAGUSIRA	-27
SANTA KRUTZ	ESKOLETATIK ZUMEARA	-93
LARRAMENDI	LARRAMENDI KALEA	-24
SORABILLA	DENA	+2
BAZKARDO-LEITZARAN	BASERRI GUZTIAK	8

Emaizta demografiko partzialek eta osoek erakusten digute kaskoko demografia makal zebilela. Landako biztanleria 10 pertsonatan igo zen 10 urtean; beraz, bertan ere nahikoa zen mantentzearekin. Txosten bera ezkor azaltzen zaigu:

"En la parte rural ó sea de los edificios diseminados habitados el año 1900, se encuentran inhabitados, sin colono, ocho edificios de labranza, por haberse ausentado las familias que las habitaban y no presentar otras que quieran habitarlas."

"Este abandono, es debido, á que los que en ellos habitaban vivían generalmente del ganado, que se criaban y mantenía en terrenos de otros propietarios, y como estos han ido acotando ó cerrando sus propiedades, se han visto en la imposibilidad de continuar como antes dedicados á la cría del ganado."

Baserriak uzteko arrazoiak ematen dizkigu: mendian eraikitako baserriek ez zutelako lur nahikorik, eta bazka eta larrea gero eta mugatuagoak zirela. Horrela, beste 8 baserri agertzen dira hutsik: Arrantzuko Behekoa, Olaberrieta, Meaka Erdikoa, Manso, Txurdo Borda, Kontrarrejistro, eta San Migel.

1.3. Industria eta elektrizitatea.

Populazioaren azterketak erakutsi digu haren bilakaera industrializazioaren²⁴ parekoa izan zela. Beraz, beharrezkoa da, labor-labor bada ere, alor hori azaltzea, zeren eta, industrializazioa, azken finean, baserri munduko argazkiaren negatiboa baita.

XIX. mendearen erdialdera arte ia ez zegoen industria edo merkataritza jarduerarik. Leizaurkolako ola 1829an desagertu zen; Olaberriakoa, karlistek suntsitu ondoren, berreraiki egin zen, baina 1862an gainbeheran zegoen eta errota bihurtu zen²⁵. Beste 3 errota zeuden: Azpiko Errota (Udalarena), Garaiko Errota, eta Goiko Errota

²⁴ BENGOCHEA DORRONSORO, Javier: "La incorporación de Andoain al moderno proceso de industrialización. Apuntes de una evolución: 1850-1925", *Leyçaur*, 1, 1990, 139.-173. or.

²⁵ IRAZU, losune: *Ingurua ezagutzen, Andoaingo paperak* 6, 1991, 135.-136. or.

(Errotaberri edo Sasierrota). Lehenengo biek garia eta artoa ehotzen zituzten, baina mende bukaerarako garia ehotzeari utzi zioten. Datu adierazgarria. Horretaz gain, ezer gutxi: etxeko ehundegi batzuk, bi txokolate errota, eta zenbait artisau²⁶.

Egoera kaskar hori erabat aldatu zen 1856an, Zumean La Algodonera Guipuzcoana edo La Guipuzcoana ehungintza fabrika jaso zenean. Enpresa handi bat bezala jaio zen, 500 langile izateko helburuarekin. Horrek erabat aldatu zuen Andoaingo jarduera eta baita bertako hirigintza ere, fabrikagatik eta berarekin etorriko zen "Echeberriac"-en eraikuntzagatik. Kotoia New Orleansetik ekartzen zen, eta produktuak Espainia osoan eta kolonietan saltzen ziren. Mundu mailako ziklo ekonomikoen arabera mugitu zen kotoiaren ekoizpena, hau da, gorabeheratsua izan zen. 1890ean presa bat jaso zuen, eta Nicolás Bustinduyk hauxe zioen: "*Esta instalación de fuerza eléctrica es la primera que se ha establecido en España*". 1901eko maiatzaren 17an emakume ehuleek greba egin zuten, eta 10 egun iraun zuen²⁷. Data horren inguruan ere, sozietate anonimoaren estatusa hartu zuen. Beraz, elementu erabat modernoak zeuden Algodoneran: industria globala, elektrizitatea, greba, eta sozietate anonimoa.

La Algodonerak 459 langile zituen 1900ean, 440 langile 1903an, eta 450 (204 gizon eta 246 emakumezko) 1907an; baina hortik aurrera hasi zen haren pata-laldia: 308 langile 1911n, eta 270, berriz, 1913an. Urte horretan itxi egin zen, nazioarteko koiuntura zela-eta. Astindu ederra izan zen herriarentzat: "*cientos de obreros en la mayor miseria. Algunos de ellos, jóvenes, han encontrado trabajo en la nueva fábrica de papel, obras del tranvía y ferrocarril del Leizaran*"²⁸. 1917an Compañía Fabril Subijanak erosi zizkion ondasunak, eta berriro zabaldu zuen 300 langile zituela. 1920rako, jada, 463 ziren.

Beste industria moderno bat, kartoi eta paper-pastakoa, Bartolomé Lasquibar y Cia izan zen, 1895ean sortua, baina 1900ean Luis Calisalvo y Ciak hartu zuen, eta 1909an desagertu zen. Bi enpresa horiek Larreta anaiei²⁹ lotuta zeuden, eta Lizarkolan zeuden.

Portu izan zen paperezko beste enpresa bat. 1914an sortu zen, baina urte berean desagertu, eta 1917an berriro sortu zen, orain Portu Hermanos izenarekin, eta 30 bat langilerekin.

²⁶ Silverio Olazaguirrenen ehundegiak mendearen muga pasa zuen, eta baita Luis Irazuren txokolategiak ere. Ordea, haren lehengusu Ascensio Zatarainena 1880ko hamarkadan desagertu omen zen. Ez dakit gure historiografiak nondik ateratzen duen Gipuzkoa moderno baten irudia (merkataritza zela, arrantza zela, armada eta burokrazia lanak zirela...). Salbuespenak salbuespen, baserria eta emigrazioa ziren nagusi industrializazioa arte.

²⁷ A.U.A., B.8., 29H/5.

²⁸ Hori zioen *El Correo del Norte* egunkariak.

²⁹ Larreta Arzac anaien (Azelaingoak) arreba bat Bartolomé Lasquibarrrekin ezkondu zen, eta Joaquín, berriz, María Calisalvorekin. Beraz, Lasquibar eta Calisalvo, biak, koinatuak zituen Joaquinek, eta bera aritu zen enpresako gerente. Ez da kasualitatea izango haren heriotza urtea (1909) eta enpresaren desagertzea.

Bilakaera luzeagoa baina iraunkorragoa izan zuten José Moledaren enpresek. Lehendabizi, Garaiko Errota erosi zuen, bertan artoa ehotzen zelarik; eta gero, elektrizitatera egokitu zuen errota zaharra (Electra Leizaran). Aldi berean, zerrategia zabaldu zuen (Moleda, Olariaga y Cia), eta geroago, dibertsifikatu egin zuen, eskuila fabrikarekin (1917) eta pertsianak egiten zituenarekin (1922). 20ko hamarkadan haren lantegietan ehun langile baino gehiago aritzen ziren.

Beste lantegi txiki batzuk ere bazeuden: zapatari pare bat, kare fabrika txiki bat, sosa hipoklorittoa ekoizten zuen beste bat, E. Torneroren mineral-ehotzekoa... Unanueren enpresa eraikitzaileak garrantzi handiagoa zuen, eta 20 bat langile zituen.

Beraz, industriak 20ko hamarkadan erakutsi zion bere burdinazko muskulua baserriari, batik bat, 1926an, Laborderen sorrerarekin.

Hala ere, baserri *fuert*erik ez zuten baserriar askok parte hartu zuten industria lanetan. Nekazaritza partziala ez da gaur egungoa³⁰; baserriarrak beti saiatu dira baserrikanpo lan egiten, txanpon batzuk ekartzeko: baso lanetan zerratzan, ikazkintzan, eraikuntzan, meategian, hau da, era guztietako industrietan.

Baina modernitatearen³¹ bandera baten bila baldin bagoaz, lehenengoa elektrizitatearen³² aurkituko dugu. Ikusi dugu La Algodoneraren abangoardia alor horretan, baina argiteria publikoa³³ ere oso aurrerakoa zen. 1894an Larreta anaiek eta beren koinatu Bartolomé Lasquibarrek 10 CV eskaini zituzten Lizarkolako beren enpresarako zenbait lurren truke. Udalak eraiki behar zuen zentrala turbinarekin eta dinamoarekin, eta Leitzaan ondoan eraiki zuen. Joaquín Larreta ingeniariak egin zuen ikerketa. 1906an 15 CV-ra zabaldu zen potentzia, baina laster ikusi zen ez zela nahikoa: ur gehiago behar zen, eta beste zentral bat. 1900etik 1905era bitartean Udalak eta Larretak auzi luze bat izan zuten uren erabileraren eskubideak zirela-eta. Mugetako zentrala 1906an bukatu zen; bertara, Urgurutzetan biltzen ziren Argarate eta Ormakiko urak iristen ziren, 1.670 metroko ubide ireki baten bitartez eta 456 metroko burdinazko hodi luze baten bitartez.

³⁰ Txomin Usandizagak (Andoain, 1934), Buruntzako Serorategi baserrikoak, kontatzen du nola bere aita Antonio Carlosek (Andoain, 1902), berak bezala, beti Moledan lan egin zuen, eta aldi berean, beren baserrikoa aurrera eramane zuten.

³¹ Modernitatearen diskurtsoak xehetasun asko ditu garai postmoderno hauetan. Hemen leninista bihurtzen gara, eta bat egiten dugu haren esaldi famatuarekin, hau da, sozialismoa honela definitu zuenean: *elektrizitatea eta sobietak*.

³² LARRINAGA RODRÍGUEZ: Carlos: "Los saltos hidráulicos del río Leizaran y su contribución a la electrificación de Andoain y del País Vasco entre 1896 y 1936", *Leyçaur*, 5, 1998, 195.-224. or. ; SEGUROLA JIMENEZ, Marco eta MURO ARRÍET, Koro: "Herri lanak Andoaingo eraikuntzan (1850-1900)", *Leyçaur*, 4, 1996, 211.-260. or.

³³ 1890 baino lehen petroliozko argiteria publikoa zegoen kalean: ilargia ez zegoen egunetan pizten zen, eta gaueko 10etan itzaltzen zen.

Zentrala ez zegoen Andoaingo lurretan eta Sociedad Colectiva del Monte Berchin izenekoari erosi zizkion eskubideak. Material elektrikoa suitzarra zen, eta hodiak, berriz, Legazpikoak. Potentzia 61 CV-ra igo zen, eta Udala energia saltzen hasi zen: Urnieta, Amasa eta Billabonara. 1906an Sorabillako 6 bizilagunek eskatu zuten elektrizitatea, baina izango zen Primo de Riveraren diktadura garaia urrutiko baserriak elektrizitatea jasotzen hasiko zirenerako. Udalak lotura ematen zuen, eta baserriarrek instalazioa jartzen zuten³⁴.

1901ean Bilbon Sociedad Hidroeléctrica Ibérica³⁵ sortu zen. Enpresa handi bat zen, eta Banco de Vizcayaren itzalpean zegoen. Haren helburua zen elektrizitatea leku urrutira eramatea, bereziki, Bilbora. Joaquin Larretak Leitzañan zituen eskubideak erosi zituen, akzioen truke, eta 1904rako energia eramaten zuen Tolosara, Donostiara, Rezola zementu enpresara...: 1920an 18 langile zituen.

Horrez gain, Andoaingo enpresek (Portu, Subijana, Compañía del Tranvía, Laborde...) beren salto hidraulikoak zituzten.

Biztanleria aktiboaren sailkapenak ez zituen garai hartan gaur egun dituen garrantasuna eta zehaztasuna. Estatistikak ez ziren ondo egiten, eta hortik ikuspegi kontrajarriak ateratzen dira. Barrusok eta Picaveak, 1900erako, lehen sektoreari 415 langile ematen dizkiote, eta bigarrenari, berriz, 750eko datu erabat puztua. Beraz, honela ondorioztatzen dute: “*Andoain a principios del siglo XX ha pasado de ser una localidad agrícola a estar plenamente industrializada, confirmando una tendencia que ya se apuntaba desde mediados del siglo XIX*”³⁶. Aitzitik, Rodríguez Álvarezek, 1920ko hamarkadarako, zifra hauek ematen ditu lehen sektorerako: 437 gizon eta 385 emakume, eta hori dela-eta, hauxe dio: “*El Andoain de los años veinte, pese a los evidentes avances de la industria, era todavía un pueblo eminentemente agrícola*”³⁷. Agian, hori ere gehiegizko adierazpen bat da. Gainera, kontuan hartu behar da lehen aipatzen genuena: denbora partzialeko nekazaritza hortxe zegoela. Laburbilduz, baserriek 700era iristen ez ziren pertsonen laneskua izango zuten, eta, nahiz eta oso orekatua egon urte askotan, industriak ez zuen maila hori garbi lortu 1926ra arte, Laborde zabaldu arte.

³⁴ Adibidez, Garro baserriak 1928an egin zuen eskaera. RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Miguel José: “Andoain durante la Dictadura...”, *Op. Cit.*, 329. or.

³⁵ 1944an Sociedad General de Transportes Eléctricos del Salto del Duero izenekoarekin bat egitean Iberduero SA bihurtu zen.

³⁶ BARRUSO BARÉS, Pedro eta PICAVEA SALVIDE, Pedro: “Andoain en 1900...”, *Op. Cit.*, 255. or.

³⁷ RODRIGUEZ ALVAREZ, Miguel José: “Andoain durante la Dictadura...”, *Op. Cit.*, 317. or.

1.4. Komunikazioak eta zerbitzuak.

Gipuzkoako herri gutxik daukate Andoainek duen kokapen estrategikoa: Oriaren meandro baten ondoan, Leitzañan ibaiaren ahoaren ondoan; Nafarroako bidean, eta Tolosa eta Donostiaren arteko bide erdian.

Andoaindik pasatzen zen XVIII. mendean egindako errege bidea, Urnietatik eta Astigarragatik Iruneraino zihoana. Bide hori ez zen Donostiatik pasatzen; beraz, 1844tik 1846ra bitartean beste errepide bat zabaldu zen, Andoaindik Irungo Katearaino zihoana (Bentas), N-1 errepidearen aitzindari. Bide hori hobetzeko 1851n Leitzañan gainean beste zubi bat jaso zen, eta Andrezketaren iturriak (gaur egun Euskadiko Kutxa-Caja Laboralaren bulegoaren inguruan) Bazkardorekin lotzen zuen errepidea hobetu zen³⁸. Lan horiek guztiak andoaindarrek egindakoak izan ziren; beraz, haietan baserriar askok parte hartuko zuten. Egitura horren bitartez, Andoaingo bide sarea egina geratu zen, gaur arte.

Dena dela, leku aurreratuetakoa lan publikorik handiena trenbidea izan zen. Mende bat eta erdi pasa eta gero, ohartuko gara lan hura zer izan zen, eta zein garrantzi izan zuen, eta oraindik ere zein garrantzi duen. Gipuzkoako Probintziak eginahal guztiak egin zituen hori gerta zedin: gipuzkoarrek suskripzio asko erosi zituzten hura finantzatzeko. Frantses kapitala zuen Sociedad del Crédito Mobiliario Español izenekoari eman zioten kontzesioa, eta horretarako, Compañía de los Caminos de Hierro del Norte de España enpresa eratu zuen. Horrek Beasain-Donostia zatia 1863an inauguratu zuen, Andoainen geltokia zuelarik. II. Karlistada bukatu eta gero, burdinazko errailak kendu, eta altzairuzkoak jarri ziren; 1899an elektrifikatu egin zen, eta gero bikoiztu, ia XX. mendean. Elektrizitatea baino lehenago, trenbidea izan zen modernitatearen ikurra.

Trenbidearekin batera, telegrafoaren linea bota zen –hasieran optikoa–, 1846an, Aitzbeltzen (Sorabillan) dorre bat zuela; eta gero elektrikoa N-1en inguruan.

1902an Tren Txikiren lanak hasi ziren. Horrek, hasieran, Andoain eta Plazaolako ola zaharra lotzen zituen, eta helburua me³⁹ aberastasuna ateratzea izan zen. Sociedad Anónima Leizaran enpresa bilbotarrak egin zuen, baina ez zuen sekula arrakastarik izan. Grebekin hasi zen, eta beti zorpean jardun zuen. 1904an estreinatzen zen, eta 1914an Lasarte eta Iruñeraino luzatu zen. Hasierako mearen bokazioari egurrarena eta bidaiariena gehitu zitzaizkion⁴⁰.

³⁸ SEGUROLA JIMÉNEZ, Marco eta MURO ARRIET, Koro: “Herri lanak...”, *Op. Cit.*, 218.-230. or.

³⁹ Andoainen ere ba omen zeuden meatokiak, Idoiaga inguruan. Izen hauek zituzten: San Miguel, San José, Vasco, Corona, eta Glorioso. IRAZU, Iosune: *Ingurua ezagutzen, Andoaingo Paperak* 6, 1991, 35.-49. or.

⁴⁰ BENGOCHEA, Javier: “La incorporación de Andoain...”, *Op. Cit.*; CABEZÓN, Xabier: *Historia del ferrocarril de Plazaola*. www.plazaola.net.

Komunikazioetako beste ikur bat Compañía del Tranvía Tolosa San Sebastián izan zen. 1912an jarri zen martxan, eta haren eraikuntzan eta lantegian La Algodoneratik lanik gabe geratutako “*jornalero*” asko zeuden. CTTSSko tranbia oso garrantzizkoa izan zen baserriko produktuak merkaturatzeko, gehienbat Donostiara eramateko.

Ur sarea beste zerbitzu moderno bat izan zen. 1870erako bazeuden lau iturri printzipalak –Udaletxekoa, Kale Nagusikoa, Kaletxikikoa, eta Kaleberrikoa–, eta hodiak buztinezkoak ziren. Geroago, 1880ko hamarkadaren bukaeran burdinazkoak jarri ziren. Hamar urte beranduago, Sebastián Camio arkitektoak ur sare berria diseinatu zuen. Asutik hartu eta Baltzuketan zegoen arketaraino eraman zen mendearen azken urteetan. Garai berean ere, estolderia hobetu zen⁴¹. Baserriek ura izateko ekimena mistoa izan zen: baserriarrek zangak zabaldu, eta hodiak sartzen zituzten, eta Udalak, berriz, diruz laguntzen zien.

Beste zerbitzu bat hilerriarena izan zen. 1810era arte andoaindarrak elizan lurperatzen zituzten, baina osasunari buruzko ikuspegi ilustratu berriek begi txarrez ikusten zituzten ohitura haiek; beraz, elizaren ondoan eraiki zen hilerria, gaurko Goikoplazan. Txikiegia dirudi, zeren eta handik mende erdira gobernadoreak berri bat eraikitzea agindu baitzuen. Gorabehera askorekin, baina azkenean inauguratu zen, 1864an, eta mende bat baino gehiago iraun zuen, 1981ean Pagamendikoa zabaldu arte.

Sebastián Camiok berak ere jaso zuen alhondiga berriaren eraikina XIX. mendearen bukaeran. Kale Nagusiaren eta Eskoletako kalearen bidegurutzean zegoen, eta bi solairu zituen.

Camiok jaso zuen azokako eta eskoletako eraikina ere: 6 arku zituen, eta beheko solairuan merkaturatua zegoen, lehenengo solairuan eskolak, eta bigarrenean, berriz, maisu-maistren etxebizitzak. Prest zegoen 1895erako, eta 1975ean bota zuten.

Hiltegia ere pixka bat beranduago eraiki zen Leitzarango zubiaren ondoan, Bekoplazan.

Ospitalea edo Benefizentzia Etxea 1872an zabaldu zen, Irigoyen de Yuso etxean. Legarra-Echeveste Fundazioaren etxea zen, eta Gasteizko Gotzaingoari erosi zitzaion 1908an 20.000 pezetagatik, operazio ez oso garbi batean. 1921. urtetik aurrera Karitateko Alabek zaintzen zuten⁴².

⁴¹ RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Miguel José: “Andoain durante la Dictadura...”, *Op. Cit.*, 329. or. Ur sarearen gastuak ardoaren gainean jarritako zerga gehigarriarekin edo arbitrioarekin finantzatu ziren. SEGUROLA JIMENEZ, Marco eta MURO ARRIET, Koro: “Herri lanak...”, *Op. Cit.*, 232.-245. or.

⁴² ALIJOSTES OLASAGASTI, Gorka eta GARMENDIA AYESTARAN, Aitor: “Andoaingo benefizentzia eta ongizate sozialaren bilakaera historikoa, XVII. mendearen bukaeratik XX. mendeko 30. hamarkadara arte”, *Leyçaur*, 4, 1996, 187.-188. or. RUIZ HOSPITAL, Gonzalo: “La fundación <Legarra Echeveste>”. *Leyçaur* 1, 1990, 17.-69. or.

Zerbait esan dugu eskolei buruz. Denok dakigu analfabetismoa izurrite soziala zela. Beraz, modernitatearen beste pauso bat umeak unibertsalki eskolaratzea izango zen. 1860ko erroldak⁴³ datu hauek ematen dizkigu:

1860	GIZONAK	EMAKUMEAK	OSOAK
Irakurri eta idatzi	%26	%15	%20
Bakarrik irakurri	%11	%19	%15
Analfabeto integralak	%63	%66	%65

Datu horiek (bi herenak analfabetoak) hobetzen joan ziren mende bukaerarako, baina oraindik 1890ean hautatzaileen %52 (25 urtetik gorako gizonezkoak) analfabetoak zen⁴⁴. Askoz ere geroago, 1923an, gobernadoreak Udala berri zuenean, 10 zinegotzi berrien artean 3 analfabetoak ziren⁴⁵. 1920ko INEk emandako datuen arabera ikus daiteke alfabetizazioa poliki hobetzen zihoala. Aldaketa nagusia emakumeengan ikusten da, ia gizonezkoen mailara iritsi baitziren.

1920	GIZONAK	EMAKUMEAK
Irakurri eta idatzi	%60	%59
Bakarrik irakurri	%0,2	%0,2
Analfabeto integralak	%40	%41

Eskola publikoak Udaletxearen bigarren pisuan, merkatuaren eraikuntzan, eta Sorabillako serora-etxean zeuden. Maisu-maistra guztiak titulatuak ziren.

Hezkuntza pribatua Notre Dameko⁴⁶ moja frantsesek ematen zuten. 1911n, Legarra-Echeveste fundazioaren epigono bezala, eta Udalak emandako 20.000 pezetarekin, Gotzaingoak Seminario Txikia zabaldu zuen. 1924ko Inuzente egunean erabat erre zen, eta horren gainean, 1943an, oraingo La Salle eskola zabaldu zen.

⁴³ A.U.A., B.9.II., 234H/21.

⁴⁴ BARRUSO BARÉS, Pedro eta PICAVEA SALVIDE, Pedro: “Andoain en 1900...”, *Op. Cit.*, 222. or.

⁴⁵ Gipuzkoan 1877an analfabetismoaren tasa %58koa zen, eta %42koa 1910ean. Data horretan Espainian %6oraino iristen zen. OSTOLAZA, Maitane: *Entre Religión y Modernidad. Los colegios de las Congregaciones Religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea*, EHU, Bilbo, 2000.

⁴⁶ Eskola mistoa zen eta Txalaka taberna dagoen lekuan zegoen. II. Errepublikan alde egin zuten mojek.

1.5. Politika.

Ekintza politikorik nabarmenena 1883an gertatu zen. Urte horretan Sorabilla Andoingo udalerrian barneratu zen. Herri txiki baten sostengua garestia irteten zitzaien sorabillatarrei, eta Andoaineratzea erabaki zuten.

Aipatu dugu nola karlisten eta liberalen arteko liskarrak politikatik gerrara pasatu ziren, eta nola Andoingo, Euskal Herriko, eta Espainiako alderdi asko odoldu zituzten.

Dena dela, II. Errepublikara arte, gutxi batzuen jarduera zen politika, nahiz eta guztiengan izan bere eragin sakona. Elite batzuk besterik ez ziren politikazaleak.

1890era⁴⁷ arte sufragio zentsaria zen (Seiurteko Iraultzailean izan ezik) eta zerga maila bat gainditzen zuten gizonezkoek zuten botoa. Hortik aurrera unibertsal bihurtuko zen gizonentzat. Dena dela, ez du ematen aldaketa horrek poz handia ekarri zuenik, hauteskundeetako parte-hartzea oso gutxitan izan baitzen %50ekoa baino altuagoa. Gainera, gehienetan ez zen beharrezkoa hauteskundeak gertatzea, indar politiko nagusiek adosten baitzituzten zinegotzi kopuruak eta izenak, eta horrela 5 pertsona 5 zinegotzigo betetzeko aurkezten ziren. Bestalde, hauteskundeak benetan gertatzen zirenean ere, izenak eta koloreak oso gutxi aldatzen ziren.

10 zinegotzi zegozkion herriari: alkatea, bi alkateorde, eta 7 erregidore. Inork ez zuen kobratzen kargua betetzeagatik. Bi urtez behin zinegotzien erdiak aldatzen ziren. Hauteskunde barrutiak bi ziren: Udaletxea eta Santinea etxea. Izenak gutxi aldatzen ziren⁴⁸: zinegotziak erdiko klaseko eta herri klaseko gizonak ziren gehienetan.

Euskal nazionalismoa agertu arte, bi ziren herri politikaren bektoreak, abertzaletasun bikoitz bezala definitua izan dena: bata, galdutako euskal Foruen erreibindikazioa, eta bestea, espainiar nazioarekiko atxikipena. Bi ardatz politiko horien aurrean beste printzipio bat zegoen: konfesionalismo katoliko sutsua.

Idea horien frogara da herriko indar nagusiek ateratako manifestua Kubako gerrarentzat diru laguntza jasotzeko. Bertan ikus ditzakegu, batetik, abertzaletasun gartsu hori eta berak zeraman politika koloniala, eta bestetik, nazioarteko politikaren miopia galanta.

⁴⁷ Informazio horren zati nagusia hurrengo lanetan aurki daiteke: RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Miguel José: "Andoain durante la Dictadura...", *Op. Cit.*, 255.-338. or. BARRUSO BARÉS, Pedro eta PICAVEA SALVIDE, Pedro: "Andoain en 1900...", *Op. Cit.*, 195.-263. or. MÚGICA ERQUICIA, Asun: "Elecciones municipales en Andoain (1850-1915)", *Leyçaur*, 3, 1994, 113.-153. or.

⁴⁸ Ez zen erraza kanpotik sartzea, zeren eta hautagaia izateko beharrezkoa baitzen zinegotzi ohia izatea, bi zinegotzi ohik babestea edo hautesle guztien %5aren sinadurak izatea.

"Gure jaun adiskidea: España leylari eman dio gerra bide gabe Estados-Unidos deitzen zayon naziyoak. Orain lareun da sei urte bizi ziran naziyo ortako jendeak zentzu bage, salbaje moduan, lau oñekoen gisa eta gure Españaren laguntzaz argitu ziran, gizon egin ziran; ¿zer pagu emateko?"

(...) lagundu diyue ishilka Kubako insurrektoai gure mutill onak, gure gazteriya an ill dedin, eta (...) esan digüe azkenik: españolak, zuazte Amerikatik, Kubako isla zuena da, bañan guretzat bear du.

(...) bañan ez; ez degu utziko guri burlik egiten; Kuba gurea da, eta guretzat bear degu (...), eta gerra ematen digüen ezkeroz, guerraz erantzungo diegu Estados-Unidostarrai, eta amansatuko ditugu, ishilduko ditugu oyen arrotasunak.

(...) español leyala zeran partetik, gure naziyua atera dediñ garailari, erregutzen dizugu eman dezazula zerbait dagokizun eran suskripzio edo ofrenda ortarako"⁴⁹.

Hala ere, une horiko Zalacain alkateak, Foruen ezabapenetik 20 urte pasa ondoren, "*contrafuero*" edo "*acto antiforal*" aipatzen jarraitzen zuen, esanez "*los de allende el Ebro (...) hacen por quitarnos lo poco que poseemos*".

Aurreko testuan ikusten den bezala, Foruen berrezarpena beste helburu politiko bat zen. 1876ko abolizioaren ondoren, eta 1878ko Kontzertuaren esperantzarekin, berriro Foruak lortzea posible ikusten zen, koiuntura mesedegarri batean. Honela zioen 1908an Juan Bautista Larreta buruzagi integristak:

"Gu, napar eta euskaldunak (...) izan gaitean bada lagun onak, foru zaleak (...) Dierriaren, Españiaren seme leyalak. Jaungoikuak bedeinka ditza berdiñ lau aispak, lastan gozo besarkaturik; eta orain da beti, napar eta euskaldunak, obeto esanda euskaldunak, bada denak ala gera, izan gaitean beti bat; laurak bat, denok bat gure lege zar, foru eta euskera maitearen alde.

Esan det eta baita ere naidizuet berriro esan; gu euskeldun foruzaleenak ezik Dierriaren seme leyalenak gerala; au da españolak; eta españolak ziran gure antziñakoak (...), euskaldun eta españolaz gañera beste zerbait ere bagera ¿Zer gera bada? (...) Integristak; gu guztiyok gera integristak".

Aurreko testuek erakusten duten bezala, Andoingo politika oso kontserbadorea eta klerikala zen. Ez zeukan antzekotasunik gaurko Andoain ezkertiar *iturarekin*. Horrek identitateak nola aldatzen diren erakusten digu.

⁴⁹ "Andoaiñen 1898ko mayatzaren 4en". Sinatzaileak hauek ziren: Juan Ignacio de Munita (erretorea), Ignacio Zalacain (alkatea), Luis Irazu, Manuel M. Alcain, eta Francisco Cipitria (zinegotziak), eta Clemente Balda (Udaleko idazkaria).

1920ko hamarkadara arte karlismoa zen indar nagusia, bai tradizionalista bai jaimista bai independente izenarekin. Ez da harritzekoa, Tolosako barrutia zen Gipuzkoako karlistena, eta ezin ditugu ahaztu liberalek 1837an egindako basakeriak, etxe eta baserrien erreketarekin. Karlista izatea familiako geneekin zetorren. 1907tik aurrera bere egoitza izan zuen: Zirkulu Tradizionalista.

1888an karlismoak zatiketa bat izan zuen bere eskuinetik: Alderdi Integrista. Errege karlistaren ordezkari Jesukristoren giza erresuma errebindikatu zuten. Andoainen zinegotziak izan zituzten, eta Larreta alkate ere izan zen.

Liberalek garai batean zuten garrantzia galdu zuten eta herri hauteskundeetatik desagertu ziren. 1905ean zinegotzi errepublikar hautatua izan zen José Mole da Amós industrialaria. XX.eko bigarren hamarkadara arte ez zen agertzen Sindicato de Oficios Varios, UGTri eta sozialismoari lotutakoa.

Gipuzkoako testuinguruan kokatuta egoteko, Andoainen nazionalismoa garaiz eta indartsu agertu zen. 1907an mitin bat izan zen, eta Batzokia zabaldu zen. EAJ zatitu zenean, Gipuzkoa gehienez bezala, Andoainen ere alderdi moderatua garaitu zen: Comución Nacionalista Vasca. 1923rako, alkatea Benito Garagorri zen, sagardogilea eta nazionalista.

Garai haietan gobernatzea erraza zen. Udalak ez zeukan gaur duen indarra eta presentzia; askoz ere txikiagoa zen; botere sinboliko eta karismatikoa zuen, eta ez gaur egun duen pisu ekonomikoa. Zerbitzuek ere ez zeukaten gaurkoekin zerikusirik. Politikariek ez zuten gaurko boterea ezta erantzukizuna ere. 1923ko aurrekontuak oraindik ez ziren 100.000 pezetara iristen⁵⁰. 1929ko abuztuaren 31n Udaleko idazkariak hauxe zioen: “*para el día de hoy no ha podido celebrarse por no haber concurrido ninguno de los señores que lo constituyen*”. Hurrengo Udalbatza abenduaren 6an izan zen. Garai hartan bi eskuetako behatzekin konta zitezkeen udal enpleguak.

Hala ere, Diktadura garaian ernaltzen ari ziren, gero, II Errepublikarekin, bat-batean agertuko ziren indarrak. Honela deskribatzen du Agustín Zinkunegik esnatze errepublikar hori:

“Guk ez genekien errepublika izaten zanik ere, baiña argitu gizduzten poliki.

Kale aldera jeisten giñan jai-arratsaldeetan, musika zala edo jai-usaian, eta sortzen ziran alako naasketa batzuk:

–“¡Viva la república! ¡Fuera los curas y monjas!”-pañolo gorria lepoan zutela, alako gizon arpegi illun samarreko batzuek.

⁵⁰ Egia esan, asko igo zen Diktadura garaian: %70a 1930erako. Beste ezaugarri moderno bat: herri gastua. RODRIGUEZ ALVAREZ, Miguel José: “Andoain durante la Dictadura ...”, *Op. Cit.*, 255.-338. or.

- ¡Nooo!-guk geon artean-. Zer jende arraio ote dira auek?
- Komunistak omen dira.
- Ba omen dabilta anarkistak ere”⁵¹.

1.6. Diktadura integrista.

Aipatu dugu integrismoa indar politiko bezala, baina integrismoa hori baino gehiago izan zen: garai hartako katolikotasuna estali zuen geruza. *Ejército de la Fe* delakoak gerrako bataila guztiak galdu zituen, baina ez ideologikoa. Espainiako Elizak, eta batez ere, Euskal Elizak bere erantzun ideologikoa ematen diote liberalismo garaileari: *liberalismoa pekatua da*. Integrismoa Espainian garrantzizkoa ez bazen ere, Gipuzkoan, diputatu probintzialak, diputatu nazionalak, senatariak eta abar izan zituen. Lehen kleroa karlismoaren altzoan bazegoen, orain integrista pasa zen ia aho batez. Era berean, ezin dugu ahaztu Gipuzkoako EAJ integrista politikotik sortu zela eta klerikalismoa jaso zuela bere lelo politikoan: *Jaungoikoa eta Lagi-Zarra*.

Horrela, gizartearen birkatolikotasun prozesu batez hitz egin dezakegu. Bandera katolikoak foruzalearekin bat egiten zuen, esanez erlijioaren humusak mendeetan Foruen arbola elikatu zuela. *Gurutzea eta Arbola* eta *euskaldun-fededun* txanpon bereko bi aurpegiak ziren.

1877ko Erroldak⁵² Andoainen bi protestante zeudela aipatzen zuen, frantsesak seguru asko. Gero, ezta hori ere.

Garai bateko sei kofradiei⁵³ berri bat gaineratu zitzairen: Asisko San Frantzisko-ren Hirugarren Ordena. Garrantzi gehiago izan zuten San Luis Gonzagak (Luisak) eta Mariaren Alabak, mutilak eta neskek moraliki kontrolatzeko. Etxeberriak ere *Apostolado de la Oración* delakoa aipatzen du.

Elizak markatzen zuen Andoaingo herritarren bizitza jaiotzatik heriotzaraino: jaiegunak eta urte sasoiak, elizako denbora eta jolasa. Horretan lagungarri ziren sakramentuak, santu egutegiaren zelebrazioak, misioak, kanpotik etorritako predikadoreak, Aste Santuko eta *Corpus Christiko* prozesioak, Apaiztegi txikiko apaizgaiak eta abarrak. Ez zegoen gunerik disidentziarentzat. Familiaren, elizaren, eta eskolaren lehen helburua doktrina irakastea zen. Haur batek ere ez zuen hezkuntza erlijiosotik alde egiten.

⁵¹ ZINKUNEGI, Agustín: *Bizi naiak lege zorrotzak*, Auspoa liburutegia, Oiartzun, 1995, 53. or.

⁵² DIRECCIÓN GENERAL DEL INSTITUTO GEOGRÁFICO Y ESTADÍSTICO: *Censo de la población de España (1877)*, Madrid, 1883.

⁵³ Errosarioarena, Andre Mariaren Jaiotzarena, Karmengoa, Purgatorioko Arimena, San Josearena eta Jesusen Bihotzekoarena.

3.000 biztanle ez zituen komunitate txiki batean hauek zeuden ezarrita: Karitateko Alabak, Notre Dameko mojak, Apaiztegi txikia, Parrokiako erretorea eta lau apaiz, Sorabillako apaiza, eta abar. 1925ean Hijas de Jesus delako kongregazioak bere fundatzaile Cándida María de Jesús-en jatorriko Berrozpe baserria berea egin nahi zuela adierazi zuen. Errepublikan, Notre Dameko mojek alde egiten zuten bitartean, beste orden frantses bat herriratu zen, La Salleko Anaiak, baina hori beste garai bateko kontua da.

Klerikalismoaren indarraren beste froga batzuk izan ziren Udalaren Gasteizko Gotzaingoarekiko sumisioa Apaiztegiaren kasuan edo Jesusen Bihotzaren tronuratzeari Udaletxean 1917an (zinegotzien aho batez).

“El Sr. Alcalde Don Miguel Maiz expuso la Imagen en el centro del balcón de la citada casa (...), leyó en vascuence con sentida entonación, la Consagración del Ayuntamiento y la villa al Sagrado Corazón y a continuación el Reverendo P. Aizpuru (...) arenga (...) terminando con sonoros Goras alusivos al acto, coreados con frenético entusiasmo por la inmensa multitud, volteo de campanas y disparo de cohetes.”

Oraindik gar gehiagorekin egin zen tronuratzeari bera Compañía Fabril Subijana delakoan, 1918ko ekainaren 7an. Egun horretan parrokiatik fabrikara *“acudió todo el pueblo”*, apaizgai guztiak desfilean zihoazelarik, bandak Gounoden *Mar-txa Pontifikala* jotzen zuten bitartean. Urte horretatik aurrera jaieguna izan zen fabrikaren, eta ekintza erlijioso eta profanoekin ospatzen zen: erlijioa eta industrializazioa osmosi betean.

1.7. Kultura eta aisia.

Gutxi jakin dezakegu garai hartako alderdi kultoeraz. Ziurrenik, ez ziren hainbeste tekoak, eskola arazoak ikusita; garai hartako goi kultura gutxi batzuen esku egongo zen. Datu bat, Udalak *Espasa* 1925ean erosi zuen.

Hala ere, bazegoen herri kultura bat. Txistulariak, larunbat eta igandeetan Udaletxeko plazan jotzen zuten herriko banda, eta, batez ere, azken berrikuntza, zinematografoa, dibertsiorik zabalduena 20ko hamarkadan, Alfonso Deruque jarri zuenean Kale Nagusiko 47ko beheko solairuan.

Gainera, kirolak zeuden. Hamarkada horretako *gloria* Paulino Uzkudun zen: Errezilgo boxeolaria Europako pisu guztien txapeldun bihurtu zen 1926an. Boxeoa oso kirol herrikoia zen, eta aldi berean, futbola ere oso famatu bihurtu zen. 1923an Udalak 10.000 pezetako mailegu bat babestu zuen Etxeberrietako zelaia prestatzeko. Bukaeran, eta beti bezala, lanen kostua bikoiztu egin zen, baina lan horren itzalean Sociedad Euskalduna Andoaindara eta Club Deportivo Esperanza

sortu ziren. 1924ko sarrera salmenta ia 3.500 pezetakoa izan zen. Herri kirolek ere beren garrantzia zuten, batik bat pilotak eta boloe⁵⁴. Segalari probak ere Udalaren belazeetan gertatzen omen ziren.

Andoain oso herri euskalduna zen garai hartan, nahiz eta dokumentazio administratibo guztia gaztelaraz egon. Igande goizeko mezaren ondoko bandoak euskaraz egiten ziren normalean. Udalak euskararen ezagupena babestu zuen bere lanpostuak betetzeko, esaterako, Alhondigako administrariarentzat. Arazoa estatu mailako oposizioen bitartez betetzen ziren postuekin sortzen zen. Kasu horietan, eta Diputazioari jarraituz, helburua zen, aldeko oinarri juridiko bat bilatuz, arazoa saihestea.

Etxeberriak esaten duen bezala, Europako gerraren ondoren, Subijana irekitzean, eta, batez ere, trenbideko eta tranbiako enplegatuen etorrerarekin, kaskoaren populazioa 300 biztanle igo zen, eta horiek *“casi todos erdel dunes”* ziren⁵⁵. Gogora dezagun garai hori zela nekazaritza munduak bere lekukoa industriari pasa zion garai bera.

Orain arte emandako errebasoan erakusten da nola Andoain tradizioaren eta modernitatearen artean mugitzen zen XIX. eta XX. mendeen bitartean. Haratago joan gitezke, eta esan genezake Gipuzkoako hainbat herritan bezala egon zela modernitatearen bide kontserbadore bat⁵⁶. Egia da modernitatea historikoki progresismoari lotu zaiola, hau da, ilustrazioari, eta iraultza liberalei, baina Gipuzkoan, eta kasu honetan Andoainen, beste bide alternatibo bat erakusten du: kontserbadorea, eta batzuetan, erreakzionarioa.

Herria aitzindaria izan zen industrian eta herriko elektrifikazioan; industria berriek (ehungintza, papergintza, zurgintza...) teknika modernoak bereganatu zituzten; komunikazioen hobekuntza ikusgarria egon zen: errepideak, trenbidea, telegrafoa, tranbia; zerbitzu berriak ezarri ziren, eta egindako azpiegiturek XX. mendeko azken laurdeneraino iraungo zuten (hilerria, ur sarea, hiltegia, merkantua, eskolak, alhondiga...); indar politiko berriak ere sortu ziren, batez ere, euskal nazionalismoa; eta gaur egungo aisialdiaren paradigmatik ere agertu ziren: zinea, futbola...

⁵⁴ Boloena behera etorri den kirol bat da. Baserriaren eta sagardotegiaren krisiak itxi zituen bolatoki gehienak, baina oraindik Gerraren ondoren bazeuden hamar bat bolatoki: bi Kaletxikin, bi Leizotzen (Etxabe eta Etxamuno), Goiburun, Dorrontxola Txikian, Bentaberrin, Goikoplazan pilotalekuaren ondoan, Kaleberrian... MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK: “Kirolak”, *Atzoko Andoain eta andoaindarrak*, 12. zka. 2000-01-30.

⁵⁵ ETXEBERRIA, Francisco de: “Pueblo de Andoain. Barrios de Goiburua y Karrika”. *Anuario de Eusko-Folklore*, T.V, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1925, 65. or.

⁵⁶ CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*, Siglo XXI, Euskal Herriko Unibertsitatea, Madril, 1987.

Modernitateak, hala ere, bere kalte kolateralak ekarri zituen. 1927an lehenengo gasolindegia zabaldu zen Zumea kalean, baina garai horretan ere kotxe batek Amparito Echarrain neskatila harrapatu eta akabatu zuen.

Gainontzean, 20ko hamarkadan artean ez zegoen banku edo kutxa bulego bat ere, ezta posta estafetarik ere. Bi mediku, farmazialari bat eta albaitero bat zeuden. Bi sindikatu katoliko zeuden, eta beste bat UGTren ingurukoa. Pare bat mikelete zeuden, baina segurtasun ezak Udala 1927an Guardia Zibilaren egoitza bat eskatzera behartu zuen. Herriko bizitzak egunaren ordutegiarekin bat egiten zuen, eta ilundu eta gero, herritar ondratuen lekua etxea zen.

Eta nekazaritza munduak nola aurre egin zien garai berriei? Historia liburuek, literaturak, pinturak eta abarrek baserriarrak intrahistorikoak bezala erakusten dizkigute: mineralizatuak, historiatik kanpo, mendearen aurrerapenei bizkarra emanez, betikotasun eternoan, denborarik gabe. Egiak ala topikoak ote?

2. ALDERDI MATERIALAK: BASERRIA.

Aurreko atalean, testuinguruan, baserriko mundua herriko historia orokorrean kokatzen ahalegindu gara. Hurrengo bi ataletan, berriz, nekazaritza munduak bere-bereak dituen alderdiak aztertzen saiatuko gara. Horretarako, bi ataletan jorratzea pentsatu dugu: atal materiala eta soziala. Errealitatea bitan banatzeak manikeo samarra ematen du, baina egile honi didaktikoagoa iruditu zaio, agian bere osotasunean mundu hori objektu bihurtzea ezinezkoa gertatzen zaiolako.

2.1. Oinarri orokor batzuk.

Alor ekonomiko konkretuekin hasi baino lehenago, aldi hartan garatu ziren zenbait alderdi adierazi nahi ditugu, horiek erakusten baitigute nola baserria ez den sekula errealitate itxi bat izan, aldaketa historikoan txertatzen den errealitate bat baizik. Baserriak garai berriaren aldaketak ikusi eta ezagutu zituen –modernizazioa, industrializazioa, urbanizazioa, liberalismoa, kapitalismoa, eta abar–, eta saiatu zen egitura berri horiei egokitzen, bera ere aldatuz, garaiaren kategoria berriak barneratuz: propietate pribatuaren eta indibidualismoaren garaipena.

2.1.1 Espazioen eta errekurtsioen arteko borroka.

Espazioen ustiapen desberdinen arteko borroka, Neolitikotik hasita, konstante bat izan da. *Far West*eko filmek ere Amerika hartako etengabeko borroka erakutsi dute: harraparien –indio-ehiztarien– artekoa, batetik, eta bestetik, ganaduzaleen

eta nekazarien artekoa. Espazio erraldoi hartan, gainera, egurzaleak, trenbidearen egileak, hirigileak eta *bandidoak* zeuden.

Gure Gipuzkoa txikian ez zegoen halako eszenatoki epikorik, baina XIX. mendean zehar hiru espazio mota desberdin borrokatu ziren etengabe:

1. Baserriaren gunea, nekazaritzari eta abelazkuntzari lotua.
2. Ganadua libreki larrean zebilen belazeak.
3. Basoa, eta haren egur eta zur ustiapena.

XVIII. mendera arte, hiru esparru horiek, apurtzen eta berriro orekatzen ziren erlazioan bizi izan ziren. Herri lurrek nolabaiteko armonia ekologikoa babesten zuten. Baserriarrek bertatik zura, egurra, azpiak egiteko iraurkina, eta ganaduentzako bazka ateratzen zituzten. Hala ere, lehen kapituluan aztertutako gerrateek egoera hori hankaz gora jarri zuten. XVIII. mendearen bukaeratik hasita XIX. mendearen erdialdera arte, udalek herri ondasun gehienak saldu behar izan zituzten, beren zorrak kitatzeko. Ordura arteko oreka apurtu egin zen. Salduetako lurra baserriaren mesederako erabili ziren, hau da, baserri berriak, soroak, belazeak, garadiak eta abar egiteko. Bestalde, basoak bota egin ziren, erositako lurren kostua kapitalizatzeke. Mendia arpilatua izan zen. “*No se encuentra ya un palo*” esaten zuten andoaindarrek Lehen Karlistadaren ondoren, eta 1910ean alkateak Diputazioari basoak “*no existen mas que para cortar leña para fogueras*” esango zion.

Borroka horiek Batzar Nagusietan ere izan zuten beren oihartzuna. Zumaiako 1848ko Batzarretan basoek arduratzen hasi ziren, “*que tan descuidado se hallaba en los montes de Gipuzkoa*”, eta Sustapen Batzordeak hauxe zioen:

“El transcurso del tiempo que todo lo modifica ha alcanzado también á ese ramo, y es necesario convenir que desde la enajenación de los propios por cuasi todas las repúblicas ha sufrido mucho el aspecto bajo el cual debe considerarse lo relativo á arbolados”

Foruak bere lehenengo kapituluan, XL. tituluan, ganaduentzako larre libreko komunitate bat ezartzen zuen Probintzia guztiarentzat. Hona hemen haren mugak: “*de sol á sol*” izatea; zenbait ganadu salbuestea (gehienbat ahuntzak): eta soro hesietan ez sartzea. Askatasun horretatik txaradiak salbuesten ziren lehenengo lau urteetan. Herri askok Forua aldatzeko eta herri lurretan egindako zuhaitz landaketetan ganadua larrea eragozteko egindako eskariek porrotean bukatu zuten. 1855eko Batzarrean argitara eman zen informazio-txostenak zioenez “*la inmensa mayoría de los pueblos que han contestado á la circular de la Diputación (...) son del parecer, que no debe hacerse novedad en esta parte de la legislación foral*”. Ezin

ziren basoaren interesak bakarrik babestu, eta ganaduzaleenak ere kontuan hartu behar ziren, “*condición indispensable de existencia para los colonos de una gran parte de los caseríos elevados (...) que habiéndose adquirido las propiedades bajo la actual legislación foral, llevan consigo la carga de la libre pasturación*”.

Horrela, aldi foralaren azken urteetan ganaduak irabazi zuen, eta basoak, aldiz, galdu. Halere, Foruak zioena eta Batzarre legezkatutakoa kontrajarriz, herri eta pertsona asko, beren kabuz, ganaduen larre askatasunari oztopoak jartzen hasi ziren, propietate pribatuaren printzipioak ezarriz. Hala gertatu zen beti eztabaidatsua izan ziren Jaizkibelgo larreetan, edota jabego pribatuko basoetan, orain akziodunen elkarte bihurtu zirelarik⁵⁷.

1857ko Debako Batzarrean Andoaingo ordezkariak eskatzen zuen “*que se arreglasen las cuestiones entre aquella villa y las limítrofes de Berastegui y El-duayen, sobre la pasturación de ganados*”. Bi mendi-behi tiroka akabatuak izan ziren. Ziurrenik, eta hainbat herritan bezala, “*de sol á sol*” hura ez zen betetzen, eta ganadua ez zetorren gauero etxera. Hala ere, Sustapen Komisioak Andoaini 500 errealeko isuna ordaintzea erabaki zuen, nahiz eta zenbait larreraren arriskuaz ohartu (“*pueda pastar esta clase de vacas introduciéndose en bosques quizás recién cortados y causando daños en ellos*”)⁵⁸.

XIX. mendearen bukaeran basoaren egoera dramatikoak zen, Forua ezabatua zegoen, eta hasieran Diputazioak basoberritzeari ekiteko ez zuen aurrerapausorik eman. Hala ere, gauzak aldatu beharra zegoen, derrigor. Testuinguru berri horretan sartu behar dugu Basozaintza Zerbitzuaren sorkuntza, eta zuhaitzak landatzeko emandako laguntzak. 180 graduko iraulia eman zen ganaduaren eta basoaren arteko erlazioetan eta *prendarias*⁵⁹ bezala ezagutu ziren ganadu-harrapaketak hasi ziren.

⁵⁷ Garai bateko herri basoak ere jabego pribatu bihurtu ziren, eta haietan lehen eskubideak zituzten baserri edo etxeen jabeak akziodun bihurtu ziren. Andoaingo inguruan elkarte handiak sortu ziren, hots, Leizarango Basoak (Gipuzkoako propietaterik handiena 1930eko hamarkadan) edo Bertxingo Basoak, biak Leitzaran bailaran, Berastegi eta Elduaingo udalerrietan kokatuak. Andoainen bertan, geroago ikusiko dugun kasu bat badugu Lealberren.

⁵⁸ Horrela erabaki zuten 1857ko uztailaren 6an honako hauek: José Domingo de Mendiguchia, Joaquín de Leizaur, José de Lizarza, Ladislao de Zavala, Ignacio de Alzola, Ramon de Lizarzaburu, Agustín de Zatarian, Esteban Zurbano eta Francisco Zalacain.

⁵⁹ Ganadu-hartze horien barruan batzuetan istorio bitxiak gertatzen ziren. 1897ko urrian Miranda eta Errotaren soroeetan bi asto zahar eta zenbait arropa agertu ziren. Ganadu miserablea zen eta Oquiñena albaitekoak 20 pezetan baloratu zituen. Arropak ere trapu zaharrak besterik ez omen ziren eta 1,5 pezetan justipreziatu ziren. Gainera, baiometak bat ere aurkitu zen *kit* osoan. Bitartean, alkateak, Ignacio Zalacainek, erritu guztiak segi behar izan zituen: Ediktua idatzi, betiko lekuetan jarri, Probintziako Buletinean argitaratu, eta abar, baina ez zen jasotzera inor etorri. Bitartean asto zaharrak han zeuden, “*el corral de la casa consistorial*” delakoan, Sebastián Arreche aguazilak mantenduta. Berak zabaldu zuen enkantearen bandoa, eta hori Santu Guztien egunean gertatu zen “*entre una gran concurrencia*”. Gabriel Urrutia izan zen eskaintzaile bakarra, eta astoak eraman zituen, baina arropak inork ez zituen erosi. Mantenuaren gastuak 20 pezeta baino zerbait gehiagokoak izan ziren, baina Asociación de Ganaderos del Reino de España ohartu omen zen, eta, legeari zegokionez, bereak omen ziren 20 pezeta haiek. Diru horren eske ibili zen alkatearen haserretarako. Alkateak Probintziako Komisioari galdetu zion ea zer egin behar zuen, esanez hori “*un acto antiforal*” zela, edo “*contrafuero*” ere bai, eta “*los de allende el Ebro, sabe muy bien que hacen por quitarnos lo poco que poseemos, y temo que el dar cumplimiento á lo que se me pide sea un contrafuero*”. Miguel Mocoeroa diputatuak erantzun zion ordaintzeko eta ahazteko, baina arazoa oraindik 8 hilabete beranduago ez zen konpondu, zeren eta Madrilgo elkarte hori oraindik 20 pezetaren eskean baitzebilan.

XIX. mendearen bukaeratik Gerra Zibilaren bezperara arte luzatu ziren denuntziak ganadu askearen larrea zela-eta. Kexuak Goizuetako eta Berastegiko udaletatik ailegatzen ziren, edo erakunde pribatuetatik, hots, Leizarango Basoak⁶⁰, Bertxingo Basoak eta Sociedad Minera Guipuzcoana (Tren Txikiren enpresa) erakundeetatik. Aipatzen da “*un número considerable de ganado vacuno*”, eta “*código de justicia*”-rekin mehatxatzen da.

Foruko larre komunitatea aspalditik zegoen ahaztuta. 1914tik aurrera herrien arteko gerra bat hasi zen haien basoei zaintza emateko, ganaduen kalterako, batik bat, animaliak beste herrikoak baldin baziren. Urte horretan Hernaniko alkateak Andoaingoari esan zion behi eta zaldi ganaduaren larre libreka debekatzeko zituela. Andoainek gauzak haratago eraman zituen, ganaduzaleek su ematen omen baitzioten basoari, eta hori dela-eta, 1926an Benito Garagorri alkateak Diputazioaren Probintziako Komisioari jakinarazi zion “*en virtud de los incendios ocurridos en las repoblaciones de Tricuta y Achular, acordó prohibir todo aprovechamiento de hiervas (sic), pastos, broza, etc. en los montes comunales de esta villa, en tanto no se averigüe quien sea el autor del expresado incendio*”.

1929an berriro debekatu zen ganadu guztiaren larrea herri basoetan, Lapurtxu-loko mintegitik ateratako pago eta haritz landareak jartzeko. Debeku horretatik artaldeak⁶¹ salbuesten ziren, nahiz eta buru bakoitzeko 0,5 pezeta ordaindu behar zen (kanpokoek pezeta bana). Hurrengo urtean, 1930eko urtarrilean, Andoain eta Urnietako zaldi ganaduzaleek Udalaren eskakizunak onartu zituzten: 1.000 zuhaitz landare landatzea, eta galdutakoak birlandatzea, errepikatuz “*la prohibición absoluta del pastoreo del ganado vacuno*”.

1931ko abuztuan Urnietako alkateak eta Montes Francos delakoaren interbentoreak mota guztietako ganaduentzat ezarri zuen debekua “*siempre que proceda de pueblos que a su vez tengan acordada la misma prohibición del ganado de este pueblo en los suyos*”, eta hurrengo hilabetean Urnietako alkateak Andoaingoari jakinarazi zion debekua artaldeei ere bazegokiela.

Katean gertatu ziren debeku horiek 600 ganaduzalaren kexua sortu zuten. Ganaduzaleak Andoain, Urnieta, Berastegi eta Elduaingoak ziren. Azken horiek ziotenez, hutsaren truke saldu behar izan zuten beren ganadua, eta Foru legeria gogorarazten zuten, esanez zaldi ganaduak ez ziola kalterik egiten basoari, eta

⁶⁰ Lehen aipatu dugun Berastegiko akziodunen elkarte horrek Plazaolako trenbideari bere terrenoak alokatu zizkion, baina akziodunek bazka ustiatzeko eskubidearekin jarraitu zuten.

⁶¹ Baina horiek ere ez omen zuten askatasun osoa, zeren eta 1922an Udaleko basozainak Larrabide baserriko Víctor Ganborena denuntziatu zuten “*por pastoreo abusivo*”. 14 ardi omen zituen Belabin, Penadi puntuan. Diputazioak neurria babestu zuen, eta Benito Garagorri alkateari txostena zabaltzeko agindu zion.

beren kexua azpimarratzen zuten, esanez arazo soziala zela, eta goi baserriak hustu egingo zirela, herrietako langabeziaren arazoa sakonduz. Diputazioak Andoaingo Udala babestu zuen, zaldi ganaduak ia ez zuela garrantzirik adieraziz.

Hurrengo urtean Andoaingo 17 ganaduzalek⁶² Udalari protesta bidali zioten, Pardaki, Buruntza, eta Belabin, gutxienez, San Martindik Santa Krutzera bitarteko aldia libre uzteko eskatuz.

Hala ere, larre librearen debekuaren bideak ez zuen ia *stopik*, eta kexuak berriro gertatu ziren, orain Eusko Nekazarien Bazkuna sindikatu nazionalistaren bitartez. Horren asmoa zen “*protestar por lo que sucede en los montes comunales con la ganadería caballar por sus interminables multas en unos trozos improductivos y que van a la total desaparición del ganado*”. Gerra Zibilaren bezperan oraindik betiko debekuak ailegatzen ziren; kasu honetan, Leizarango Basoak eta Bertxingo Basoak elkarteenak.

Agustin Zinkunegik larre horien topografia gogorarazten digu, oroitzuz nola bi behor zituzten Urriztin eta “aiek ere neguan etxe aldean izaten ziren: eta udaldian or, Elduaingo mendietan ibiltzen ziran: Ormaki, Artzelai...” Artaldean larre leku hauek aipatzen ditu⁶³: “Ormaxarreta, Zuaizti, Usabelartza, Munto, Osiñaundiko egutera eta ospela eta abar”. Logikoa den bezala, mendiak gertu zituzten baserriek zituzten artalderik handienak, Urriztik, kasu. Ziurrenik, Sorabillako baserrikoek beste toponimo batzuk gaineratuko zituzten, Belkoain ingurukoak, alegia.

Era berean, XX. mendearen hasieran beste protagonista bat agertu zen, geroago espazio zabalen nagusi bihurtuko zena: pinua. Gaztainadien gaixotasunak eta urrutiko baserriak hutsik geratzeak haren garapenari lagundu zioten. Etxeberriak aipatzen duenez, “*la primera plantación de pino en Belabi hacia 1910*”. 1925ean bi baserri hutsetan –Azpikola eta Erdoizta, Sorabillan–, taxuzko pinu sailak agertzen ziren.

Aurrekoarekin batera dator. Ikusi dugu nola garai bateko herri basoak akziodunen elkarte bihurtu ziren, eta nola, lehen, larrean libre zebilen ganadua ukuiluratu egin zen. Aldi berean, lurra ixten hasi ziren. Hasieran, hesiak landarez eta sasiz eginda-koak ziren arren, gero hesolaz eta alambrez egin ziren.

Mugek inoiz baino garrantzi handiagoa hartu zuten. Baserritarrak propietate in-
dibidualari inor baino hobeto egokitu zitzaizkion, batzuetan alderdi komikora eta absurdoz hartzera.

⁶² Prudencio Santa Cruz, José Andrés Elizondo, Benito Expósito, Francisco Ormaechea, Pedro Ormaechea, Eugenio Usarralde, José Cruz Usarralde, Esteban Echeveste, José Garin, Ignacio Ormazabal, Cándido Mendizabal, José Ignacio Beloqui, José Zatarain, Pío Mugica, José Artano, Francisco Cincunegui, eta Ignacio Artano. Hamazazpitik zazpik bakarrik zekiten sinatzen.

⁶³ ZINKUNEGI, Agustin: *Bizi naia...*, Op. Cit., 20. or.

2.1.2. *Jabegoa: pribatizazioa eta maiztergoa.*

Lealberro mendian suertatutako propietate baten bilakaera, prozesu horren adierazgarri izan daiteke. 1925eko notario dokumentuak dio lur hori honela zegoela: “*en jurisdicción entonces de Aduna y hoy de Andoain, barrio de Soravilla*”.

1852an Adunako Udalak mendiko 7.370 postura saldu zizkien 46 bizilaguni, 13.384 erreal eta 26 marabeditan. Hasierako 46 horiei beste 4 gaineratu zitzaizkien, eta 50 lagun horiek elkarte bat osatu zuten, bakoitzak akzio bana izanda. Hasierako araudian akziodun guztiak Adunakoak izan behar zirela esaten zen, eta biziak aldatuz gero, akzioak saldu egin beharko zituztela. Gainera, batek bere akzioa saltzen bazuen, derrigorrez beste akziodun bati saldu behar zion. Hasierako ustiapenak komunala izaten jarraitzen zuen: urte batean garoa eta orbela kideen erdiek ustiatuko zituzten, eta hurrengoan, berriz, beste erdiek; zuhaitz motzen ustiapena 8 urtez behin egingo zen, eta txararena, osterara, 10 urtez behin.

Geroago lurraldea ataletan zatitu zen “*con inclusión de las leñas, horjarrasca (sic) y helecho, de que se disponía a su antojo*”. Zati horiek gurasoengandik seme-alabengana igarotzen ziren, eta hutsik geratzen zirenak (kanporatzen zirelako) Elkartera pasako ziren, ordaindu eta gero. Hutsik geratu ziren 11 atal, eta arazoak etorri ziren: “*entre los copropietarios ó accionistas grandes disensiones sobre su administración y disfrute y sobre su venta en pública subasta, originándose lamentables controversias y litigios*”.

Hori zela-eta, Elkartea bukatutzat eman zuten 1907an⁶⁴. Ordurako 29 kide ziren, eta arau malguagoak ezarri zituzten “*disponiendo de dichos lotes por actos inter vivos o mortis causa, con entera y absoluta libertad como lo harían con otros bienes completamente libres, individuales ó de la familia*”. Jada ez zen beharrezkoa Adunakoa izatea; testamentua egiteko askatasuna zegoen, baina oraindik ustiapen komunitarioaren arrastoak zeuden. Lurraldea bi zatitan banatu zen: mendebaldekoa txarazkoa, eta ekialdekoa, berriz, zuhaitz motzena; aldi berean, lehenengo 43 ataletan zatitu zen, eta bigarrena 42tan, batek balio bikoizta zuela. Atal horiek 30 kideren artean zatitu ziren, baina berdintasunik gabe, askatasun osoz. Egitura berri hori Batzar Orokorrekin eta presidentearekin instituzionalizatu zuten.

⁶⁴ Eskritura José López de Zubiría, Hemaniko notarioaren aurrean eman zen 1907ko uztailaren 18an.

Hala ere, gauzak ez omen ziren oso zuzen joan, eta 18 urte beranduago geratzen ziren 24 kideek bi hereneko gehiengoarekin erabaki zuten “*disolver la sociedad adjudicando los pastos de los lotes a los socios a quienes corresponda*”⁶⁵.

Dokumentu horrek erakusten digu nola aldatu ziren erlazio kontraktualak. Lealberros 1852 baino lehenago herri basoa zen. Gero, Adunako Udalak saldu eta gero, herriko zenbait kide akziodunen elkarte bihurtu zen, ustiapen komuna jarraitzen zuelarik. Ondoren, atal edo lote indibidualetan banatu zen, eta geroago, atal horiek ustiapenaren arabera zatitu ziren. Azkenean, atalak kideen artean banatu, eta jabego pribatu huts bihurtu ziren, Elkarte deseginez. Paraleloki, kideen gutxitze bat ikus daiteke: 50 (1852an), 30 (1907an) eta 20 (1920an), basoaren probetxuaren balioa galtzen ari zen seinale, dudarik gabe.


Nekazari guztiak ez ziren pribatizazio horretaz probestu, gutxi batzuk baizik. Oinetxe ideologiak zabaldu du euskal baserritarrak, jabeak, independenteak eta askeak zirelako ideia. Halere, Andoainen, Gipuzkoan bezala, baserritar gehienak maizterrak ziren, beraz, beren jabearen menpeko: errenta ordaindu egin behar zioten, eta berarekin adiskidetu egon, kaleratzea saihesteko. Jabegora heltzea ere gutxi aldatu zen mende batean. Egia da lur solteak zeudela eta baserritar asko horien jabeak zirela, baina lur horiek kalitate txarrekoak ziren (garadiak, otadiak, mendiak...), baserritik urrun zeuden, eta herri lur eta basoen salmentatik etorritako hondarrak ziren.

1832ko errolda batean 81 baserri agertzen dira, eta 118 etxebizitza (ez zeuden sartuak Sorabillakoak). Lur gosea ikaragarria omen zen, kasu askotan baserria zatitu egiten baitzen: etxebizitza batean, jabea bizi zen, eta bestean, berriz, maizterra. Guztira, maizterren portzentaia %81ekoa zen, eta jabeena, ordea, %19koa. Datu garbiak dira. Ez zegoen jabe handirik, eta, bat izan ezik, besteak 3, 2 edo 1 baserriren jabeak ziren. Jabe nagusiak hauek ziren :

- Jabe batek 6 baserri eta 8 etxebizitza zituen : Joaquin de Irizar y Moya (Bergaran bizi omen zen).
- 5 jabeak 3na baserri zituzten: Vega de Sella kondea (5 etxebizitzarekin), José de Berridi (4rekin, eta batean bera bizi zen, Arizmendin), Pedro José de Ibarrola (4rekin, eta bera Larramendin bizi zen), José M^a Leizaur (5 etxebizitza), eta Francisco Angel de Ichaso Asu (4rekin, eta bera Aranaztegin bizi zen)

⁶⁵ A.U.A., B.8., 238H/4. Dokumentua Mariano Permisán Pérez de Laborda, Villabonako notarioaren aurrean eman zen 1925eko maiatzaren 7an. Adunako 22 bizilagunek (19 gizon eta 3 emakume) eta Andoaingo bik parte hartu zuten. Hona hemen biak: Gaspar Elizondo Izaguirre merkataria eta Martín Artano Carrera nekazaria (bere aita Domingoren izenean).


- 8 jabeak 2na baserri zituzten: José Francisco de Beldarrain (2 etxebizitzarekin), Jabiera Ubillos (3rekin), Francisca Antonia Irurtia (2rekin, bera Agirren bizi zen), Jabiera Iparraguirrenen seme-alabak (3rekin), Juan Ignacio Labaca (3rekin), Maria Bautista Espona (3rekin, bera Saramuñon bizi zen), Pedro Manuel Ugartemendia (2rekin), eta Micaela Ignacio de Argote (3rekin).



Harrigarriena da, 1925ean, mende bat beranduago, 183 etxebizitzatik 133 maizter egotea (%73a) eta 50 jabe (%27a). Ia proportzio bera. Gainera oso estatistika zehatza da, mikelteek etxez etxe egindako inkesta baita.

1935eko datuek hobekuntza bat erakusten dute, baina ez dira osoak eta akatsak izan ditzakete. Horiek ematen dizkiguten zifrak hauek dira: %61 maizter, eta %39 jabe. Dokumentu horrek jabeak nor ziren ere erakusten digu. Lehen agertzen ziren abizen batzuk errepikatu egiten dira –Berridi, Irizar, Ichaso Asu–, eta beste batzuk berriak dira⁶⁶.

1972rako, Iñaki Linazasorok⁶⁷ familien datu hauek ematen zituen: 146 familia baserritar, 108 jabeak (%74a), eta 38 maizterrak (%26a). Beraz, 50 urtean proportzioak erabat aldatu ziren. Hala, Frankismoan izan zen, errentak aldaezinak geratzean, jabe askok ezer gutxi ematen zuten baserri batzuk saldu zituztenean. Beraz, maizter asko jabe bihurtu ziren.



⁶⁶ Ángela Berridik 8 etxebizitza zituen, eta Urnietan bizi zen; Irizarren oinordekoek 7, eta Bergaran bizi ziren; Pablo Barriolak 6, eta Donostian bizi zen; Ichaso Asuren oinordekoek 4; eta Dolores Aliri Echebestek 4, eta Agirre baserrian bizi zen.

⁶⁷ LINAZASORO, Iñaki: *Caseros de Guipúzcoa*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1974.

Errentamendu-kontratuak ahozkoak izaten ziren, eta oso gutxitan protokolizatzen ziren. Joera nagusiak hauek izango lirateke: monetarizatu egin ziren; haien iraupena moztu egin zen (9 urtetik 6 edo 4 urtera pasa zen kasu askotan; dena den, maizterrak erakusten zuen konfiantzaren araberakoak ziren: oso gazteei, esaterako, motzagoa jartzen zitzairen); eta gogortu egin ziren lur gosea zegoenean. Husten ari zirenean, ordea, errenta erakargaririk ez zegoen, baserri pobreak eta alden-duak birpopulatzeko. Noski, errentaren zenbatekoa baserrien ezaugarriek markatzen zuten, eta 1935ean, urteko 300 eta 1.250 pezetaren artean zegoen.

Egia esan, errenta ez zen sekula gehiegizkoa izan (kapitalaren %2ren eta 3ren artean ematen zuen), baina baserriaren errentagarritasuna txikia zenez, errenta zama handi bihur zitekeen. Gainera, segurtasun-falta handia ekartzen zuen, eta kaleratzeko beldurraren Damoklesen ezpata hortxe zegoen. XIX. mendean maizter izatea gogorra zen; diru likidorik ez zegoen, eta, derrigorrez gorde behar zen txekorren salmentaren dirua (ukitu gabe, kutxatilan), Gabonetan nagusiari errenta ordaintzeko. Baserria merkatura zabaldu zenean, badirudi errazagoa izan zela diru hori lortzea. Printzipioz, eta partzuergo zaharren arabera, baserriaren ekoizpenaren %50a zen errenta. Bestalde, partzuergotik errentara pasa zenean, dirudienez, ganaduak ez zuen garrantzi handirik; horren ondorioz, zati hori errentatik kanpo geratu zen, eta ia kasu gehienetan maizterren propietate bihurtu zen: maizterrentzat abantaila handia eta abeltzaintzarentzat bultzada ederra izan zen.

Maizter izatearen beste oztopo bat etxearen erosotasuna zen. Kontratuek ziotenez, jabeak baserriaren hobekuntzak onartu behar zituen. Horren ondorioz, errentak ere gora egin behar zuen, eta hori ekiditeko, ez ziren egiten adostutako hobekuntzak, eta maizterra bere kabuz arduratzen zen nola-halako konponketak egiteaz. Horrela, kaleko etxebizitzaren erosotasuna gora zihoan bitartean, baserriarena atzeratuta geratzen ari zen, eta konfortaren atzerapena gero eta handiagoa zen. Beste aurrerapen teknikoagoak ere (fruta arbolak sartu, basoa zaindu, hormak egin, hesiak jaso, ukuilua berri...) bertan behera geratzen ziren.

Hauxe zioen Sinforoso de Iburguren 1927an:

“ Varias son las causas del descenso de la población agrícola; una de las primeras es la avaricia de los propietarios que quieren que el capital invertido en la compra de la casa rural, o mejor dicho, que el capital que creen representa el caserío produzca el mismo interés que en otras empresas: de ahí las excesivas rentas impuestas a los inquilinos. Otra de las causas son las malas condiciones de vida en los caseríos: muchos no han tenido desde que fueron construidos, más reparación que algunos retoques del inquilino que ignora si el próximo día de san Martín (día señalado en la población rural para ocupar y desocupar las casas) residirá o no

en el caserío: se ven edificios tan destartados que sus propietarios no se aventurarían a pasar una noche, aunque les pagaran dos seguros de vida, por no ofrecer ninguna seguridad el edificio; pero el pobre casero vive un año y otro... toda su vida, allá donde le dejaron sus mayores, lleno de fe, encomendándose a la Providencia Divina cada día, pues las demandas de reparaciones dirigidas al propietario o al administrador no suelen ser atendidas, y cuando lo son, es a condición de que el inquilino contribuya en parte a los gastos y de que pague una renta mayor desde el año siguiente”⁶⁸.

Iburguren ez zen iraultzaile bat, Ezkioko erretorea baizik, eta bere herriko baserrien egoera horrela ikusi zuen.

Aurkitu ditugun Andoaingo errentamendu-kontratu guztiak desberdinak dira:

1. Buztaneta⁶⁹ baserria, 1848an, nahiko klausula gogorrekin eman zen errentan: 5 urteko iraupena (beti San Martindik hasita), eta errenta, berriz, konplexua, anitza, eta dena espezetan emanda (12 anega gari abuztuan; beste 12 anega arto Gabonetan; gariarekin pare bat oilasko “*con otra friolera que presta la casería, como huebos (sic), leche*”; bi kapoi artoarekin “*y cualquier friolera que preste la casa*”; “*gol de sagarrac*” klaseko sagarraren 3 saski; intxaurrak, gereziak eta gaztainak: fruitu bakoitzeko saski bana). Errentamendu horietan guztietan maizterrak ezin zuen ez zuhaitzetarik ezta adarretarik ere probestu, nagusiaren baimena ez bazuen. Nagusiak berarentzat sagasti bat gordetzen zuen, baina bertako belarra maizterrak aprobetxa zezakeen. Gainera, kontratu guztietan bezala, klausula bat zegoen, agintzen zuena laboreak zaintzeko eta paretak zein ubideak ondo gordetzeko; kasu honetan bereziena zaintzarena zen: “*para que no roben los malvados*”.
2. Idiazabal Handia⁷⁰ ere alokatu zen 1848an. Kontratua erabat desberdina da: bakarrik metalikoan (3 ontza eta erdi edo 1.120 erreal), Gabonetan ordaintzeko; bestea baino luzeagoa (9 urte klasikoak), baina kanporatze eranskin bat jartzen zuen: “*pasado el tiempo sin haberlo verificado (el pago de la renta) en todo ó en parte, ha de compelsela á su solución con costas, y aun*

⁶⁸ IBARGUREN, Sinforoso de: “Pueblo de Ezquioga”, *Anuario de Eusko-Folklore, Establecimientos humanos*, T.VII, 1927, 38.-39. or.

⁶⁹ Nagusia Antonio José de Orcaiztegui zen, andoaindarra, eta maizterra, berriz, Benito de Ormazabal, donostiarra. A.G.G.-G.A.O., PT 3608, BERGARA, 1848.

⁷⁰ Jabea Juan Bautista de Echebeste zen, eta maizterra José Ramón de Mutio, biak andoaindarrak. Bai hemen bai aurrekoan jabeak baserriar/jabe kategoria horretan sar genitzakeela ematen du, lur zati bat beraientzat gordetzen baitzuten. Gainera, kasu honetan ikusten da jabea jaiotako baserria zela Idiazabal Handia. Haren anaiak Martín Juan eta Luis Manuel de Echebeste ziren, eta ziurrenez, Ameriketara zeuden. Kasu honetan errenta-kontratu horien pertsonaia klasiko bat agertzen da: fidatzailea (kasu honetan José de Berri-di), kontratua bermatzen zuena. A.G.G.-G.A.O., PT 3608, BERGARA, 1848.

quitársele este arrendamiento". Gainera, betiko klausulen ondoan, jabeak erein-soro bat gordetzen zuen, eta beste klausula berezi bat zekarren: maizterrak gela bat eman behar zien jabearen bi anaiei, etortzen baziren "a casa nativa", beti jabearen kontura.

3. Ikutza Zaharra⁷¹ 1851n eman zen errentan. Kasu horretan errenta mistoa zen: metalikoan (41 peso Gabonetan) eta espeziean (10 anega gari abuztuan). Iraupena klasikoa zuen: 9 urte. Kasu honetan maizterrak aspaldikoa ematen du, 5.386 errealeko hobekuntzak eginak zituela baitio. Jabeak ezer ordaintzen ez zionez, hobekuntzek kontratuaren luzapenerako berme bat ziruditen, eta soilik kanporatze kasuan ordaindu beharko zion nagusiak kantitate hori. Ramón de Belaustegigoitiak⁷² erantzukizun eza leporatzen zien jabeek hobekuntzen kasuan.

4. 1879an Elizalde⁷³ errentan eman zen, 6 urtez eta errenta mistoa zuelarik: "cuatro onzas y siete duros" (355 pezeta), eta sagarra eta egurraren fruituak erdibana. Gainera, hamarren eklesiastikoaren apropiazioa ematen duen klausula zuen: "la decima parte de todos los frutos que recolecte anualmente". Maizterra kanpokoa (donostiarra berriro) eta ezkongabea zenez, arriskuaren klausula bat jartzen zitzaion: kontratua sinatzeko orduan, 2 ontza (160 pezeta) aurreratatu behar zituen.

5. 1881ean Eguskitzako bi etxebizitzak errentan eman ziren. Baserria II. Karlistadan errea izan zen, eta ordurako 6 urte zeramatzan erreta: pentsa deza-kegu zein baldintzatan bizi ziren bi familiak. Kontratuan jabeak eta maizterrek baserria jasotzeko lanak eta gastuak banatzen zituzten. Harrigarria da iraupena, benetan motza: 2 urte. Errenta mistoa zen: 55 pezeta (oso txikia, baserriaren egoeraren arabera⁷⁴), eta 14 anega gari, bi kapoi eta arkume bat (hori Berpizkunde Pazkoan ordaintzeko), maizter bakoitzeko.

⁷¹ Jabea Manuela Ignacia de Astarbe zen, eta maizterra Manuel Santa Cruz. Kontratuan zehazten ziren haren lurak: "con sus tierras llamadas Chapelgorri, Iru-luberri, Echeaurreco-sorora, Munteguieta, Acua-chiqui y Arcumesoro". A.G.G.-G.A.O., PT 3610, BERGARA, 1851.

⁷² Ramón de Belaustegigoitia baserriaren arazoari buruz hausnartu zuen teoriko nazionalista bat izan zen. Amurriokoa, izatez, eta goi ikasketak kosmopolitak zituela, errenten bidegabekeriak eta maizterrek nagusiarri egiten zioten hobekuntza ez ordainduaz arduratu zen. Erreformatzaile eta berritzaile bat izan zen arlo horretan, eta bere ideologia nazionalistak planteatutako baserri mistikatik alde egin zuen berak.

⁷³ Jabea Santiago Arrese zen, baserritarra eta andoaindarra, eta maizterra, berriz, José Antonio Tolarechipia, ezkongabea eta Zubietako baserritarra. Kontratu honetan hobekuntzei buruzko klausula klasiko bat jartzen da: hobekuntzak jabeak onartuak izan behar ziren, eta bakarrik kasu horretan ordainduko zizkion jabeak. Baloratzeko bi peritu jartzen ziren: bata nagusiak jarritakoa, eta maizterrek bestea. Desadostasuna bazegoen, bi peritu horiek beste hirugarren bat aukeratuko zuten, eta hark esandakoa bete. A.G.G.-G.A.O., PT 3428, LANZ, 1879.

⁷⁴ Errenta mistoa zenean, dirua baserriaren eraikuntzari zegokion, kasu gehienetan, eta produktuak, berriz, soro, lur eta basoei. Kasu honetan jabea Bartolomé Lavaca zen, nekazari erretildar ezkongabea, eta maizterrak Antonio Bengoechea eta José Martín Atorrasagasti ziren. A.G.G.-G.A.O., PT 3428, LANZ 1881.

Bost kontratu eta bostak desberdinak. Horrek adierazten digu konplexua zela, eta aldatu egiten zela, aldagai asko tarteko: errentaren zenbatekoa, mota, iraupena, hobekuntzak, bermeak, salbuespeneko klausulak...

Kontratu batzuek maiztergoa baino gehiago morrontza ematen dute: Asteasukoa izan arren, hona ekarri nahi dugu. Egia esan, ez zen ohikoa, baina hor dago. Ia XX. mendekoa da, 1898koa. Jabea Damiana Muguruza dugu, 71 urtekoa, alarguna, eta "arrendamiento de servicios" motako kontratu bat ematen dio bikote bati: Ignacio Antonio Lizaso, 45 urtekoa, eta haren emazte Josefa Antonia Aburuza, 41 urtekoa. Jabeak ustiatzen du baserria "con la cooperación, en clase de criados" senar-emazteekin. Bikotea "se obliga a cultivar la finca de Lizaso y á prestar todos los servicios que Doña Damiana Muguruza necesite y se lo ordene, durante todos los días de esta". Damianak emango zizkien bai bikoteari bai haien seme-alabei arropa eta oinetakoak "sin que estos puedan reclamar de ella otro salario ni retribución alguna". Dena (ganadua, altzariak, etxeko gauzak...) "son de la propiedad exclusiva de Doña Damiana"⁷⁵. Errusiako mujikek inbidia gutxi izango zioten horrelako maiztergo bati.

Eta morroiekin gaudenez gero, horiek Andoainen utzitako aztarnak aipatuko ditut. Morroiak pobreetatik pobreenak ziren. Garaiko literaturak dio ongi tratatuak zirela, etxekoak balira bezala, mahai beretik jaten zutela, eta abar. Ez dut bilatu garai horretako kontraturik, horiek ere ahozkoak zirelako. Baserri fuertean egoten ziren, batik bat; beste kasu batzuetan, familia oso urria geratzen zen horietan, beharrezkoa zen kanpoko laguntza, askotan familiaren urrutiko norbait. 1925ean 30 morroi zeuden 19 baserrian, hau da, gutxi gorabehera baserrien %10ek zuten morroia. Bi etxe nabarmentzen ziren: Azelaingo jauregia, 5ekin, eta Donatxele Handia, 3ekin.

Instituto para la Reforma Agraria erakundearentzat, 1935eko erroldan 21 morroi agertzen ziren: 30 urte baino gazteagoak 16; 30 eta 40 urte artekoak 3; eta 50 urtekoak edo zaharragoak 2 bakarrik. Batez besteko adina 27,4 urtekoa zen, oso altua, agian umeak ezkutatu edo kontuan hartu ez zirelako: gaixo horiek, kontabilizatzeko eskubiderik ere ez zuten. 1906ko datu batzuek diote 250-350 pezeta bitartean zegoela gizonen urteko soldata, eta umeen kasuan 80-150 pezeta artean⁷⁶. Denborarekin haien soldatak duinago bihurtu ziren. Hauze dio 1920ko txosten batek: "Las soldadas que se pagan a los criados, además de la manutención oscilan entre 500 y 1.000 pesetas anuales, según la edad de los mismos e importancia de los caseríos". 1935eko izenak ezagutzen ditugu: denak ezkongabeak, bat izan ezik (alarguna, seme-alabarik gabe).

⁷⁵ A.G.G.-G.A.O., PT 3775, LANZ, 1898. Horrelako jopu egoera, ia XX. mendean, ez sinistekoa da. Baliteke familia horri baserria uzteko promesa bat egotea, baina oso arraroa da, zeren eta kontratua egin zenean, orduan zen garaia posible zen klausula hori jartzeko.

⁷⁶ Iturri honek dio "además del salario se les suministra ropa que consta a los criados de dos pantalones, dos camisas, cuatro pares de alpargatas". A.U.A., B.8., 29H/5.

Imajinario apur batekin honela ikus ditzakegu: mahaiaren izkinean, isilik; sukaldoko bazter batean umeren bat zaintzen; akaso, igande arratsaldeetan etxerako bueltan, pixka bat mozkortuta, kalean bere sos gutxiekin ordaindutako basoerdi gehitxo edan eta gero; irainduak eta tristeak... Balizko errealak. Mundu zahar bat amiltzen ari zen azken lekukoak⁷⁷.

2.1.3. Espazio periurbanoak.

Agian kontzeptu hori berri samarra da, nekazaritza, industria eta periferiako bizileku elementuak elkarrekin nola bizi ziren adierazteko.

Garai hartan, eta industria jaio berriagatik edo komunikazioengatik, zenbait etxe sortu ziren, baina, aldi berean, lehengo kale-baserriak zanpatuak eta inguratuak izan ziren. Horrela agertu ziren espazio mistoak, eta bertan tartekatzen ziren: fabrikak; etxe berriak, soro koskor eta ganadu gutxirekin; trenbideko kasetak edo geltokia, askotan baratze txiki batekin eta txerriren batzuekin; edo itolarrian gera-tu ziren baserri zaharrak, eraikinez, errepidez eta trenbideaz inguratuta.

Baserri bat zer den definitzea beti izan da zaila. Gero eta zailago bihurtu zen garai hartan, herriak bere kasko historikoa gainditu zuenean, eta fabrikak eta etxeak sortu zirenean, nekazaritza eremu zaharra inbadituz.

Hemen bi kasu nabarmendu nahi ditut, biak herriaren eta baserriaren arteko eremu zehaztugabe horretan zeudelarik: hiriko kolonizazioa Txitibar baserriaren lurretan, eta Arrantzuko Bentarena.

2.1.3.1. Txitibar eta hango lurrak.

XIX. mendearen erdialdeko urteak eferbeszenteak izan ziren gaurko Bastero eta Karrika bitarteko espazioarentzat. La Algodonera Guipuzcoan, Norteko trenbideak, Leitzaran gaineko zubi berriak, karretera berriak, eta Kaleberriaren egiturak (izena baino zaharragoa dena) Oriaren ibaiertz hori eraldatu zuten. Trenbidearen eta ibaiaren arteko korridore luze horretan zenbait etxe agertzen zaizkigu (baserriaren eta kaleko etxearen artean egongo zirenak): *“tierras de pan llevar”* (zerealak ereiten zirenak), baratzeak, ezpondak, otadiren bat.... Halaber, bazituzten behiak, idiak, txekorrak, txerriak, oiloak.... Baserria herrian, eta

⁷⁷ Oinean bada ere, haien izenak jasotzea merezi du. 1935eko Andoaingo zeuden morroiak hauek ziren: Ignacio Aizpuru Otegui, José M^a Alcain Inchauspe, Hilario Aramburu Galdos, Claudio Arce Larrañaga, Pedro José Aya Garro, Narciso Ayestaran Requillaga, Agustín Azpillaga Atorrasagasti, Vicente Beloqui Aguirre, Antonio Celaya Goicoechea, Diego Cinchurreta Munita, Simón Echeverría Aldalur, Martín Echeverría Ormazabal, José Echeverría Usandizaga, José Elizondo Yeregui, Marcelino Garmendia Loinaz, Fernando Mugica Urrutia, Marcial Otaño Muñoz, Baldomero Otegui Aguilalalde, Miguel Uranga Jauregui, Martín Uranga Jauregui, eta Santiago Urrutia Lasa. A.U.A., B.8., 238H/3.

herria baserrian; baserritarra fabrikan, eta *jornaleroa* baserrian: industriaren, herriaren eta baserriaren arteko osmosi horren seinale dira. Banatze lerroak ez-jarraitu eta difuminatu bihurtzen dira.

Lurralde zabal horien jabea, hau da, garai batean Txitibar baserriarenak izandakoena, San Millango markesa⁷⁸ zen. Horrek saldu zituen La Algodonera eta trenbidea egiteko lursailak. *Boom* hartan, ematen du zenbait errentarik probetxua atera zutela, beren etxeak markesaren lurretan jaso baitziren, baina ez omen zegoen arautua jabegoa orain dagoen bezala, gaur egun desagertutako zentsu enfiteutikoak⁷⁹ agertzen baitira. Honela dio eskriturak:

“los antepasados (...) han venido disfrutando desde tiempos remotos parte de los pertenecidos de Chitivar y pagando sus correspondientes rentas ó canones anuales, pero ignorándose si lo hacían en concepto de arrendatarios ó enfiteutas por no existir título ni documento alguno que lo aclarase, motivo por el que siempre tenían que hacer algún edificio, cerramiento de parcelas ú otra cualesquiera clase de obra acudían al propietario ó su administrador solicitando la competente licencia ó permiso para su ejecución (...) se les propuso por parte del Señor Marques que siempre que entrasen en la idea de pagar en adelante una renta ó canon algo mayor al que hasta ahora han venido satisfaciendo se les otorgaría la oportuna escritura de enfiteusis de sus respectivos terrenos”.

Zentsu enfiteutikoa errentamendu mota berezi bat zen, eta errenta txiki bat ordaintzen zen, kanon izenekoa. Errentariak sailaren jabari erabilgarria zuen, hau da, alokairu perpetua zen.

Vicente Unanue arkitektoak egin zituen mugaketak; berak baloratu zituen sailak, eta bakoitzari bere kanona jarri zion, sailaren balioaren %3tik 6ra ziholarik.

Txitibar etxe-amaren sabeletik hurrengo etxe eta propietate arrosarioa sortu zen:

1. Alfaro etxea, orduan jasotakoa, eta batzuetan baserri bezala agertzen dena: 3.000 m² zituen, eta bere ganadua.
2. Barrida etxea, lehengoa baino txikixeagoa, baina antzekoa.

⁷⁸ San Millango eta Villalegreko markesa Gipuzkoako aristokrata handienetako bat zen. Okendotarren oinordekoak izanik, Gipuzkoan baserri pila bat zuten, baita elizak, kaparak, jauregiak, eta errotak ere. Beste lurralde askotan ziztuzten jabetzak, batez ere, Granada aldean, eta markesa, normalean, han bizi zen. Momentu hartan markesa Luciano de Porcel y Valdivia zen, eta administradore pila bat zuen: Tolosaldekoa José M^a Furundarena Sos zen, Tolosako notarioa. Narrazio hau oinarritzen den dokumentua, Furundarena eta 15 pertsonaren arteko kontratua da. A.U.A., B.8., 236H/14. *Condiciones y precio de cesión de terrenos en censo enfiteutico por el Marqués de San Millán á varios vecinos de esta villa el año 1867.*

⁷⁹ 2010an oraindik jakin izan dugu zentsu enfiteutikoek Katalunian dirautela, eta bertako aristokratek han egindako zenbait salerosketei etekina ateratzen diotela, garai bateko eskubide hauek direlarik.

3. Aldakonea etxea, hori ere sororen batekin.
4. Miranda, aurreko hiruen antzekoa.
5. Mandazitegi, 2.000 m²-ko sailak zituen, baina ez da sekula baserri bat bezala ageri.
6. Zabalaenea, lurrik gabe.
7. Larrantegi Berria, hau ere lurrik gabe.
8. Larrantegi Zaharra, 4.000 m²-rekin.
9. Portuetxe, lurrik gabe.
10. Anakonea edo Aldakonea, "pan llevar", 4.500 m²-rekin.
11. Mariandi (Zumea 8), oso lur gutxirekin.
12. Mariandi Berria (Kaleberria 12), lur gutxi zuela.
13. Garaburu, 2.500 m²-rekin.
14. Aurreko Etxe (Kaleberria 9), sailik gabe.
- 15 eta 16. Onandinearen bi etxeak, Pedro Manuel Ichaso Asu, Urnietako notarioak jasoak. Horiek 6.000 m²-ko soroak zituzten, baina urrutia-go, Goiburu behean.
17. Aldakaitz baserria, Goiburukoa, 6.000 m²-rekin.

Etxe horietatik kanpo, 7 ha-ko lursail anitz markatu ziren, era guztietakoak.

Bereizketa hori egin eta gero, Txitibarren jabari erabilgarria markesarentzat geratzen zen. Bi etxebizitza ziren, eta han bizi zirenak maizter arruntak ziren.

Zabal ditzagun atea eta langa. Etxearen oina 508 m²-koa zen, eta oso lursail desberdinak zituen: 375 areako lurzoru bat, ezpondaren batzuekin (Barrida, Aldakonea, Miranda, Algodonera, errepidea eta Oriaren artean zeuden: lursail ederrak eta lauak, benetan); 170 areako lurralde anitzak (baratzea, soroak, sagastiak, belazea, gaztainadia: Algodonera, trenbidea eta Aldakonearen artean); 700 areako beste lur desberdinak; eta 170 area (Garadi eta harkaitza) Idoiazabalena. Orokorrean ia 15 ha-ko lursailak, 152.392,5 errealeko balioarekin.

Mende bukaerako eskriturek adierazten dute markesak Txitibarreko bi etxebizitzak salduak zituela.

Txitibarren ondorengoa emankorra izan zen: 17 etxe/baserri, 2 baserri, fabrika handi bat, trenbidea eta karretera.

2.1.3.2. Baroja, Zalacain, eta Santa Cruz apaiza, Arrantzuko Bentan.

Ziurtasun nahikoarekin esan dezakegu Barojak *Zalacain el aventurero* edo *Zalacain abenturazalea* (euskarazko itzulpenean) nobelako IV, V eta VI. kapituluak Arrantzuko Bentaren inguruan kokatzen dituela. *Don Pío*k kontatzen du Martín eta haren lagun Bautista nola heldu ziren karlista partida batekin "y al anochecer llegaron a una venta próxima a Andoain". Bentan Santa Cruz apaiza zegoen bere mendimutilekin. Handik bi egunera "acordaron detener aquella mañana la diligencia que iba desde San Sebastián a Tolosa". Kontatzen du Arrantzuko zelatarako toki egokia zela, eta nola bide ertzean espioiak jartzen ziren, gero Bentara itzultzeko.

Zalantzarik gabe, Baroja, beti bere izaera erromantikoaz blai, Buruntzaren eta Oriaren artean dagoen haizpitartea abenturarako leku ezin egokia zela ikusi zuen. Hala da, izan ere. Arrantzuko Benta lepo horren ahoan zegoen, eta hortik igarotzen zen Tolosa-Donostia karretera eta hango diligentzia. Barojak Arrantzuko aprobetxatzen du gerrillari krudel famatua deskribatzeko, eta bere lumatik partidako beste kideak ateratzen dira: ero bat bertsopaperak saltzen, eta heroina bat ere bai, Briones alaba, eta haren ama. Marx anaien kamarotean bezala, Barojaren pertsonaiak eszenara sartu eta irten ari dira. Zalacainek (andoaindar abizena, peto-petoa) diligentziari eraso eta gero, damak liberatzen ditu, karlistekin tiroketa bat izan ondoren, bera zauritu zutelarik. Gertaera nobelistiko horren aurreko gauetan, Bentan, Bilintxen *Juana Bixenta Olaberena bertsoak* eta beste euskal kanta batzuk abestu ziren, eta zenbait pertsonaiak beren istorioak kontatu zituzten: Baroja purua Arrantzun.

Benta horiek, errotak bezala, garai hartako eraikin singular eta poetikoak dira. Arrantzuko Benta Tolosa-Donostia errepide berriaren inguruan jasotako eraikuntza bat zen, baina benta izateaz gain, bazituen baserriaren zantzuak ere.

1895eko eskriturek kontatzen zuten Basilisa Urcola Mendiak (63 urteko alarguna) bere alaba M^a Ángeles Gorrochategui Urcolari (26 urteko ezkongabea) egindako donazioa. Horren bitartez, etxearen ondasunak ematen dizkio, bi here-neko hobekuntza bezala, betiko baldintzarekin: "hacer vida común en una casa, mesa y compañía, interviniendo por igual en el gobierno, regimen y direccion de familia y de los bienes dotados"⁸⁰. Dokumentu horren bidez, Arrantzuko Bentara hurbil gintezke. Horren garairik oparoenak pasata zeuden.

Sailak aitak erosi zituen, Javier Gorrochateguik (1881ean hil zen), eta bertan jasozuen "de nueva planta el edificio Venta de Arranzu".

⁸⁰ A.G.G.-G.A.O., PT 3744, LANZ, 1895. Alabak bere anaia José Ramon hartu behar zuen "si su situación económica ó el encontrarse enfermo le obligasen á refugirse en ellas". Gainera, familia-sozietatea puskatzeko aukera aurreikusten zuen: alabak aitaren legitima kobratuko zuen (2.249,10 pezeta) eta etxetik alde egingo zuen.

Etxearen oinak 2 area zituen. Beheko solairuan, sukaldea, denda, ataria, ukui-lua eta sagardo kupelen bodega zeuden. Pisu printzipalean gelak zeuden, eta beste bi solairu zituen ganbararako. Etxe altua zen. Haren inguruan karretera, gurdibide bat, eta baratzea zeuden.

Hala ere, bazituen nekazaritza sailak ere: baratze oso handi bat, ia 1.000 m²-koa, sagasti gazte bat, 1.048 m²-koa, Aldapeta izena zuena; bi estalgune; beste sagasti handi bat, 8.580 m²-koa; eta 874 m²-ko soro txiki bat. Guztira, 13.000 bat m², eta benta bat zenez: baratze eta sagasti handiak eta erein-soro txikia.

Dokumentuak, halaber, kontatzen digu zein nekazaritza-lanabes zeuden: lauhortza, bostortza, eskuarea, bi gurdi zahar, bi aitzur eta lera bat. Ez zegoen laiarik ezta golderik ere. Beraz, ez zuten garirik egiten; eta soroan artoa egingo zuten. Ganadua ere bazuten: 2 behi (gurdia, lera, lauhortza eta bostortza mugitze-ko), 2 txekor, eta 2 txerrama, batek 5 txerritxo zituela.

Bodegan 3 upel handi (51 karga⁸¹ sagardo gordetzeko), beste bat txikiagoa (20 kargarako) “*con averias*”, eta 4 barrika.

Barruko altzariak ere ez ziren luxuzkoak: pinuzko 7 ohe eta gerezizko 2, komoda bat “*corriente*”, eta beste bat gerezizkoa; 2 mesanotxe, 2 armairu, 4 baul “*apolillados*” eta “*un baul mundo*”; pipiak jotatako mahaia, beste bat handia, beste bat borobila, eta pinuzko beste 2 mahai; 18 aulki “*viejas*”. Bi emakumek eramaten zituzten (bata nahiko zaharra) benta eta erdi-baserri bateko altzari zaharkituak. Nahiko lan alaba gaztearentzat. Erlojuak oraindik ematen zion halako dotorezia Bentako sukaldeari.

Arropa eta ontziteria ere ez ziren jauregizkoak: 48 izara, 24 almoada, 11 koltxoi, 9 lastaira, 9 ohe-estalki, 12 toaila, horrenbeste mahai-zapi, 24 aho-zapi, ispilu bat, 24 plater, 12 erretilu, 4 pertz, eta 24 mahai-tresna “*viejos*”.

Ez zen *spa* bat, baina dozena bat pertsonari ostatu emateko gauza bazen. Balio osoa 11.245,51 pezeta zen⁸².

Baroja ere ez da sartzen deskripzio zehatzetan. Ez zegoen objekturik. Santa Cruz apaiza zegoen gelari buruz hauxe dio: “*un cuarto, de cuyo techo colgaban mazorcas de maíz, y una mesa de pino, a la cual estaban sentados dos hombres*”, apaiza eta Egoscue, haren bizkartzaina. Beste eszenak sukaldean dira: “*El posa-*

⁸¹ Karga batek 125 litro inguru sagardo zituen.

⁸² Gauza horiek guztiak baloratzeko zenbait pertsona behar ziren: lanabesak eta ganaduak, Eugenio Beloqui eta Félix Arregui; altzariak, José Joaquín Esnal; arropak eta ontziteria, Josefa Ignacia Chinchurreta eta M^a Micaela Elustondo; eta ondasun inbiliarioak, José Ugaldé.

dero trajo la cena y una porción de botellas de vino y de sidra”. Bitartean, gerrillariak, Bautista eta Martín Zalacain, abesten ari ziren, eta Manuel Santa Cruz goian zegoen, gelan ezin lo harturik. Isildu beharko. Gero “*cada cual fue a acostarse donde pudo*”. Geroago, Cacochipiren istorioa kontatzen du: Tolosako gazte bat “*que tomó el camino de Anoeta, y pasó Anoeta y luego Irura, y cruzó Villabona, y fue andando hasta que se topó con la partida del Cura*”. Barojaren istorioak.

2.1.4. Lan asko eta kapital gutxi.

Euskal baserria, eskala-ekonomiaren arabera, oso ustiapen txiki bezala hartu daiteke. Garaiko testu historikoak eta teknikoak ez dira batere zuzenak nekazariarekin, eta hainbat gauza izatea leporatzen zaio: ohikoa, tradizionala, indibidualista, aurrerapenaren traba, tekniketari atzerakoia, eta abar. Hala ere, ezinezkoa zen gehiago modernizatzea, zegoen oinarri ekonomikoarekin. Ezin zen lurrunezko makinari sartu baserri txiki eta eskas horietan. Katastrofea, erokeria zatekeen. Baserria lege ekonomikoari eta errentagarritasunari jarraituz joan zen modernizatzen, hau da, ahal zen moduan, berarentzat egokia zen teknologia onartuz, baina ez edozein asmakizun aplikatuz. Hori nekazaritza ustiapen kapitalista handientzat bakarrik zen. Gipuzkoan ez zegoen halakorik. Horregatik, bigundu eta egokitu egin behar da betiko diskurtso *progresista* hori: industria aurrerakoia da, eta nekazaritza, berriz, atzerakoia, industrializazioaren oztopo, botila-lepo.

Goikoa esan eta gero, egia da nekazaritza ustiapena lan faktorean oinarritu zela gehiago, berrikuntza teknologikoan eta kapitalean baino. Dena den, lanabes modernoak, ongari artifizialak, edo bazka-landareak, baserriaren kapital-inbertsioaren berri eman diezagukete.



Udazkeneko lanak Sorabillan. Artakinezko paisaian, golde zaharrerkin lurra prestatzen, hurrengo nekazaritza urteari hasiera emateko. Atzealdean, Ballestagin: Matxinea eta Lakatxe (1962an erre). Iturria: A.U.A., F.5. 1/1.

Lanabesek lehengoak izaten jarraitu zuten. Lehen ikusi dugu zer zegoen Arrantzuko Bentan. Zabal dezagun orain Sorabillako Bazkardo⁸³ baserriaren mandioko atea, ikusteko zer zegoen barruan 1896an: errepideko gurdi bat, mendi gurdi bat (lera), 2 gurdi txiki, 2 bostortz, 5 aitzur, 2 lauhortz, 3 pala, 1 zerra, 2 palanka, laia pare bat, 2 uztarri, 1 sega, 2 igitai, 3 aizkora, 2 saski, 8 kupel zahar eta 1 kriseilu. Dena 782 pezetan baloratua: ez zen makala garai haietarako!

XX. mendean bi tresnak hobetu zuten lana: *brabant* goldea (bi belarriduna eta birakaria), eta karramarroa edo kanadar area. Bi tresna horiek ordeztu zituzten, neurri batean, laiak, lauhortza, bostortza eta area. Aldaketa horiek Andoainen noiz gertatu ziren, horren berri ez daukagu. Ziurrenez, beste herrietan bezala, XX. mendeko bigarren eta hirugarren hamarkadetan. Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Lan Publikoetako Ministerioentzat 1906an egindako inkestan datu hauek jarzen dira: 100 golde erromatar⁸⁴, 100 golde belarridun birakari, eta 50 area; beste



Aldaketak teknologian: Brabant goldea. Andrea itulan, gizona goldearen ildoan, behiak (eta ez idiak) lanean, eta etxejojaun zaharra demandan.
Iturria: A.U.A., F.5.1/3.

⁸³ A.G.G.-G.A.O., PT 3753, LANZ, 1896. Normalean eskriturretan ez ziren zehazten lanabesak; alderantziz, denak batera baloratzen ziren. Kasu honetan, eta Eusebio Zatarainen heriotzaren ondoren, dena inbentariatu zen, gero saltzeko. Benetan arraroa da ez agertzea golderik edo arearik. Eusebio Zatarain, nire laguna den Adela Poch Zatarainen aurrekoa zen. Voluntarios de la Libertad-en barruan ibili zen II. Karlistadan, Zataraindar guztiak bezala, baina ez zuen suerte handirik izan, eta 42 urterekin hil zen. Haren heriotzak, uzten zituen andrearen eta ume txikien egoerak, eta zeuzkan zorrek, dena saltzera bultzatu zuten alarguna.

⁸⁴ Golde erromatar horiek ez dira gehiagi agertzen, baina bazeuden. Gure alderdian lau angeluko ohea zuen goldea erabiltzen zen, Aitken senar-emazteek eta Caro Barojak dioten bezala. Belarria zuen golde txikitxo bat ere erabiltzen zen: Jaen goldea izenekoa.

zehaztasunik gabe. 1928ko beste estatistika batean esaten da –hori Nekazaritza Zerbitzurako– hauek zeudela: 175 golde erromatar, 174 area, eta 173 golde belarridun⁸⁵. 1935ean baserri gehienetan agertzen dira goldea, area eta kultibadorea, baina ez dute ezer balio. Nolabait bete behar ziren estatistika gogaikarri haiek!

Ganaduarentzako elikadurarako biltegi bereziak zeuden. Horrela, 1918ko datuen arabera, badakigu, lastoa, pentsua eta zahia saltzen zirela⁸⁶. 1912ko datuek esaten digute lasto produkzioa 412 qm-koa zela, baina inportazioa bost aldiz handiagoa zela (1.550 qm), eta Nafarroatik eta Gaztelatik ekartzen zela.

XIX. mendean guanoa erabiltzen hasi zen bezala, XX. mendean hasieratik ongarri artifizial edo kimikoak erabiltzen hasi ziren. Andoainen ez zegoen ongarri horiek saltzen zituen almazenerik –mende hasieran, behintzat–, eta oraindik gutxi erabiltzen ziren. Diputazioak Fraisorotik saldu zituen ongarri horiek 1903an, eta 10 nekazariri bakarrik banatu zitzaizkien; eta hurrengo urtean 7ri⁸⁷. 1906ko datuek diote Bartzelonatik ekartzen zirela ongarriak, eta urte horretan 100 qm kontsumitu zirela. Hala ere, 1925eko datuek beste profil modernoago bat ematen digute: 35.873 kg-ko kontsumoa eman zen (hau da, 20 urte baino gutxiagoan kontsumoa 3,5tik biderkatua izan zen); eta 183 baserrietatik 123tan erabiltzen ziren ongarri horiek (hau da, %67an, bi herenetan). Jauzi kuantitatiboa eta kualitatiboa. Ez dakigu urte horretan zein ongarri mota erabiltzen ziren, baina iturri orokorrageetatik dakigu ongarri nagusiak hauek zirela: superfosfatoak (hauts zuria), Thomas eskorriak (burdin hautsa), sosako nitratoa (gatz berria), eta kainita.

Belardi artifizialak edo zuhain-landareak dira kapitalizazioaren beste parametro bat. Espezie nagusiak hauek dira: ailorbea, txirta, pagotxa, eta batez ere, alpapa. Alpaparen kasuan bakarrik ditugu datu esanguratsuak. 1925ean 999 alpapa gurdi bildu ziren (eta konparatzeko: 1.543 arbi eta 1.624 belar natural); beraz, datu interresgarria da: betiko zuhainen parean zegoen, eta baserrien erdiek alpapa belazeak zituzten.

⁸⁵ Sinesgarritasun eza da estatistikaren arazoa. Edozein modutan egiten ziren, laukitxoak betetzeko, askotan. Gogo faltagatik, edo askotan, nahita, probintziaren aberastasuna ez erakusteko, gero Kontzertuaren luzapenean pobrezia erakusteko. Estatistikak ez dira batera fidagarriak eta ikertzaileari amorrua besterik ez diote ematen. Kasu honetan, ikusten da nola egin zuten: baserri bakoitzari lanabes bana aplikatuz, eta zenbaki bera ez errepikatzeagatik, banan-banan gutxitzen dira. Fidatzeko modukoak!

⁸⁶ Benito Gaztañagak saltzen zuen lastoa; pentsua José Cruz Artolaren alargunak saltzen zuen; eta zahia, berriz, Maximino Lasartek. AUA, A.11., 240H/20.

⁸⁷ Superfosfatoa eta sosako nitratoa ziren. 1903an 1.900 kg superfosfato eta 640 kg nitrato banatu zitzaizkien hauei: Balbino Atorrasagasti, Francisco Iguategui, Manuel Carrera, Prudencio Santa Cruz, José M^a Ormazabal, Martín José Otaño, Juan Bautista Sorondo, José Cipitria, José Cruz Echeveste eta José Francisco Iturrioz. 1904an 900 kg superfosfato eta 300 kg nitrato banatu zitzaizkien hauei: Domingo Lete, José Cipitria, Matías Arce, Juan Bautista Atorrasagasti, Martín Amantegui, Leandro Eguibar eta Juan Bautista Ancetari.

2.2. Basetxea.

Baserriak tradizionalki lau zati edo alderdi zituen: etxea eta ondoko eraikinak; lursailak; ganadua; eta sepultura. Hala ere, baserria bere zatien batuketa baino zerbait gehiago zen. Garrantzi handiko erakunde ekonomiko, sozial eta juridikoa zen. Atal potolo horiek ikusten joango gara lanean zehar.

Baserriaren eraikina –etxea– sendoa izateagatik nabarmentzen zen. Baserri-etxeak ere ez dira berdinak izan mendeetan zehar: historikoak dira, denboraren arabera aldatu dira, eta ez dira sekula esentzia mugaezina izan. Etxe horien goren maila arku ederrez osatutako ataria zuten baserriak ziren. Horiek Probintziaren hego-mendebaldean ugaritu ziren, eta Andoainen ba omen zegoen aleren bat, gaur egun desagertua. Hauxe dio Alberto Santanak haren eraikuntzari buruz:

“Eraikuntzaren eta diseinu arkitektonikoaren kalitateari dagokionez, landutako harrizko arkuekin egindako ezkaratzdun baserriak, Gipuzkoako baserriak historian ezagutu duen bilakaera punturik handienez dauka. Horren tinkotasunak, bizigarritasuneko baldintzak eta itxura apainak, bere tamainako oso lehiakide gutxi dauzka Europako nekazaritzako arkitekturaren panoraman”⁸⁸.

Gaur egun ditugun *betiko* baserriak nahiko modernoak dira: oso baserri gutxi dute Gipuzkoan lau mende baino gehiago. Eraikinak aldatzen joan dira, beharren, bitartekoen eta moda artistikoen arabera. Dependentsia desberdinak haztearekin batera baserria handitzen joan zen, baina XVIII. mendetik aurrera haren eraikuntzaren kalitatea gutxitzen joan zen: baserriak funtzionalago bihurtu ziren, baina interes artistikoa galtzen joan zen. Lehengo etxe zaharrak ere aldatzen joan ziren, eranskinak bereganatzen, eta, askotan, gaur egun, ezin daiteke sumatu hasierako jatorria.

Etxearen orientazio nagusia hegoaldera edo ekialdera begira dago kasu gehienetan. Oina errektangularra du, eta teilatuak bi isurialde ditu, 120 graduko angelua eratuz. Kasu batzuetan, etxearen atzealdetik beste hirugarren isurialde batek errematatzen zuen teilatua. Lau isurialdeko teilatuak arraroak dira, batik bat, Beterrin, eta normalean aurretik zegoen dorretxea edo jauregia erakusten dute. Andoainen horren lekuko dugu Isturitzagaren kasua, edo desagertutako Bazkardo edo Azelain jauregia.

Barandiaranek baserriak haien antzinatasunagatik eta morfologiagatik bereizten zituen. Hiru motatan banatzen ditu: Zubiaurre (beheko solairuak eta ganbaraz osatua; ganbarak oholez itxitako aurrealdeak eta alboak agertzen zituen kanporantz); Akotain (beheko solairua, lehen pisua eta ganbara; goiko aurrealdeak

⁸⁸ SANTANA, Alberto: *Baserria*, Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1993, 60. or.

manposteria, adreilu eta egurrezko egitura dauka); eta Perune (Akotainen antzekoa, baina karez eta areaz luzitua)⁸⁹. Ez da harritzekoa Andoaingo baserri gehienak modernoak izatea, Perune motakoak: batzuk XIX. mendean eraikitakoak dira, eta beste batzuk, berriz, 1837ko sutearen ondoren berreraikiak edo konponduak. Ikusi dugu nola Eguskitza ere 1875ean erre zen, eta nola bi maizterrek eta jabeak konpondu zuten. Gainera, nahiko normala zen, eta da, baserriak erretzea, haien jarduera eta haien egitura direla medio. Francisco de Etxeberriak⁹⁰ ikertu zituen 1925ean Goiburu eta Karrikako baserriak (Lehenengo Karlistadaren sutea pairatu ez zutenak), eta guztiak Perune itxurakoak zirela zioen, salbu Sanixtoan (edo San Esteban), hori Akotain motakoa baitzen.

Horrela, bada, baserri gehienak XIX. mendean egindakoak edo berritutakoak dira. Beheko solairuan sarrera (Etxeberriak “eskaatza” deitzen dio), sukaldea, eskaileraren kaxa, ukuilua, eta simaurtegia zeuden. Lehenengo solairuan gelak edo “kuartuak” (salbuespenez bezala sukaldea ere egon daiteke), gela nagusia edo “sala” (balain bazegoen), bihitegia (garia edo artoa gordetzeko), eta mandioa (lanabesak, orbela, gaztainak, lastoa eta abar edukitzeko). Atzealdetik irekitako mandioak (jasoak, aldapa edo zubitxo baten bitartez) XIX. mendeko berrikuntza zen, gordetze lana errazagoa izateko. Lehenengo pisu horren gainean ere, batzuetan, ganbara edo sabai bat jasotzen zen, belar ondua edo lastoa gordetzeko. XIX. mendean ere, ukuilua lehenengo pisuarekin komunikatzen hasi zen, tranpa edo ataka baten bidez.

Baserriaren beste ezaugarri tradizional bat zen dependentsia guztiak teilatu baten azpian egotea. Beharren arabera, gehigarriak egiten ziren alboetara, asimetriak edo simetria berriak sortuz (bi alboetara egiten bazen)⁹¹.

Zimenduak harkaitzaren gainean egiten ziren, eta Etxeberriaren arabera harri-materialak hiru ziren: Buruntzako kareharria (oso preziatua, ateburu, atondo edo eraikuntzaren ertzeetarako); Leitzaraneke zekarren harria; eta arbel itxurako Goiburuko harria. Egituraren zura inguruko haritzena zen; oholtzarako jadanik hasi zen erabiltzen Landetako pinua (Capbretongoa). XIX. mendearen bukaeran

⁸⁹ BARANDIARAN, José Miguel: “Contribución al estudio de la casa rural y de los establecimientos humanos. Pueblo de ATAUN. Barrios de Arinberriaga, Murkondo, Arrate-kale y Ugalde-karrika”, *Anuario de Eusko-Folklore, T.V*, Eusko Ikaskuntza, Vitoria, 1925, 1.-30. or. Izenak –Zubiaurre, Akotain eta Perune– Ataungo hiru baserriren izenak dira, eta prototipo bezala erabiltzen ditu. Santana ez dago ados tipologia horrekin. Bere ustez, oholezko baserriak (Zubiaurre) egur egitura zutenen (Akotain) aldi berekoak dira, nahiz eta azken horiek gehiago luzatu, konkretuki XIX. mendean arte. Zubiaurrekoei buruz hauxe dio: “Fatxada nagusiko zati handi bat egurrarekin itxia duten baserriak dira Gipuzkoako zaharrenak legenda arabera. Benetan gutxi dira eta oso ikusiak arkitektura bilbatuaren barruan, non habetxoaren sarea goitik behera josi eta iltzeztatutako zurezko taulen paretarekin estali den.”. SANTANA, Alberto: *Op. Cit.*, 58. or.

⁹⁰ ETXEBERRIA, Francisco de: “Pueblo de Andoain. Barrios de Goiburu y Karrika”, *Anuario de Eusko-Folklore, T.V*, Eusko Ikaskuntza, Vitoria, 1925, 88.-94. or.

⁹¹ AGUIRRE, José de: “Casas de labranza”, *Anuario de Eusko-Folklore, T.V*, Eusko Ikaskuntza, Gastéis, 1925, 141.-150. or.

tabikeak adreiluzkoak ziren, baina oso arruntak ziren oholezkoak edo urritzez eta karez egindakoak. Teilatua teilazkoa zen, eta gapirioen eta lataren gainean jartzen zen. Etxeberriak dio kasu batzuetan (Zinko Borda, Etxe Txiki, Elizondo edo Bulanon) Goiburuko arbelezko lauzak erabiltzen zirela.

Zenbait baserrik paretari atxikiak *etxeordeak* zituzten: zerritegia, simaurtegia, lanabesak gordetzeko, oilategia edo labea. Etxeberriak dio, baita ere, baserri batzuetan (Isturitzaga Torrea, Asindegi, Kontrarregistro, Etxe Txiki, Talai, Itxaso, Bulano edo Txertotan) *bozaerak* zeudela, hau da, teilatuko urez betetzen ziren putzuak, ganadua edateko edo lixibarako.

XX. menderako ikusi dugu nola husten ari ziren baserriak; Etxeberriak dio jadanik ez zela baserrikeria eraikitzen. Adibidez, Zazperrinea⁹² erre zenean ez zen gehiago eraiki.

Ikusi dugu nola XIX. mendeko lehen erdialdean baserri askok bi etxebizitza zituzten. Darwinismo hutsagatik gutxitzen joan ziren, eta bateratu egin ziren, askotan. Beste etxebizitzari *bestetxia* edo *etxekona* deitzen zitzaion. XX. mendean zatiketa nahiko garbia izaten zen, baina XIX. mendean ikus genitzakeen bi etxebizitza eta sukalde bakarra zituzten baserriak.

Legendek eta lirikak baserriaren irudi bukoliko bat igorri digute: babes eta bake lekua, goxo-goxo egon zitekeen lekua, eraikin txuri bat ozeano berde batean. Hori adierazten digute Campionen metaforak ("*paloma en la pradera*"), Iparragirrenen bertsoak ("baserri eder/ txuri txuriak") edo Elissambururen *Ikusten duzu goizian* kantua ikuspegia. Ez du ematen horrela zirenik. Aitzitik, ergonomia gutxiko eraikina zela ematen du: desordenatua, konfort gutxikoa, zirrikiz betea, oso hotza neguan, eta aire nahiz ke korronteak nonahitik zetozela.

Klabe epiko eta homerikoan jartzea zuzenagoa izango zen, agian. Egia da izugarritzko indarra duela ikuspegi barbaro horrek: tximiniarik gabeko erdiko sua beti piztuta, kea gora zihoala, goiko oholak eta teilatuko gapirio eta lata beltz-beltzak utziz, eta behi edo idi pareta sukalderraino sartzen, pago-buru izugarriak sutara deskargatzeko: haiek su hotsak eta txinpartak! Beste ikuspegi bat, adibidez, Iñaziomari Atxukarrok Iturriotzeko bentari buruz ematen diguna: "beti sutan, gau ta egun sua" eta zorua "galtzadaz egina"⁹³. Benetan, ikuspegi mizenikoa. Zenbat abantaila ekarri zien emakume gajoei XX. mendeko 1920ko eta 1930eko hamarkadetan sartutako su *ekonomiko* ez-epikoak!

⁹² Etxeberriak zioen haren lurra Zinko Bordakoek lantzen zituztela, eta belazeak, berriz, Talaiakoek.

⁹³ ATXUKARRO, Inaxiomari: *Irriparrezko printzak*, Sendoa, Donostia, 1982.

Egia da baserri askok egin zutela tximinia XIX. mendean, askotan suteen aurkako elkarteek derrigorrez tximinia eskatzen zutelako bazkide izateko, baina ez gaitzeen beste topiko batean erori. Utz dezagun poesia, epika bada ere, eta bueltatu gaitzeen Historiara eta baserriaren arazoetara.

Garai hartako beste problema bat higieneara zen. Tuberkulosi gutxi zegoen baserrietan, baina garbitasun gutxi eta tifus asko. Ukuilua sukalde ondoan egotea arazo bat zen. Gainera, ukuiluak ez ziren gaur egungoak bezalakoak: leihatila estuak, argirik gabe, leku gutxirekin, aire gutxi zegoela, simaurtegia bertan txiztatzen blai eginda, txerria bazter bateko oholtzaren azpian, eta oiloak kotan hantzen hementika... Ez zegoen higiegi girorik. Hauze zioen Ricardo Añibarro medikuak⁹⁴ baserriaren orokortasunari buruz:

*"Yes que en la industria agrícola se concede tan secundaria importancia al factor vivienda, que parece como si por convenio tácito entre propietarios y colonos, hubiera dado en llamar habitación á cualquier edificio que, mal que bien, proteja al labrador de las inclemencias atmosféricas. Una sola ojeada al interior de la mayoría de nuestras casas de labor, basta para convencernos de la absoluta carencia de condiciones higiénicas, aún de las estimadas como indispensables en toda habitación: capacidad, ventilación y luz; alejamiento de las inmundicias; suelo impermeable; separación de personas y animales; todo en la casería es negativo, contradictorio á los preceptos higiénicos"*⁹⁵.

Diputazioa izutu ere egin zen. 1883an komisió bat eratu zuen herri guztietako informazioa jasotzeko. Ez da gordetzen Andoaingo, baina Donostiako baserri buruzkoa beldurra ematekoa da: gela gutxi hainbeste jenderentzat; tabike falta, askotan; ukuilu negargarriak... Ez zen bakarrik higiegi falta, morala ere ukitzen zuen, zeren eta ohe eta koarto gutxi zeuden.

Higienistek dianatzat zuten beste espazioa etxaurrekoa zen, atari aurrean piltzen baitziren ("*antepuertas*", garai hartako terminologian) iraurkina, artakinak eta simaurra, dena sukaldeko harraskako kanilatik kanpora ateratzen zen urarekin ederki nahastuta. Lokatza eta zikina franko etxeko atearen ondoan. Aurrerakuntza handia izan zen baita ere ur korrontea eta estolderia izatea.

⁹⁴ AÑIBARRO, Ricardo: "Higiegi rural". *Gipuzkoako Nekazaritza*, 2. zka, 1903-09-03. Ricardo Añibarro medikua zen, eta Santa Ageda ospitaleko zuzendaria izan zen. Ekintza politikoetan eta enpresetan ere parte hartu zuen; adibidez, Unión Cerrajerera enpresako presidentea izan zen, eta Merkataritza Ganberako presidentea (1930-1931).

⁹⁵ Honela jarraitzen zuen bere deskripzioa: "Tres ó cuatro ventanas microscópicas, irrisorio acceso á los vivificantes rayos del sol y las embalsamadas auras del ambiente exterior: suelo desvencijado por el que, en compensación de la carencia de sol y aire puro, penetran con libertad los mefíticos miasmas de la cuadra: alcobas de cubicación deficiente: promiscuidad absoluta entre personas y bestias: ausencia de retretes: cuadra privada en absoluto de ventilación y de luz y en la que se acumula el fiemo formado dentro y el acarreado de fuera: suelo de tierra que deja penetrar toda clase de líquidos y detritus orgánicos, constituyendo adecuado medio de cultivo para los micro-organismos patógenos, etc.: todo contrario, todo atentatorio á la salud y vigor de los moradores del caserío rural. No busquemos comodidad y bienestar, que donde se carece de lo necesario, huelga lo útil, y conveniente".

Maizter-kontratu bateko klausula batean ikus daiteke jabe *higienista* batek (egia zen, “*médico-cirujano*” bat baitzen jabea) jarritako klausula: “*No se permitirá que los helechos, argomas, estiércol y demás brozas se coloquen delante de la casa hasta la reja del frente de la misma*”⁹⁶.

Garai hartako baserriek zuten beste traba bat argi faltarena zen. Leihoak orri bakarrek ziren, ez zuten kristalik, oholezkoak ziren, eta bakarrik, erdian, leihatila errektangular bat zuten. Beraz, itxita eta ilunpean, edo irekita eta kanpoko tenperaturan, egon zitezkeen. Aurrerapauso handia izan zen kristalak jaretzea. “Kristalezko leihoak etorri ziren arte, irekita eduki behar egurrezko haiek, argia sartuko bazen etxezulara”⁹⁷.

Aita Soto sermolari frantziskotarrak sermoi batean hiru adjektiborekin definitu zituen baserriak: “*limpios, blancos y aseados*”. Ez dirudi oso gertu zebilenik.

2.3. Lursailak, laboreak eta garia.

Baserriaren beste atal bat lursailena zen, garaiko literaturan “*pertenecidos*” delakoa. Era askotakoak ziren: soro-lurrak (“*labrantíos*”, “*sembradíos*” edo “*tierras de pan llevar*” direlakoak), sagastiak, belazeak, baratzea, edo mendia-aren atal zabala (garadiak, otadiak, gaztainadiak, harizti edo pagadiak, txarak...). Denek osatzen zuten baserriaren multzoa: soro-lurrak laboreentzat; sagastiak sagardoa egiteko; belazeak ganaduaren belarrerako; baratzea barazkientzat; basoa ganaduaren azpiak egiteko inaurkinarentzat, egur edo zurarentzat... Alderdi bakoitzak bere bokazioa zuen, bere ezaugarri fisikoen arabera: zorua, topografia, intsolazioa, etxearen distantzia... Askotan bokazio hori ez zen bakarra, mistoa baizik: sagastiak belaze edo soro ere izan zitezkeen; mendiko lurrek ere janaria eman zezaketen (gaztaina), edo larrea... Horregatik, eta lur zatiak jarraian ez zeudelako ere bai, baserri bakoitzak artxipelago bat ematen zuen, sail txiki eta desberdinez osatua.

1897an inkesta bat egin zen izenburu honekin: “Jakin naida cembat golde lur ditun baserriyak”. Kategoriak hauexek ziren: “Gaztaña, Sagarra, Gariya, Artua, Belaziak, Garolekua, Vasuak”. Batez bestekoak hauek dira: 0,55 golde lur (gaztaina), 0,63 (sagastia), 0,89 (garia), 2,51 (artoa), 0,80 (belazeak), 1,23 (garadiak), 0,46 (basoa). Multzoka jarritz: soro-lurrak (3,40), mendia (2,24), belazeak (0,80)

⁹⁶ A.G.G.-G.A.O., PT 3841, ARRI, 1905. Jabea Francisco Ramón de Arana y Arana zen, medikua, eta Bolivarren bizi zen (Argentina). Maizterra Miguel Murua Lasa zen, lazkaotarra. Baserria Lazkaon zegoen, Ondarra-aundia, eta kontratua 6 urterako zen, errenta guztia metalikoan ordainduko zuela (1.500 pezeta). Beste klausula kurioso bat zen sagastiarena, hauxe baitzioen: “*el colono Murua se obliga á roturar ó cavar el manzanal cada dos años y á gobernar y enmendar con setenta carros de cal de horno*”.

⁹⁷ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK: “Baserria”. *Op. Cit.*


eta sagastiak (0,63). Osotara, 7,07 golde lur⁹⁸; beraz, 2,36 ha baserri bakoitzeko. Beti kontuan hartuta erdi-baserri erdi-etxe diren horiek. Hala eta guztiz ere, zera ikus dezakegu:

1. Baserriak oso eskasak zirela lurraldez. Hortik bizitza eroso ateratzea ezinezkoa zen.
2. Soro-lurrak (zerealak) ziren nagusi, ia lurren erdiak (%48); mendi lurrak ia herena dira (%32); belazeak oso urriak ziren gure gaurko ikuspegiarako (%12ra ere ez ziren ailegaten); eta sagastien gainbehera ikus zitezkeen (%8).

Mende hasierako beste datu batzuk baditugu (datarik ez du, baina 1906az geroztikakoa da), baina Sorabillako baserriak falta dira. Datu osoak oraindik kaskarragoak dira. Baserri estandarren zabalera 2,15 ha-koa izango zen, horrela banatua: 1,08 soro-lurrak (%50 pasa), 0,34 belazeak (0,24 naturalak eta 0,10 artifizialak; guztira %16), 0,73 mendia (%34). Sagastiak ez dira kontuan hartzen.

1925eko inkestatik kale inguruko etxe koskorak, utzitakoak eta abar kendu ditugu. Datu hobekak ateratzen dira. Batez besteko hedadura 12,31 golde lurrekoa da, hau da, 4,1 ha. Hobekuntza nabaria da; baliteke lehengo datuetan mendia-aren presentzia gutxietsia izatea. Horrela banatzen dira: 4,43 mendi lurrak (%36), 3,37 soroak (%31), 2,97 belazeak (%24), eta 1,14 sagastiak (%9).

Ondorio oso garbiak atera daitezke: 30 urte baino gutxiagoan soro-lurren –zerealaren– garrantziak heren bat galdu du; belazeak bikoiztu egin dira; eta sagastia, berriz, mantendu.



⁹⁸ Zehatza ez bazen ere, 3 golde lur edo “*yugada*” = 1 ha kalkulatu zen.

Laboreak soroetan ereiten ziren, lur onenetan: lauenak, zoru sakonekoak, etxe ondokoak, eguterakoak...

Konplexutasun eta aniztasun horretan zenbait labore edo labore-multzo deskribatu ditzakegu:

1. **Txandatze tradizionala** ezarri zen XVII. mendean, artoa sartu zenean, eta hurrengo mendean egonkortu zen, artoa nagusitu zenean eta lantze zaharrak bazterreratu zituenean: artatxikia, zekalea, oloa... Pixka bat beranduago sartu zen babarrunari egin zion lekua.



Gurmendi, zubi zaharra eta Azelain jauregia. Gorago Igeluts, eta oraindik maila garaiagoan, Erramueta (ezkerrean) eta Erdoizta (eskuinean). Azelainen eskuinean, erretore etxea. Artadiak, belazeak, sagastiak... eta basoa, goi, oso goi. Iturria: A.U.A., F.6.8/694.

Txandatzea biurtekoa zen, eta horretarako, soroetan bi zati egiten ziren. Egu-tegi agronomikoa San Martinen hasten zen. Horregatik, orduan bukatzen eta hasten ziren kontratuak, eta zenbait kasutan baserriz aldatzea fortunatzen zen (*sanmartingoa*). Ez zen kasualitatea, orduan hasten baitzen gariaren lurra prestatzeko eta labore hori ereiteko garaia. Horrela, bada, zati batean garia ereiten zen, Gabonak baino lehen; labore hori uztailean jasotzen zen; eta abuztuan arbia ereiten zen, hurrengo apirilean dena

jasotzeko; eta horren ondoren, artoa ereiten zen, urrian jasotzeko: eta gariarekin hurrengo biurtekoa hasteko. Zati batean garia bazegoen, bestean artoa zegoen. Zerealak nagusi.

2. Baina zenbait eskualdetan eta zenbait baserritan garia historia bihurtu zen. Ez zen moda bat, ez eta aurrerapen edo atzerapen auzi bat ere. Ez. Uda hezeagoa zen lekuetan (kosta eta ekialdea), gariak arazoak ematen zituen heltzeko eta biltzeko, eta izurriteek beren lana egiten zuten. Bestalde, baserri askok errentaren zati bat garitan ordaindu behar zuten, oraindik jauntxoek halako joera baitzuten, baina Andoainen nola ez zegoen jauntxo aristokratarik, ez eta garia ehotzen zuen errotarik (urte askotan, behintzat), pentsa daiteke gariaren ordainketa asko galdu zela, gehienbat metaliko bihurtuz. Beraz, nekazariak, gari-lotura horretatik askatuta, labore horri bizkarra eman zioten.

Gari eta arto produkzioen arteko erlazioak eskualde banaketa bat markatzen digu Gipuzkoan. Orokorrean, esan dezakegu zenbat eta iparralderantzago eta ekialderantzago **artoa**ren garrantzia handitu egiten zela, eta, aitzitik, hegoalderantz eta mendebalderantz, gariak oraindik bazuela zeresanik. Artoaren hegemonia sagarrarekin bat dator; beraz, esan daiteke gari asko eta sagardo gutxi, eta alderantziz.

1860ko *Interrogatorio sobre la produccion agrícola* delakoak gari anegaren eta arto anegaren arteko zatidura hauek ematen ditu:

Bidasoa eta Oiartzun bailarak: Irun eta Hondarribia (0,09) eta Oiartzun (0,15).

Urumea bailara: Donostia (0,27) eta Hernani (0,10).

Oria bailara: Orio (0,15), Usurbil (0,29), **Sorabilla (0,37)**, **Andoain (0,46)**, Tolosa (0,67) eta Beasain (0,94).

Urola bailara: Zumaia (0,31), Zestoa (0,50), Azpeitia (0,50), Azkoitia (0,79), Urretxu (1,00) eta Zumarraga (1,64).

Deba bailara: Deba (0,69), Eibar (0,79), Elgoibar (0,91), Bergara (0,67), Arrasate (0,65), Oñati (0,79), Aretxabaleta (0,90) eta Eskoriatza (0,89).

Emaizta horien arabera, Andoain eta Sorabilla Probintziako erdiko maila batean liriteke⁹⁹.

Horrela, bada, garia ereiten ez zen lekuetan artoa urte guztietan ereiten zen. Laborea babarrunari elkartuta zegoen, haren zurtoinak arba bezala balio zuela. Kasu batzuetan kalabazak ere ereiten ziren, normalean soro ertzeetan, edo erremolatxa errenka artean.

Abuztu aldean, eta lerro artean ere, arbia edo pagotxa ereiten ziren.

Horrela mantentzen zen oreka edafologiko bat, zereal, lekari eta barazki errodunen artean.

Artoa, lehen Gipuzkoan eta Andoainen ikusi dugun bezala, lantze hegemonikoa zen: haren alea gizaki eta abereen janaria zen; haren hostoak eta lore arrak behientzako bazka ziren, bai berdeak bai lehorrak, azken horiek neguan beste bazkarik ez zegoenean. Zurtoina ere azpiak egiteko edo zuzenean simaurrerako erabiltzen zen.

3. Beste lantzeak **belaze artifizialak** ziren. Horiek, eta belar naturalak ez bezala, erein egiten ziren, eta zenbait denbora egoten ziren lurrean, gero berriro lurra lantzeko. Naturalak iraunkorrak ziren, baina naturala esateak tranpa ere badauka, zeren eta horiek ere antropikoak baitira. Baserritarra, ganaduaren ugaltzeak hala eskatzen zuelako, zenbait sail belaze bihurtzen joan zen. Lehen ikusi dugu zer-nolako garapena izan zuten horiek XX. mendeko lehen laurdenean.

⁹⁹ Andoainek 2.360 anega gari eta 5.080 anega arto ekoizten zuen, eta Sorabillak, berriz, 405 anega gari eta 1.100 anega arto. Anega batek 4 arroba zeuzkan: 50 kg-ra ez zen iristen (gariarena pixka bat gehiago artoarena baino). Konkretuki, 90 libra, gariaren kasuan, eta 84 libra, berriz, artoarenean. Neurri zaharren anabasa!

Horrela, bada, lehengo gaztainadi, otadi, sagasti edo soro-lurak belardi bihurtu ziren. Horretarako, luberriak egin behar ziren, topografikoki ezinezkoak ziren lurretan hormak egin, belarra erein, belar motak urtetan hautatu, eta abar. Kolonizazio berri hori behi kopuruaren igoerarekin bat etorri zen. Noski, birmoldaketa berde hori zuzenki lotuta dago herri larreen atzerapenarekin eta ukuiluratzearekin.

Belardi artifizialen espezieak alpapa, hirusta morea edo frantses-belarra, hirusta zuri edo horia, hirusta gorria edo pagotxa, txirta edo ilarbeltza, eta ailorbea ziren. Modernitatearen ikur bat izan ziren, eta garaiko teknikari guztiek bultzatu zituzten. Ailorbea oso belar popularra zen baserriarren artean, oso emankorra baitzen, baina oso gustu txarra ematen zien esnari eta haragiari; beraz, Diputazioak arau batzuk bidali zituen herrietara, belar hori erabiltzea debekatuz bai esne-behientzat bai 10 egun barru hiltegitik pasa behar zuten txekorrentzat.

4. Lehen ez dugu aipatu ere egin **baratzea**. *Baratzatik gosia eta baratzetik asia* dio Etxeberriak Andoainen jasotako atsotitzak, baina ez du ematen gero praktikan jartzen zenik. Baratzeak zeharo kaskarrak ziren, gaur baino kaskarra-goak. Baserri bakoitzean 20-50 m² ingurukoak ziren. Ezer ez. Barazki motak ere gutxi ziren Andoainen: aza zen erregina. Gero, porruak, kolifloreak, tipulak, baratxuriak, leka berdeak, letxugaren bat, tomateak eta piperrak, eta kito, eta ez denak baratze guztietan. Donostiako inguruan antzinakoak ziren, eta garrantzi handiagoa zuten. Hala ere, bazegoen baserriren bat barazkietan espezializatua. Hauxe zioen Patxi Irizarrek Etxabe baserriari buruz: "Azenarioa, porrua... sail izugarriak landatzen zituzten. Goizeko 6retarako hiru astokada beteta jaisten zituzten tranbiara, egunik faltatu gabe"¹⁰⁰.

Patatak ere ez zuen gaur egungo presentziarik. XIX. mendean ematen du oraindik animalientzat erabiltzen zela. XX. mendean joango zen garatzen, eta kostata, haren laborea. Gerraosteko goseak eman zion alternatiba Gipuzkoan.

5. **Sagastiak** oso garrantzizkoak izan ziren XIX. mendean. Sagastietan laboreak ereiten ziren, eta horrelako sailak garestienak ziren, baina denbora pasa ahala gutxitzen joan ziren, eta pisu gutxiago zuten baserrian, aurreko datuetan ikusi dugun bezala. Txertatze eta kimatze teknikak ahazten joan ziren baserri askotan, eta sagastiak zahartzen joan ziren, berriengatik ordeztu gabe. Sagardoaren produkzioa ere behera joan zen.

Sagarrondoak uzta bienala du, hau da, askotan urte batean asko ematen du, eta hurrengoan, berriz, oso gutxi. Horregatik, sagarrari atxikitzen bazitzaion errenta, bi urteko kopurua hartzen zen kontuan.

Andoainen baditugu zenbait ekoizpen, oso desberdinak:

1913: 2.752,5 karga¹⁰¹

1914: 275 karga

1915: 2.700 karga

1916: 80 karga

1917: 3.050 karga

1919: 2.320 karga

1925ean 53 baserriarrek deklaratu zuten sagarra jasotzen zutela: %29. Sorabillako sagardogileak askoz ere gehiago ziren, 30etik 19, %63; beraz, bikoiztu egiten zuten Andoain osoko zifra. Sorabillako baserriak, Belkoainek iparretik babesten dituela, egutera orientazioa dute, sagarrerako mesedegarri.

Barietateen kontua anabasa zen: asko -gehiegi- izen desberdinekin... 1916an Diputazioak Komisio Pomologikoa eratu zuen, eta haren lehen lana izan zen ordena pixka bat jartzea. Herri bakoitzean jaso zen informazioa sagastiei buruz: barietateak, hedadurak, sailen orientazioa, sagastiek zituzten urteak... Andoaingo 11 baserriarrek fitxak ditugu, eta hortik atera dezakegu zein sagar mota zeuden: Merkalin, Abelain, Pikua, Balanzategi zuria, Udare, Zaburu, Urdanpileta, Lasarte, Andoain, Aya, Ezpuru, Mozolua, Errege, Txori, Urkola, Sagar gorria, Ugarte, Santiago, Kanpandoja, Asu, Elketa, Gereta zuria, Txalaka..., eta beste asko. Askotan, izenetatik atera daitekeen bezala, barietate lokalak dira, eta askotan baserrian bertan egindako entsaio propioak. Laffitten ustez, *Andoain* mota oso sagar ona omen zen sagardoa egiteko, azukrea, taninoa eta usain gozoa zituelako¹⁰².

Sagastiek, ordea, gaitz asko zituzten (gurgurioak eta zorriak), eta ez baziren zaintzen, berehala hondamendia zetorren.

1913ko Udaleko informazioaren arabera, zegoeneko, Asturiasko sagarra erabiltzen zen sagardoa egiteko, baina esportatu ere egiten omen zen, Patxi Irizarrek dioen bezala:

"Galizira eramaten zen erruz sagarra. Elixondoko parera, noizbait etortzen zen biltzailea, eta baserriarrek jaisten ziren. Baina huskeria ordaintzen zieten, eta biltzea asko kostatzen zenez, baserriarrek azkenean egin zituzten sagastiak bota"¹⁰³.

¹⁰¹ Kargak 6 zaku sagar hartzen zituen, 330 kg inguru.

¹⁰² LAFFITTE, Vicente: "Agricultura y ganadería vascongadas", *Provincias vascongadas. Geografía general del País Vasco-Navarro*, Editorial de Alberto Martín, Barcelona, 1918, 603. or.

¹⁰³ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK: "Baserría", *Op. Cit.*

¹⁰⁰ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNAK: "Baserría", *Op. Cit.*

Azkenik, **lihoa** labore tradizionala izan zen XIX. mendera arte. Oraindik 1860an Andoainen 17 arroba eta Sorabillan 1,5 arroba ekoizten ziren, baina mende horren bukaerarako desagertuta zegoen. 1897an *amukua* (haria egiteko gaia) Tolosan erosten zen; baserrian haria egin eta ehulearengana eramaten zen. Orduan herrian 3 ehule zeuden, baina azkena –Etxeberriak dio– 1917an hil zen.

Ikusitako labore horiek guztiak ezagunak dira, baina gariarena ahaztuta dago. Rodríguez Álvarezek bere lanean haren berri ematen duenean “*sorprendentemente*” adberbioa erabiltzen du. Gure memoria ahuletik desagertu baldin bada, garia XX. mendearen erdialdera arte ereiten jardun izan da, eta, dudarik gabe, XVIII. mendera arte laborerik garrantzitsuena izan zen. Horrela izanda, haren gorabeherak aipatuko ditugu, ia etnografiaren sailean sartzen garela.

Gariaren garrantzia handia izan zen. Erreferente bat izan zen. Ikusi dugu nola baserriaren errenta kasu gehienetan garitan ordaintzen zen: horrek esan nahi digu ordaintzaren patroia zela. Lehenago aipatu dugu baita ere nola haren ereintzak markatzen zuen nekazaritza urtearen hasiera, eta nola garai horretan *sanmartingoa* gertatzen zen.

Gariarekin ogia egiten zen, gure kulturaren janaririk garrantzitsuena. Ogia gorputzaren eta arimaren janaria zen. Ezin dugu ahaztu Kristautasunarentzat zuen balioa: Jesusek berak aukeratu zuen janari hori bere gorputza emateko, eta erakutsi zuen otoitz bakarrean hauxe utzi zuen betiko: *Emaiguzu eguneroko ogia*. Bibliako literatura guztia ogiz eta ardoz beteta dago. Hori episodikoa ez zelako seinale zen nola tratatzen zen ogia baserrian. Irin-orea labean erre aurretik, goiko azalean gurutzearen zeinua egiten zitzaion, eta pobreaki ogi puska ematean, edo lurrera erortzen zenean ere, musu eman, eta gurutzea egiten zen.

*“Al empezar a partir un pan entero, se le hace una cruz con el cuchillo en la cara plana y se le besa en el punto de intersección de las líneas con que se formó la cruz. Se dice que no se debe meter de punta el cuchillo al pan. A este propósito hay un dicho: Ogiari etzaio labana sartu bear, Jesu-kristoren gorputza da-ta”*¹⁰⁴.

Euskal mitologian ere garia lehen mailako sinboloa da. Barandiaranek kontatzen du San Martin Txikiren istorioa, nola bere adimenarekin jentilei gari-hazia kendu zien, oinetakoetan zeramalarik, eta nola gizasemeei eman zien ereiteko. Atxukarrok jentilen lekuan deabrua bera jartzen du.

¹⁰⁴ ETXEBERRIA, Francisco de: “La religiosidad del pueblo. Andoain”, *Anuario de Eusko-Folklore, IV*, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1924, 52.-53. or.

Badakigu XX. mendearen hasieran hiru barietate ereiten zirela Andoainen: galmotza, galbizarra eta Egiptoko garia¹⁰⁵. 1935ean ere hiru aipatzen dira: galmotza edo “*trigo candeal*”, galbizarra edo “*trigo moruno*”, eta gal-handia edo “*trigo redondillo*”; eta lehenengoa zen gehien ereiten zena¹⁰⁶.

Gariak artoari jarraitzen zion txandatzeko tradizionalean. Urrian artoa eta artakinak jaso, eta azaroan hasten zen lurra prestatzen garia ereiteko. Oso sakonean lantzen zen lurra, eta horretarako laiatu¹⁰⁷ egiten zen. Lariatzea lan itzela zen, baserriko latzena, eta lanasko asko behar zen; horretarako, askotan auzolanean egiten zen, etxean jendea eskas zegoenean. Laiariak errenkan jartzen ziren, esku bakoitzean laia bana zutela –alboan indartsuenak, erdian ahulenak–, gizonak eta emakumeak: laiaren hortzak sartu, gora igo, zapaldu, dantza edo balantza egin, zohi luzea jaso, eta irauli. Plastizitate ikaragarriko mugimenduak, baina gogorra baino gogorragoa. Aita Larramendik mende eta erdi lehenago esandakoaz ezer gutxi aldatuta zegoen.

“El modo de disponer la tierra para sembrarla de trigo es layarla, esto es, volverla de abajo arriba con instrumentos que llaman layas; y son unos bidentes de hierro que con el mango superior forman un hacha. Hacen primero unas cortaduras sutiles, pero hondas, en la heredad con un cuchillo que sirve para eso, tirado de bueyes¹⁰⁸, y las hacen todo lo largo de la heredad y de trecho en trecho, más o menos espacioso según son más o menos layadores. Puestos en fila entre una y otra cortadura, levantan al mismo tiempo y a compás las layas, y metiéndolas en la tierra con fuerza levantan la tierra entre ambas cortaduras y la doblan, volviéndolas lo de arriba abajo, y sacan en cada golpe unos cespedones largos y de



Gure noblezia (jauntxoak) eta morroien lana, jauregia eta garia, armarría eta nekazaritza geometria konikoa. Metak prest jotzeko. Iturria: A.U.A., F.5.1/11.

¹⁰⁵ A.U.A., B.8., 29H/5. 1911ko dokumentu batean agertzen dira.

¹⁰⁶ A.U.A., A 11., 240H/20.

¹⁰⁷ Laia, esan dugun bezala, uzten joango zen, eta haren ordeaz *brabant* goldea sartuko zen. Askotan, eta lan handia zenez, laiaketa urtean behin egiten zen, hau da, maiz, artoaren prestaketan ez zen laiatzen (bostortza edo lauhortza pasatzen zen), baina gariaren prestaketak laia eskatzen zuen.

¹⁰⁸ Nabarra izeneko goldeaz ari da.

*media vara de ancho y más de una cuarta de grueso, que llaman zoyas; al mismo tiempo van otros desmenuzando o deshaciendo con azadas los cespedotes layados. Y así prosiguen hasta acabar el primer trecho de las dos cortaduras, y de la misma forma empiezan y acaban los demás*¹⁰⁹.

Larramendik esan bezala, gure garaian ere, baina ez beti, laiatu aurretik golde nabarrarekin ebakitzen zen lurra, laiaketa errazago egiteko. Laiarien atzean beste nekazari batzuk aitzurrekin zohiak txikitzen joaten ziren.

Atxukarrok dio: *Ostroak lurrera, garia lurrera / Ostro erortzea, gari ereitera*. Baina, eguraldiaren arabera, askotan Gabonak ziren ereiterako. Horregatik, badago beste esaera bat haxe diona: *Aundia banaiz, txikia banaiz, garagarrillean burudun naiz*.

Batzuetan, baba handien ilarak tartekatzen ziren¹¹⁰. Hazitarako, uztaren %10a baino pixka bat gutxiago erabiltzen zen, eta lehenago karea eta urarekin nahasten zen gaixotasunak eta arerioak uxatzeko. Purra botatzen zen, eta hazia barnertzeko eta lurra gehiago xehatzeko, area pasatzen zen, eta aldi berean, beste nekazari batzuek eskuko zokormazoaz lur guztia fin-fin uzten zuten. *“Ni dejan un terroncillo que no reduzcan a polvo”* zioen Larramendik. Ernetzen zenean, beste area-pase bat ematen zitzaion lur azala apurtzeko, eta simaurra zabaltzen zen. Martxoan edo apirilean, eta gehienetan andreek, jorratu egiten zuten, aitzur estu eta kirten luzedun batzuekin *–jorraiak–*, belar txarrak kentzeko, eta *“queda toda la heredad limpia como una plata”*, zehazten du On Manuelek. Maiatzean, galburua ateratzen zenean, eta eskuz, zereal basatiak ateratzen ziren, adibidez, olo zoroa¹¹¹. Uztailerako prest zegoen uzta jasotzeko. Ikuskizun galanta zen urrezko sailak ikustea, belaze eta arto sail berdeen artean tartekatzen zirela.

Gariaren uzta ere oso nekeza zen, eta laiaketak bezala lanegun ugari behar zuen. Berrero ere lan trukaketaren edo auzolanen garaia zen. Familia guztia ez zen nahikoa izaten. Kasu batzuetan, kanpoko jendea kontratatzen zen ordainketa baten truke. Garia igitai¹¹² handi eta horzdun batekin ebakitzen zen, eta ebakitzailerak bakoitzak, beste batzuen artean, errenka bana eramaten zuen, moztutako garia atzean uzten zuelarik. Horrela utzita, egun batzuk uzten zen lehortzen.

¹⁰⁹ LARRAMENDI, Manuel de: *Corografía de la muy noble y muy leal Provincia de Guipúzcoa* Editorial Amigos del Libro Vasco, Bilbao, 1985, 61.-62. or. 1754an idatzita izan zen eta 1882an lehenengo aldiz argitaratua.

¹¹⁰ Ikusi dugu hori gertatzen zela Buruntzan, Lehenengo Karlistadaren garaian, soldaduek dena hondatu zuten garaian.

¹¹¹ IDEM, 64. or. *“Esto se puede hacer en tierras y sembrados pocos y cortos y donde hay mucha gente, y donde no hay holgazanes y perezosos”*, Ematen du denborarekin gutxitzen joan zirela gariaren jorraldiak.

¹¹² Marc Blochek Frantziar sega alderdiak eta igitai alderdiak bereizten ditu. Gureak azkenengoaren barruan lirateke. Seg, garia ebakitzeko, Gerra Zibilaren ondoren zabaldu zen.

Gero sortak egiten ziren (*eskutadak* edo *balkoteak*): bi eskuen artean sartzen ziren landareak lotu egiten ziren beste landareren batekin. Beste nekazari batek, atzetik, zutik jartzen zituen, *meta txorroak* eraikiz. Meta horiek sailean uzten ziren, ondo lehortu arte.

Eguraldi segurua etortzen zenean, metak jaso, eta larrainera edo mandiora eramaten ziren gari-jotzeko. Egun beroenak izaten ziren. Gurdietan ekartzen ziren gari sortak, eta askotan, oraindik lehortzen uzten ziren. Lehorrak zeudenean eta garalea erdi askatua zegoenean, jo egiten zen sorta, harri leun baten aurka. XVIII. mendean Larramendik dio irabiurak¹¹³ erabiltzen zirela, baina gure garairako irabiurra oso leku gutxitan erabiltzen zen, eta ia beti, jo ondoren.

Geroago garbitze lana zetorren, eta horretarako galbahe handi batzuk erabiltzen ziren. Jaurtitzailak teknika eta indarra behar zituen: pulstuz gora botatzen zuen bihia, eta beheratzerakoan jaso, haizeak zikinak zeramazkielarik. Haize-makinarekin eta garia jotzeko makinarekin, lan gogor hori leundu egin zen.

Lan gogorraren ondoren, iluntzean, jaia zetorren: afaria mandioan, sagardoa eta ardoa, umorea, bertsoak eta *“azañak eta balentiyak”*¹¹⁴.

Jasotzen zen gari gutxia gutxiagotu egiten zen, errenta ordaindu ondoren eta zenbait ogibideri ordaindu eta gero (perratzailea edo errementaria, bizargina, serora¹¹⁵, kasu batzuetan, maisua...), eta errotariari leka eman ondoren.

Baserritarren zoriontasuna hiru denbora unitateri zegozkien hiru une gogoangarriok ezartzen zuten: *ogia egindako eguna, txerria hildako astea, eta ezkondu-tako urtea*. Baserrietan ogia erretzen zen egun hori bakarra zen astean: normalean, larunbatean. Hala ere, dagoeneko XX. menderako ia inork ez zuen etxean ogirik erretzen. 1925ean Etxeberrriak dio Goiburun eta Karrikan ia 45 urte zirela etxean ogirik egiten ez zela; herrian bi okindegi zeudela; eta beste bi okin¹¹⁶ etortzen zirela beren automobilekin Tolosa eta Billabonatik.

¹¹³ Nafarroako iparraldean, Caro Barojak dioenez, irabiurra erabiltzen jarraitzen zuten aldi horretan.

¹¹⁴ ERAUSKIN, José Ramón: *Aien garaia*, Auspoa., Donostia, 1975, 75.-86. or.

¹¹⁵ XX. mendearen hasieran Sorabillako serora Josefa Joaquina Iturrioz Garagorrik, Natalio Pajarin maisuaren emazteak espeziatan kobratzen zuen: 36 lakari gari eta beste hainbeste arto (112 kg inguru bakoitzeko). Mendeen hasieran zeuden bi errotetan, artoa bakarrik ehotzen zen. Geroago Alkartasuna sindikatuak Errota izeneko bat zabaldu zuen Kaletxikin, eta horretan garia ehotzen zen, baina motor elektrikoaren bidez.

¹¹⁶ 30eko hamarkadarako hiru okindegi zeuden Andoaingo kaskoan: Federico Orbegozo, Joaquín Arratibel eta Federico Olanorenak.

Hauek dira gariaren eta artoaren estatistika¹¹⁷ historikoak:

URTEA	QM GARI	HL GARI	KG GARI	QM ARTO	HL ARTO	KG ARTO
1860		1.194,5	118.255,5		3.694	362.012
1861		1.106	109.494,0		2.433,2	238.454
1880		1.190	117.810		3.760	368.480
1882		1.070	105.930		3.600	352.800
1906	100		10.000	3.000		300.000
1912	275		27.500	660		66.000
1917	280		28.000	600		60.000
1923	300		30.000	550		55.000
1926	325		32.500	1.500		150.000
1927	298		29.800	5.800		580.000

Datuetan ikus dezakegu garia XX. mendeko lehenengo bi hamarkadetan %30 jaitsi zela. Artoak portaera desberdinagoa du, eta 1927ko datuak ahazten baditugu, XX. mendeko lehen laurdenean %50 jaisten da.

Ekoizpenaren datu horiek bat datoz ereindako zabalerekin. 1883an 96 ha gari (80 Andoainen eta 16 Sorabillan) eta 156 ha arto erein ziren (130 Andoainen eta 26 Sorabillan). 1919an, berriz, 35,24 ha gari eta 50,44 ha arto izan ziren ereindakoak. Hau da, garia herenera jaitsi zen, eta artoa, berriz, gure harridurarako, zerbait gehiago.

1860an gari produkzioa kontsumoaren erdia zen, eta artoarena nahikoa edo defizit txikikoa. XX. mendearen hasieran gariaren produkzioa kontsumoarekiko %10a zen, eta artoarena, berriz, %60a.

1928ko estatistikak¹¹⁸ 172 baserritatik 47 gari-ekoizle ematen dizkigu, hau da, baserrien laurdena inguru. Hektarea bat baino gehiago ereiten zutenak bi baserri besterik ez ziren: Arrieta (1,2 ha) eta Ikutza Berri (2 ha).

¹¹⁷ Gogoratu nahi dugu estatistikaren datuek joera bat markatu bakarrik egiten dutela, nola-hala egiten baitziren. Unitate desberdinak kg-tara pasa ditugu.

¹¹⁸ A.U.A., B.8., 44H/ 9.

Hala ere, oraindik ez zen ezagutu 1930eko hamarkadan gertatutako jaitsiera ikaragarria. Ekoizle gutxi horiek eta haien produkzioa erdira pasa ziren. Hurrengo koadroan¹¹⁹ ikus daiteke joera hori.

URTEA	EKOIZLE KOPURUA	EKOIZPENA KG	BATEZ BESTE KG
1929	52	24.078	463
1932	32	18.415	575,5
1934	24	9.732	405,5
1935	16	7.357	459,8
1936	13	7.078	544,5
1938	10	3.252	325,2
1940	78	4.669	316,3

Horrela, bada, 10 urtean (1929tik 1938ra), produkzioa %14ra jaitsi zen eta ekoizleak %19ra. Hala eta guztiz ere, baserri bakoitzeko batez bestekoa ez zen gehiegi jaitsi, eta 300 eta 600 kg-ren artean zegoen. Beste joera bat markatzen dute 1940ko datuek, zeren eta gerraostean Servicio Agronómico del Trigo delakoak garira bueltatzea ezarri baitzuen, baina hori beste koiuntura politiko eta ekonomiko batean gertatu zen: gerraondoko frankismoaren autarkia.

Hain zuzen ere, 1938ko azaroaren 9an (*Garaipenaren* 3. urtean), Nekazaritza Batzarra eratu zen Andoainen, eta haren helburua hauxe zen: “*conseguir sea aumentada la superficie destinada al cultivo del trigo, que era poco menos que nula en este Municipio*”. Horretarako, nekazariak bizitu egin behar ziren, Estatuak ematen zituen laguntzak jakinaraziz. Gari uztak ez izateak hazi falta ekarri zuen, eta horregatik esaten zen: “*que la única semilla que se haya de necesitar sea posiblemente el trigo en las casas de los labradores que no lo sembraron el pasado año y que ella puede cumplirse por medio del Sindicato que lo posee*”. Horretarako deia egiten zen:

“*para que todos los miembros de la Junta intensifiquen la propaganda del cultivo del trigo, por ser a su juicio la labor más provechosa y eficaz que la misma puede realizar, ya que el entusiasmo y amor al trabajo del elemento labrador no necesita de estímulos en este Municipio para proseguir mejorando cuanto puede sus tierras, ni se da un solo caso de abandono de laboreo, cultivo o aprovechamiento de fincas rústicas*¹²⁰”.

¹¹⁹ A.U.A., A 11., 240H/20.

¹²⁰ Batzarreko kideak hauek ziren: alkatea, José M^a Trecu, presidentea; FET y de las JONS erakundearen herriko burua, Fernando Zalacain Gaztañaga, presidenteordea; eta bokal gisa, alkateak izendatutako eta FETek proposatutako nekazariak: Cándido Mendizabal Berreyarza, Domingo Soroa Atorrasagasti eta Simón Echarrain Echeveste. Idazkaria, berriz, Ignacio Echezortu Beitia zen, Udaleko idazkaria.

Gerrak eta gerraosteak, bada, denbora luzapen bat eman zioten zereal zaharriari. Autarkiak eta errazionamenduak gariaren desagerpena saihestu zuten, eta 20 urteko oxigenoa eman zioten.

Urruntasun honekin eta malenkolia izpirik gabe, "Uztapide"-k gari zaharriari agurra eman zion:

Euskalerrriyan gariya egin
izan gendun borondatez,
egitiari utzi geniyon
ganaduaren bitartez,
orretarako lurak obiak
dirade auek izatez,
balio duen gauzari segi
gariya egiteko partez.

2.4. Ganadua.

Ganadua zen baserria esaten diogun elementu konplexu horren beste osagai bat, eta maizterrentzat kapital garrantzitsuena zen. Lehen esan dugun bezala ganadua ez zitzaion errentari atxiki, eta horrek askatasun eta segurtasun handia eman zion maizterrari, ganadu kopurua igotzen ari zen garai batean.

Aberats hitza *abere* hitzetik dator. Errealitate hori aspaldiko artzain-garai batean izango zen, zeren eta XIX. mendera arte, baserriaren aberastasuna zerealetan baitzegoen, ez abereetan, horiek bigarren mailako aberastasuna izanik.

Hona hemen ganaduari buruz aurkitu dugun estatistika:

Urtea	Behi	Idi	Guztira	Txek.	Zaldi	Mando	Asto	Ardi	Ahutz	Txerrama	Txerri
1830?	342	146	488	-	31	-	-	1.442	-	-	-
1886	555	100	655	214	4	3	72	1.366	12	29	236
1908	610	78	688	283	31	18	142	1.081	12	33	353
1908	731	78	809	421	46	17	1411	849	13	20	571
+1906	675	56	731	331	30	5	143	1.007	11	31	356
1911	740	62	802	-	-	-	-	907	-	-	226
1919	-	-	802	-	52	17	141	906	13	-	226
1920	-	-	823	-	35	13	133	707	9	-	299
1925	792	73	865	554	24	-	147	805	9	-	399
1938	730	98	828	715	-	-	-	1.496	-	17	150


XIX.aren bigarren erdialdean eta XX. mendean protagonismoa aldatu egin zen eta behia bihurtu zen baserriaren aberastasun.

Urtea	Behiak	Idiak	Guztira	Txekorrak
1830? ¹²¹	342	146	488	-
1886	555	100	655	214
1908	610	78	688	283
1908	731	78	809	421
+1906	675	56	731	331
1911	740	62	802	-
1919			802	-
1920	-	-	823	-
1925	792	73	865	554
1938	730	98	828	715

Datarik gabeko -ziurrenez, 1830eko hamarkadako- lehenengo estatistikak industriaurreko ekonomiaren datuak ematen dizkigu. Kaskoko 50 etxe-baserrik behi-ganadua zuten. Idi guzien herena *kalean* zegoen: adibidez, Perikonean edo Posta Zaharrean, bakoitzean bina idi-pare zuten. Dudarik gabe, haien jarduera garraioarena izango zen. Aldi berean, zaldi gehienak ere, 31tik 21, kaskoan zeuden. Horrela, bada, lehen espazio periurbanoen atalean esandakoa azpimarra dezakegu argumentu berriekin. Datu horiek baita ere erakusten digute nola baserrietan esne-behiek ia ez zuten garrantzirik: esnea ez zen ia komertzializatzen eta autokontsumoa zuen helburu. Belazeen faltak eta behi *solteen* kopuru eskasak aurrekoa azpimarratzen dute. Behiak uztarria zuen helburu: laboreen lanetarako, eta karroaren trakziorako; eta lan gogor horiekin eta bertako behi gorriarekin ez zegoen esne asko ateratzerik.

¹²¹ Sorabillarik gabeko datuak dira. Andoaingo Udalaren teknikari jarraitzen badiogu, beste batean, datarik gabe, kontatu gabe utzi baitzuten Sorabillako animaliak Goiburukoen kopuru berdina emanez, kopuru hauek izango liriteke: 89 behi gehiago (27 behi-uztari eta 35 solte) eta 25 idi-uztari gehiago.


Hurrengo datuak estatistika fidagarriagoetatik¹²² aterata daude eta behi-ganaduak eta ardiek 20ko hamarkadara arte izandako garapena erakusten digute. Hori **grafiko** honetan ikus dezakegu:



1925eko 792 behiena zenita izan zen. 1938ko datuek anomalia batzuk ekar ditzakete: gerra, hasierako gerraostea, gariaren protagonismo berria... 6 zezenetatik 3ra jaitea ere behi kopuruaren jaitsieraren seinale da. Bestalde, XX. mendearen bigarren hamarkadako gelditzea ere I. Mundu Gerraren koiunturari dagokio, eta Gipuzkoa osoan gertatu zen, haragiak eta animalia gazteek hartu zuten prezio altuagatik mataderira eta beste probintzietara asko saldu zen, eta erreproduktoreak gutxitu egin ziren.

Horrela, bada, mende batean behi kopurua %84 igo zen, eta 1886-1925 aldia harturik, 40 urtean %43 igo zen. Garai berean txekor kopurua %160 handitu zen. Datu zehatz horiek baserriak beste norabide bat hartu zuela erakusten digute.

1925eko datuek baserri bakoitzean zegoen behien berri ematen digute. Moda 4 eta 5 behien artean egongo litzateke.



¹²² 1886, 1908, 1911, 1920 eta 1925ekoak mikelteek egindako estatistikak dira eta helburu fiskala zuten. “+1906” jarri zen duena Udalak egindakoa da, eta ez du datarik, baina badakigu Silverio Olazaguirrek erosi zuela Kale Nagusiko 5eko bere etxea data horretan. Beste batzuk ez ditugu kontuan hartu, zenbakiak borobilegiak direlako. 1908ko bi estatistika daude, baina desberdintasunak dauzkate. Hau da estatistikaren amesgaiztoa!; A.G.G.-G.A.O. JD IT 2930, 25; JD IT 4231, 3; JD IT 1478, 2421; JD IT 4071, 15; A.U.A. B.8., 69H; B.8., 68H/12.

Aldaketa handiagoa da arraza mudantza kontuan hartzen badugu. 1850eko eta 1860ko hamarkadetan hasi zen sartzen *Schwitz* edo suitzar arraza Gipuzkoan, baina Yurreamendi etxe-ereduaren itxierak eta II. Karlistadak bukaera eman zioten mestizaje arrazionalari. XIX. mendearen bukaeran behi-arrazen panorama kaotikoa zen. Bertako behia zen nagusi, gorria edo Pirenaikoa, baina oso nahastuta zegoen, *degeneratua*, garaiko terminologia erabiltzearen, eta oso zaila zen behi puru bat bilatzea. XIX. mendeko azken bosturtekoan eta XX. mendeko lehenengo hamarkadetan Diputazioak ganadu suitzarraren inportazioa bultzatu zuen, eta zezen-parada sare bat eratu zuen Probintzia osoan. Lurraldea hiru alderditan banatu zen, Andoain bitartekoan zegoela, hau da, eremu bat arraza definiturik gabea. Praktikan, ordea, *Schwitz*a gailendu zen. XX. mendearen hasierako dokumentu batek erakusten du arraza-heterogeneotasun hori. Bertako gorriak dira nagusi; gero mestizoak agertzen dira; eta kasu gutxi batzuetan “E” (“*extranjera*” izango da, hau da, suitzarra): Azelain eta Baltzuketa Handian, behi guztiak; eta Ballestagin eta Izturizaga Txikian, batzuk.

Hasierako nahaste hori suitzarren alde pasako zen. Ez dauzkagu behien datuak, baina bai zezenenak. 1927an 5 zezen-parada eta 6 zezen agertzen ziren: 5 suitzar eta gorri bakar¹²³.

Zer zuen suitzarrak gure gorri *jatorrak* ez zuena? Esne produkzioa ia bikoitzen zuen, goiztiarra eta otzana zen, ondo egokitzen zen, eta trakzio lanak egiteko gauza zen. Hiru gaitasunak zituen: esnea, haragia eta lana. Gorriari, aitzitik, esne-maila eskasa; morfologikoki atzealdea garatu gabe izatea; eta basatia eta degeneratua bezala ikusten zitzaion. Hala ere, bere abantailak ere bazituen: haragia ezin hobea zen, eta leku gorabeheratsuetan lanerako ahalmen aparta zuen.

Beraz, Andoaingoazienda hazi egin zen kantitatez eta kalitatez. Aldaketa horrek esne eta haragi gehiago ekarri zuen handitzen zihoan merkatu batentzat.

Ardien estatistikek jaitsiera handia erakusten digute. Orain arte esandakotik ezin genuen beste gauzarik espero. Herri lurren jaitsierak eta larre librearen debekuek gogorki zigortu zituzten artaldeak. 1830eko estatistikek 1.442 ardi ematen dizkigute, Sorabilla kontuan hartu gabe; beraz, 2.000 inguru izango zen totala. 1925eko datuekin konparatuz ikusiko dugu %60ko jaitsiera egon zela mende batean. 1886-1925eko aldia kontuan harturik, jaitsierak %41 gainditzen du. 1938ko hobekuntzak beste kontestu batean koka genitzake.

¹²³ Zezenek beren izena izaten zuten. Suitzarrak ziren Goikoborda (Agerre Borda baserrikoa, Felipe Jaureguirena), Oria eta Buruntza (Larramendi Txikiakoa, José Antonio Ansarena), Iru (Izturizaga Txikiakoa, José M^a Oyarzabalena), eta Ventas (Kale Nagusian, Setien alargunarena). Gorri gaixoak ez zuen izenik, eta Setien alargunarena zen. 1925ean, bi urte lehenago, 4 zezen 2 partetan agertzen ziren: bi Larramendi Txikian eta beste bi Galardin. 1938an 3 zezen bakarrik zeuden: Agerre Bordan, Larramendi Txikian eta Izturizaga Txikian. A.U.A., B.8., 68H/10; B.8., 68H/12.

Artaldeak ez ziren, behiak bezala, igualtsu banatzen baserri guztietan; alderantziz, oso baserri gutxitan kontzentratzen ziren. Baserri horiek maila altuan kokatzen zirenak eta menditik gertu zeudenak ziren: Urrizti, Baltzun Handia, Baltzun Txikia, Presaburu, Idoiaga, Sagastibeltza, Pagarte, Garate eta Arrantzu Erdikoa 1925ean. Ordea, 1830ean, Sorabilla kontuan hartu gabe, artaldeak zituzten 34 baserri zeuden.

Horrela, bada, Gipuzkoa guztian bezala, nekazaritzaren aldaketa horietan guztietan kaltetuen ardi ganadua izan zen.

Ahuntz ganadua krudelkeriaz pertsegitua izan zen Gipuzkoa osoan. Ezin zen 2 ahuntz baino gehiago izan; lotuta egon behar ziren; eta patente berezi bat zuten. Ez zegoen Gipuzkoan lekurik omniboroak ziren ahuntzentzat. Horregatik, datuen pobrezia: 9 ahuntz Andoain guztiarentzat, 5 baserrian banatuak. Gipuzkoan ere ez ziren 800era iristen¹²⁴.

Zaldi ganaduak ere oso garrantzi txikia zuen baserrietan; horregatik, ganaduzaleen kezak ez zituzten kontuan hartu ez Udalak ezta Komisio Probintzialak ere. Garrantzirik handiena kaskoan zegoen, han erabiltzen zelako trakzio lanetarako edo industriarako. Zaldi gehien zuten baserriak ere menditik gertu zeudenak ziren: Igeluts, Pagarte, Idoiaga eta Txertueta. Gauza bera esan daiteke **mandoei** buruz; guztira ez ziren heltzen bi dozenara, eta baserrietan zuten garrantzia hutsa zen.

Kontrakoa esan daiteke **asto ganaduari** buruz. Asto apala aurrerabidearen eta merkatura irekitzearen ikurra izan zen, gure gaurko ikuspegitik paradoxikoa bada ere. Emakumeei egindako mesedea ikaragarria izan zen. Datuetan erreparatzen badugu, ikusiko dugu nola 1886 eta 1908 artean asto kopurua bikoiztu egin zen, eta maila horretan mantenduko zen, 140-150 astotan. Gipuzkoako datuek baieztatzen dute Andoaingoa. Ia baserri guztietan zegoen astoa: esnea, arrautzak edo barazkiak merkatura eramateko. Hauxe zioen Roke Esnalek: “Buruntzaldetik, astoak esnez zamatuta, kaleko etxeetat aparte Donostiara ere orain ehun urte joaten ohi ziren, gero tranbian eta geroago trenez”¹²⁵.

Txerriek zenbaki kontraesankor eta aldakorak ematen dituzte¹²⁶. Zifrek esaten digute gizontzeko txerri kopuruen igoera handia izan zela, baina estatistika horiekin ez litzateke oso zuzena izango ondorio matematikoak ateratzea. Hor daude

¹²⁴ BERRIOCHOA, Pedro: “Política anticabras de la Diputación de Gipuzkoa durante la Restauración”. *RSBAP*. LXII.2. 2007.

¹²⁵ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Baserria”, *Op. Cit.*

¹²⁶ Ziurrenik, kontatzeko erabiltzen ziren kriterioen arabera izango da: batzuetan, txerrikumeak kontuan hartuko ziren, eta beste batzuetan, berriz, ez.

datuak. Txerramen estatistika ere nahiko okerra da, baina erakusten du oso baserri gutxi zituztela. Normalean, feria eta merkatuetan erositako txerrikumeak gizentzen ziren. Txerria animalia marjinatua zen ukuiluan, eta emakumeak zaintzen zuen, baina elikaduran oso garrantzi handia zuen. Ia baserri guztiek, baita kaskoko etxe askok ere, txerria gizentzen zuten. Gero, bazeuden zenbait etxe eta baserri ere 9 txerri gizentzen zituztenak, harakinari saltzeko. Horrelako kasuak ditugu: Gorostegi etxea, Aranluze, Baltzun Handia, Urbistondotarren Bazkardo, Sorabillako Bazkardo edo Irigoien Azpikoa.

Nahiz eta ganadua ez izan, garai hartan **nekazaritza industriaren** alorrean sartzen zituzten. Oiloak ere baserriaren lekukoak ziren: kotara igota, ukuiluko edozein lekutan, hantxe zeuden, horiek ere andrearen domeinuaren azpian. Emakumeak arduratzen ziren, era berean, haien produktuak (arrautzak eta oilaskoak) merkatura eraman, eta sos batzuk ateratzeaz. Gutxitan joaten zen hegaltia baserriaren platerera, jai bereziren bat ez bazen. Bakarrik 1925eko datuak ditugu: 4.419 oilo guztira. Baserrietan pare bat dozena izaten ziren normalean. Zenbait etxe eta baserri espezializatuta omen zeuden: adibidez, Gorostegik, Aranluzek eta Arrantzu Goikoak 3 digituak gainditzen zituzten.

Untxiak oraindik ia atzerriarrak ziren baserrietan. Gehiago izaten ziren herriko etxeetan. 1925ean 98 koneju zeuden Andoainen, 21 etxe eta baserrian, eta ez zegoen ezta bat ere espezializatuta haien ustiapenean.

Usoak lau baserrian bakarrik zeuden, eta 8 ale gehienez: Txitibar, Eguskitza, Ilarramendi eta Tejerian.

Alderdi hau¹²⁷ bukatzeko, 1910eko berri batek dio behi eta txerri ganaduaren feria egoten zela hileko hirugarren ostegunean. Hiltegian 4 abelburu akabatzen ziren egunero 1913an, baina 1920an jada 6 ziren. Txekorren pisua, hiltegian, 125 kg-koa zen, eta txerriena, berriz, 70 kg-koa. Hiltegian akabatzen zen ganadua bertakoa zen, eta behi-ganadua esportatu eta inportatu ere egiten zen; txerria, ordea, saldu egiten zen kanpora, Donostiara.

Esne ekoizpenari buruz, I. Mundu Gerraren bukaerako datuak ditugu¹²⁸: urteko, 2.277.600 litro behi-esne, 29.070 litro ardi-esne, eta 1.800 litro ahuntz-esne.

¹²⁷ A.U.A., B.8., 29H/5

¹²⁸ Asociación de Ganaderos del Reino elkarteari bidalitako datuak dira eta ez dute datarik, baina esnearen prezioagatik (0,30 pezeta/l) garai horretakoak dira.

Behi-esnearen prezioa I. Mundu Gerraren aurretik 0,18-0,20 pezeta/l-koa zen, eta hamar urte lehenagotik egonkortuta zegoen. Gerra bukatu zenerako bikoiztu egin zen, 0,4ra, eta 20ko hamarkadan horrela jarraitu zuen. Behi-haragia ere bikoiztu baino gehiago egin zen: 1,5 pezeta/kg-tik (1914) 3,40ra pasa zen (1919), eta garestitzen joan zen 20ko hamarkadan: 3,00 pezeta (bigarrenagoa hezurra-ekin) eta 5,6 (solomoa), 1927an. Ordea, kontrako kasua urdaiari gertatu zitzaion: 2,5 pezeta/kg balio zuen 1906an eta 1,5, berriz, 1923an. Arrautzak ere izugarri igo ziren gerra koiuntura hartan: 1,15 pezeta/dozena 1914an, eta 3,5 berriz, 1919an. Horrela, baserriko produktuen prezioak bikoiztu edo hirukoiztu egin ziren. Hori nekazariarentzat oso mesedegarria izan zen; haien errenta asko igo zen eta baserrietan diru likidoa ikusten hasi zen.

Baserriko beste produktuek ez zuten garrantzi handirik. 1906ko berriek dioteenez, bakarrik 6 artzainek egiten zuten gazta: guztira kilogramo bateko 500 bat gazta urtero. Gantzak ere ez zuten garrantzirik: hamar batek ekoizten zuten, 400 kg urtero. Igualtzu, erlategiei dagokienez: 10 pertsonak ekoizten zuten, guztira 100 bat kilo. Bukatu ziren garai haiek, erleek lan eta lan egin behar zutenekoak, etxeko hildakoen sua sepulturaren piztuta egoteko.

3. ALDERDI SOZIOKULTURALA: BASERRITARRA.

3.1. *Lanak eta egunak*: pobrezia eta beharra.

Aurreko atalean ikusitako faktore material eta ekonomikoetatik ondorio garbi bat atera genezake: baserritarrak zeraman bizitza lanean eta pobrezian murgilduta zegoen. Lanbidearen beraren izenak ere *-nekazari-* garbi erakusten du bere erroa, eta oso adierazkorra da. Beraz, edozein apologeta salatzen du.

XIX. eta XX. mendeetako literatura jakin batek eta politikako zenbait joerak nekazari libre, kristau, estoiko, indartsu eta independentearen mitoa azpimarratu zuten, eta azpimarraketa hori beste mito zahar batzuk apurtzen ziren garai berean egin zen. Ordura arte oso gutxi goraiapatua izan zen baserritar xumearen itzal homerikoa. Hala ere, industrializazio bortitza, immigrazio bolada eta urbanizazio azkarra etorri zirenean, baserritarraren garaiera handitu egin zen. Oinetxeko ideologiak beste elementu berri bat aurkitu zuen, eta gehienbat urrutiko herri eta hirietan bizi ziren idazleek altxatu zuten; horiek baserriaren errealitatekanpo bizi ziren, beren amets erromantikoetan murgildurik, nostalgiaz blai eginda. Baina, irakurle, ez dagokigu guri lan xume honetan hori guztia aztertzea. Gainera, mito guztiek beren egia duten bezala, baserritarrak bere handitasuna ere bazuen, eta irakurleak lan guztian zehar ikusiko du harenganako gure miwesmena. Dena dela, zenbait *señoritos* beren kabinetean marraztutako irudia errealitatekanpo dago

eta paradoxikoa da. Baserritarrek ia sekula ez dituzte goraiapatu beren bizitza eta baserriko lana, zuzenean, eta are gutxiago bertsolari baserritarrek. Irudi hori eman dutenak dira hiriko politikariak, apaiz moralistak, poetak, legendazaleak ziren idazleak, *estampa vasca* bukolikoen bila hiritik joandako kazetariak... Inork baino hobeto deskribatzen du Caro Barojak diskurtso horren jatorria:

“La visión idílica viene de la contemplación del paisaje rural, del case-río, de la vida agrícola y pastoril, de las fiestas y romerías en iglesias y ermitas campestres y de ciertas calidades líricas del idioma. La visión idílica la tienen ya algunos viajeros de otro tiempo. Es la que gusta a los folkloristas, a los poetas, a los moralistas e ideólogos de cierto tipo, porque da una idea de “pureza”, “primigeneidad”, inocencia, que se ajusta también al viejo tópico de la Edad de Oro”¹²⁹.

Horrela irakur dezakegu Andoingo baserriari buruz egindako begiradan:

“Argazki zaharrek erakusten duten baserri giroaren aire bukolikoa desmitifikatu beharra ikusten da mahainguruan. Baserri bizimodua, <triste eta gogorra, inoiz bukatzen ez zen lana baitzen> diote, aho batez. Euskal lurren ustezko aberastasun naturala ere gezurtatzen du Ormaetxeak, <nekez tartekatzen ziren uzta onak eta txarrak. Beti ziren uzta txarrak>”¹³⁰.

Hori ere ez dator bat ikuspegi mitiko harekin. Hesiodok, Greziako poeta arkai-koak, *Urrezko Garaia*ren mitoa ezarri bazuen, beste errealitate baten egilea ere bada: *Lanak eta egunak* da haren idazti xeblearen izenburua, eta hori hobeto doakio hemen deskribatuko dugun egoerari.

Ramiro de Maeztu gazteak, sozialista *enragé* zenean, baserritarra deskribatu zuen, esanez baserritarrak bazeukala *“la potencia trabajadora del yankee y la sobriedad del árabe. Para lograrlo se ha inventado la teoría de los buenos usos y costumbres y el cura se encarga de velar por su cumplimiento”*. Iritzi oso kritikoa hori ere.

Oscar Lewis pobrezia desberdinetan espezializatu den antropologoa da. Berak pobrezia eta pobrezia kultura bereizten ditu. Azken hori ikertu du latinoamerikar hiri handietan: pobrezia desegituratua eta integrazio faltakoa. Horrekin kontrajartzeko, Lewis ek europar erdiko klase pobretua edo Europa ekialdeko judutar herrixkena planteatzen ditu¹³¹. Eskema orokor hori baliagarria da baserriaren

¹²⁹ CARO BAROJA, Julio: *Vasconiana*, Donostia, Editorial Txertoa, 2. argitaraldia, 1974, 185. or.

¹³⁰ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Baserria”, *Op. Cit.*

¹³¹ Soahen desagertu zen yiddish hizkuntzaz hitz egiten zuen judutar mundu aberats hori bere nobeletara ekarri du Isaac Bashevis Singer 1978ko Nobel saridunak.

mundu antropologikoa ikasteko. Pobrezia ekonomikoaren munduan murgilduta gaude; askotan, Lewisek plazaratzen duena baino gogorragoa; baina ez gaude sartuta pobreziaren kulturaren.

Izan ere, baserriko bizitza estu eta behartsuak herri kultura –kultura, azken finean– aberats bat zeukan, bere erritu, legenda, jaiez osatutako egutegia, zelebrazioak, erlazio sozial sare aberatsa, eta abar: bere mundu-ikuskerak. Baserri-tarra ez zen, noski, gizartearen erdigunea, baina ez zen figura marjinala ere; espazio bere-berea zuen, eta espazio hori ez zen hermetikoa, baizik eta osmotikoa (askotan uste dugun baino gehiago), eta beste eremu *kultu* eta urbano batzuetan parte hartzen zuen.

Elizaren eraginak, Dekalogoaren itzalak eta tradizioaren ondorioak oso balore indartsu eta sakonak zituen hierarkia-sistema bat ekarri zuten, non jaiak, erri-tuak, usadioak, usteak, sinismenak, otoitzak, eta lanak txertatzen ziren: “*Los buenos usos y costumbres*”, Maeztuk aipatzen zuena, literatura foralista erridikulizatuz.

Hala ere, ez da nahikoa bizitza zuzen bat eramatea, ezta oinarri moral sendoak izatea edo *usadio eta ohitura* onei jarraitzea ere, bizitza lasai bat eramateko. Bai apologetak bai kritikoak ere bat datoz puntu batean: baserri-tarraren bizitza gartxua (“*morigerada en el gasto*” errepikatuko dute). Egia zen, kanpoko kontsumoa oso txikia zen, handitzen joan bazen ere, eta autarkia, berriz, handia. Bidezidor *xuxen* horretatik ateratzen zirenak, akabo! Hortxe zeuden baserri-tarraren tentazioen mundua: feria, apustuak, sagardotegia... Beste batzuetan, askotan, zoritxarra zen familia eta baserria hondamendira eramaten zituena. Ikus ditzagun adibide batzuk:

1. Sebastian Sarasolak 75 urte zituen, alarguna eta nekazaria zen, eta testamentua egin zuen 1876ko abuztuaren 26an¹³². Francisca Yerequirekin ezkondata egon zen, kapitulazioak egin gabe. 9 seme-alaba izan zituzten, baina 8 hilda zeuden. Bakarrik bizi zen eta Josefa Aranak zaintzen zuen azken hilabeteetan (eguneko 2,5 pezeta ordaintzen zion: ez batere gaizki!). Maizterra zen, 324 pezetako zorra zuen errenta zela-eta, baina bakarrik 200 pezeta zituen metalikoan (eta hori gurdia eta beste zenbait gauza saldu eta gero). Gainera, 530 pezetako zorra zuen zenbait kreditu txiki zirela-eta, eta zorretan zegoen Sebastian Gaztañaga dendariarekin “*por dineros y generos*”. Zegoeneko ganadurik ez zuen (dena salduta, dudarik gabe); gauza hauek bakarrik zituen: 6 anega gari, 2 anega baba handi, eta 0,5 anega arto ereinda. Bere bizitza luze eta penagarriaren ondarea hauxe zen: 14 maindire, 6 almoada-estalki, 4 kol-

¹³² A.G.G.-G.A.O., PT 3498, FLORENCIO SARASOLA, 1876.

txoi, 4 ohe itxurakoak (“*cuja*” dio, hau da, oholez egindako etzalekua), 1 kutxa, 2 armairu, 1 baul, 4 ohe-estalki, 4 mahai, 6 aulki, 6 galtza-pare, gizonezkoen 11 alkandora, emakumezkoen 7 alkandora, 3 zapi, 1 aho-zapi, laratza, su-atzeko eta ondoko burdinak, 6 plater, 2 pertz, 2 zartagin, eta 1 txizontzi.

Agure gaixoa! Ondasunen bostena bere zaintzaileari uzten zion, eta oinordeko, berriz, bere alaba bakarria ezartzen zuen, Sebastiana. Zer geratuko zen, zorrak izan ezik? Hala eta guztiz ere, Sebastian gaixoak bere pobrezian eta bere oinazepean erlijio mandatuak uzten zituen:

“Que encomienda el alma a Dios nuestro Señor y el cuerpo a la tierra de que fue formado el cual hecho cadaver quiere sea enterrado en el campo santo de esta villa ó del pueblo en el que falleciere con funerales de segunda clase, debiendo celebrarse tres misas en la parroquia de esta villa una en el altar de San José, otra en el de la Dolorosa y otra en el altar de la Virgen del Rosario”.

2. José Manuel Elizondo Alzagaren –nekazaria eta Asuko maizterra– eta Catalina Echeverria Ormazabalen arteko kapitulazioak dira. Azken hori gurasoekin dator, eta hura, berriz, amarekin, eta amak honela dio:

“declara que su marido y padre del contrayente, D. Juan Bautista Elizondo, se ausentó de la casa conyugal hace próximamente ocho años, dejando a la declarante sumida en el mayor abandono, entregada a sus escasos recursos para atender a la subsistencia y educación de siete hijos que procrearon durante el matrimonio; que presume con algún fundamento que haya fallecido su indicado esposo, puesto que no tiene noticia alguna de su paradero, si bien no le ha sido posible hasta ahora comprobar la defunción del mismo; que después de la ausencia de su expresado marido, el contrayente D. José Manuel ha atendido y atiende con su industria y trabajo al sostenimiento de toda la familia; y siendo de todo punto necesaria la continuación de este en la misma, porque de lo contrario la D^a Angela Alzaga y sus hijos se verían espuestos a la mayor indigencia, en razón a que los pocos muebles, ganados y demas existencias de la casería Asu en que habitan son de la pertenencia de D. José Manuel Elizondo; pues que los bienes que aportaron al matrimonio la D^a Angela y su marido se consumieron antes de la ausencia de este”.

Ama horrek bere seme José Manueli herenaren eta bostenaren hobekuntza ematen zion (nahiz eta lehenago esan ondasunik ez zeukala), baina maio-razko gizajoak erantzukizun guztiak hartzen zituen bere gain: ama eta anai-arrebak elikatu, jantzi eta gaixotasunetan zaindu (azken horiek berarekin bizi ziren bitartean), eta amaren elizkizunen eta ehorzketaren gastua. Ez hori bakarrik: arrebek 6 hilabeteeko jostun ikasketen gastuak ordaindu, eta amaren 680 pezetako zorra kitatu. Familiaren kapitala 1.270 pezetakoa zen, honela banatuta: 5 abelburu eta 2 txerri (960 pezeta), lanabesak (60 pezeta)

eta altzariak (250 pezeta). Eskerrak andregaiak arrio¹³³ dezentea zekarrela (baina doterik gabe), batez ere, arropatan, 1.095,75 pezetetako balioarekin. Catalina andregaiak bakarrik zekien idazten. Dударik gabe, amodiozko ezkontza izan behar zuen.

3. Dena dela, baserriaren hondamendia baserri *fuerte*etara ere etor zitekeen; askotan, zoritxarra besterik ez zen behar. Eusebio Zatarain Irazu¹³⁴ bizirik atera zen azken gerra zibilean baina gaixotasunak (ez zen gauza izan bere testamentua sinatzeko: “*por impedirse lo su enfermedad*”) 42 urterekin eraman zuen bizitza honetatik 1896an. 1887an ezkondu zen Juana Bernarda Gaztañagarekin, eta 5 seme-alaba izan zituzten. Bera hil zenean, bere seme maiorazko Candelariok hamar bat urte izango zituen. Familia aberats samarra zen: Sorabillako Bazkardo eta Bazkardo Txiki bereak zituen, eta gainera, borda bat eta lursail galantak. Zorrak ere galantak ziren, ordea: bi belaunalditako legitimak zor zituen, eta mailegu asko zituen eskatuak (adibidez, bere osaba Aszenziori 13.500 pezeta zor zizkion: asko, gehiegi). Baita ere zor zien merkatariei, kinkila-saltzaileei, jabeei, nekazariei eta abarrei, bai eta morroiari ere. Beraz, bere seme Candelario utzi zuen maiorazko, herenarekin eta bostenarekin hobetua¹³⁵. Andreari usufuktua eman zion, baina horrek saldu egin behar izan zion Francisco Cipitria Munitari (“*empleado de particular*”), dena 40.250 pezetan, 6 hilabete beranduago. Garbi dago, txokolategilea edo “*empleado de particular*”, nekazaria izatea baino errentagarriagoak ziren.
4. Beste batzuetan, ezbeharra ekintza biolento batetik etor zitekeen. Horrela da Manuel Arbiza Aranaren kasua (hori ere 42 urtekoa, ezkondua eta nekazaria), baina kasu honetan hau diote: “*gravemente enfermo á consecuencia de heridas recibidas á mano armada en el día de ayer*”¹³⁶. Kasu arraroa da, garaikide guztiak bat datozelako Gipuzkoako delitu tasa¹³⁷ oso txikia zela esatean. Notario-dokumentuek ez dute ezer gehiagorik esaten, baina bazegoen garai hartan ere Kainen bat.

¹³³ A.G.G.-G.A.O., PT 3427, MIGUEL LANZ, 1880. Catalina Echeverriak gauza hauek zekartzan: ohea komodarekin eta baula (80 pezeta), lastozko 5 aulki (20 pezeta), 3 koltxoi, 2 almoada, eta 1 almoada handi (125 pezeta), lastaira (9 pezeta), puntuzko ohe estalkia (30 pezeta), 4 “*ohazales de lienzo*” (56 pezeta), oihalezko 4 izara (40 pezeta), fabrikari egindako 2 izara (16 pezeta), 5 almoada handi (12,5 pezeta), beste 4 almoada (8,5 pezeta), etxeko oihalezko 2 almoada (7,25 pezeta), 7 toaila (7,5 pezeta), 1 mahai-zapi eta 6 aho-zapi (8 pezeta), 6 eskuzapi zuri (3,75 pezeta), emakumezkoen 6 alkandora (30,75 pezeta), gizonezkoen 5 alkandora (45,5 pezeta), emakumezkoen beste 4 alkandora (20 pezeta), gizonezkoen 1 alkandora (6 pezeta), eta sukaldarako zenbait gauza (40 pezeta).

¹³⁴ Ezaguna dugu Eusebio Zatarain, Bazkardoko mandioko lanabesak ikusi baititugu. Badakigu Zataraindarrak salbuespena zirela baserriaren artean, liberalak baitziren. Ezagutzen ditugu haren osaba Ascensio, konfiteroa eta elizako maiordomoa, eta haren lehengusu Luis Irazu, hori ere txokolategilea, biak testamentu-betearazleak eta partitzaileak izendatuak izan baitziren. A.G.G.-G.A.O., PT 3753, MIGUEL LANZ, 1896ko 2. SEIHILEKOA eta A.G.G.-G.A.O., PT 3762, MIGUEL LANZ, 1897ko 1. SEIHILEKOA.

¹³⁵ Bitxia da hobekuntzaren kasua, zeren eta Kode Zibil berriak 10 urte zeramatzan indarrean, eta oraindik Toroko Legeen arauak aplikatzen ari ziren.

¹³⁶ A.G.G.-G.A.O., PT 3426, MIGUEL LANZ, 1879. Arbizak bere seme zaharrena, José Miguel (12 urte), herenarekin hobetu zuen, eta bigarrena, berriz, Juan Rafael (7 urte), bostenarekin. Nahiko bitxia biak hobetzea. Hilzorian aurkitu arren, dotorezia handiarekin sinatu zuen.

¹³⁷ Kriminalitate sagardotegiei eta bertsolariei lotua agertzen zaigu; Antonio Zavalak zenbait kasu jasotzen ditu. Txirrita bera ere hilzorian egon zen labankadaz zauritu zutenean.

5. Kasu guztietan errealitatearen eta zenbakien pobrezia estalita ikusten da notario-eskriturek apaintzen duten lengoia juridiko dotorearen azpian. Hau da, kasu gutxitan azaleratzen da egia: bigarren kasuan ikusi dugu nola kanti-tate urriekin sortzen diren hobekuntzak, legitimak, inbentarioak, partitzaileak, testamentu-betearazleak, familia-sozietateak, arrioak, doteak, eta abar. Horrelako kasu bat dugu emakume maiorazko baten kapitulazioetan. Manuela Josefa Garmendia Mugica 18 urterekin ezkontzera zihoan Ignacio Loinaz Arrillagarekin, eta biak joan ziren notarioarengana beren gurasoekin. Neskaren gurasoak maizterrak ziren, baina bazituzten ganadua, altzariak, etxeko gauzak eta lursail batzuk¹³⁸. Dena 5.000 pezetan baloratua, zorrak kenduta; ez zen gutxi maizter izateko. Gurasoek alaba eta suhiarekin familia-sozietatea eratuko zuten, eta haiek hau diote:

*“ni es su ánimo mejorar á su hija la contrayente con perjuicio de los demas hijos; pues aunque aparece ser el valor de los bienes donados mayor que lo adjudicado á los otros dos hijos, realmente no es si se atiende á las cargas con que ésta donación se hace, siendo lo probable que en vez de resultar mejorada la donataria, sea perjudicada”*¹³⁹.

Kasu horrek adierazten digu zerbait zutenen artean ere pobrezia sentsazio hori ez zela aldentzen erabat. Maizter behartsuen artean, pobrezia, inseguritate, eta diru metaliko ez izan eta kaleratzearen beldurra gehitzen zaizkio. Kasu gehienetan, dena kontuan hartuta (ganadua, altzariak, lanabesak, arropa, eta etxeko gauzak) 2.000 pezetara ez zen iristen patrimonio guztia, eta hortik atera behar zen dena: legitimak, doteak, arrioak, lanbide ikasketak, Amerikarako bidaia, soldaduskarako erredentzia... Errealitate horren atzetik, noski, ezinbesteko zorrak zeuden.

3.2. Bizitza eta erritu-pausoak.

Nekazari bizitzaren zikloan hiru aldi bereiz genitzake, antropologok ezarritako erritu-pausoen arabera. Erritu-pausoak bi bizialdi desberdin markatzen eta bereizten dituzten ekintza formal batzuk dira, eta Van Genep antropologoak definitu zituen 1909an. Erritu-pauso horiek, jakina denez, erlijioari zuzen-zuzen lotuta zeuden.

¹³⁸ Lehen, propietatea landu dugan garaian esan dugu nola maizter askok *lur solteak* zituzten. Kasu honetan aipatzen dira: soro-lur bat sagarrondo berriekin (“Luberri-chiqui”), otadi bat gartzainondo eta intxaurrendoeekin (Garagarza Goikoaldea), eta otadi bat (Learburu alde).

¹³⁹ Manuela Josefa beste bi anaia zaharrago zituen: Pedro Jose “*al cual le dotaron convenientemente cuando se trasladó a Ultramar, habiendo además costado su viaje*”, eta Jose Ignacio, ezkongabea, 24 urtekoa, Ordizian bizi zena, eta 550 pezetako legitima jaso zuena. Gazteena, neska, 18 urte besterik ez, eta maiorazkoa. Hortik, agian, gurasoen haserrea. Manuela Josefak gurasoen bigarren klaseko hileta elizkizunak ordaindu behar zituen, eta José Ignacio onartu behar zuen, etxeratzen bazen. Haren gizona taxuzkoa ematen zuen: ez zioten legitimarik eman, baina “*por su industria*” 500 pezeta, idi-pare bat (itzaina izango zen), eta Hernaniko Zilegi mendiko akzio bat ekarri zituen.

1. Jaiotzarekin batera **bataioa** zetorren. Hori ahalik eta lasterren gertatzen zen, zeren eta haurren heriotza tasa handia zen, eta linbo ilun eta zehaztugabearen beldurra presente zegoen etxe guztietan. Bataioa ez zen ospatzen, eta oso zeremonia arrunta zen. Ez zen gauza handirik behar: aita-ama pontekoak, lekukoak, eta apaiza; eta, noski, umea. Bataioa sakramentu garrantzitsua zen, eta da, Elizarentzat eta baita haurarentzat ere. Horrek izena (mutila bazen, Andoainen Juan Bautista izateko probabilitate handia zeukan) eta identitate sozial bat ematen zizkion: Elizaren kide eta Jaungoikoaren seme edo alaba bihurtzen zen. Gainera, baserriak –jabea edo maizterra izan, berdin zuen horretarako–, abizena baino garrantzi gehiago zuen giza identitatea ematen zion. Uraren eta gatzaren bitartez egiten zen erritu hori, XX. mendera arte, amaren *Benedictio post partum*arekin azpimarratzen zen, hau da, amaren *elizan-sartze*arekin eta haurraren aurkezpenarekin. Ordura arte ama ez zen etxetik irteten, eta ateratzen bazen, teila baten azpian egiten zuen, teilatuaren eta etxearen asoziazioa azpimarratuz. Etxeberria, Caro Baroja, eta beste asko, bat datoz ohitura singular horrekin. Etxeberriari, 50 urteko berriemaile batek hauxe esaten zion 1925ean: “Orain nolahi aterata ibiltzen dira”. Zeremonia horretan amak ogizko errokoa eta argizaria eskaintzen zituen¹⁴⁰.

Hurrengo 12 urteetan haurraren ikasgai aroa garatzen zen. Amak edo amonak erakusten zizkion bizitzaren oinarriak, erlijioarenak, batez ere: otoi-tzak, doktrina, ezagupen moralak. Bide batez, baserria eta etxeko lanak ikasten zituen. Aldi berean, soziabilitatea sendotzen joaten zen bere inguruko beste baserriarekin, bere adineko neskato-mutikoekin, batik bat, jolas eta elkarrizketen bitartez. Lanak ere hantxe zeuden, beti gertu: iturritik ura ekartzen, itulan, lan txikiak egiten, nagusiei soroan laguntzen, beti zerbait ekartzen edo eramaten (jakina da nagusiei beti zerbait ahazten zaiela eta beti behar dutela norbait aginduak emateko), etxeko zeregin ugarietan amari laguntzen (neskatilen kasuan)... Sei urterekin, teorian, eskolan hasi beharra zegoen: doktrina ikasten zen han, edo elizan lehen jaunartzea egiten zen (garrantzi handirik gabe); eta neska-mutikoak bizitza sozialagoa eramaten hasten ziren.

Horrela ikusten zituen urte haiek Agustín Zinkunegik:

“Oso ume nintzala asi nintzan egunarekin bateratsu jeiki eta aitonarekin soro-lurretan, eta lur lantze izugarriak egin bear izaten ziran. (...)

Epaillearen lenengoetan asi eta maiatzean artoak ereiten amaitu arte, soro aietan zear jira ta bira, *aida* ta *oo*, jira bera ta jira gora. Txutxen ez bannijoan, zer oiua!

¹⁴⁰ “Umea bataiatu eta handik astebetera edo aste parera izaten zen elizan-sartzea: amak umea elizara lehen aldiz sartu eta Jaunari aurkezten zion umea. Batez ere, emakumezkoek dute gogoan nola egun hori iritsi arte amek ezin izaten zuten kalera aterata.” (...). “Esaten zuten ama garbitzeko zela” (Loren Navarro) MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Erljioa”, *Op.Cit.*

Aitonak atzetik:

Motell, lo al ago? ezin al aiz txutxenago joan?

Eta, ganaduen urre xamar ez bannijoan, buru-larrua lotzen daramaten sokari zati bat askatu eta, ari eskuarekin elduta joan bear.

Loak artzea ere gerta zitekena zan antxe, txutik nenbillen lekuan. Zortzi-bederatzi urteko mutikoa, eta eguzkiarekin batera sorora joan bearra, askok uste baño gogorragoa zan. Egunak, asteak eta illak antxe, soroan jira ta bira. Zailla da guztiz bizikera ura bezin gordin azaltzea. (...)

Lenengo, eskolarako jazten genituen jazkiak aldatu. Atze-aldean zulatutako galtza zarren batzuk eta soka bana artu, eta erreka aldera surtarako egur billa. Txikitu, sua egin da gaztaiñak erre. Gaiñera, sukalderako ura ekarri iturritik, eta abar.

Udaldian lan asko da baserrian: arta-jorrak, belar ontzeak... Bietatik ere sail ikaragarriak zituan basetxe orrek.

Bagenduan orduan ere oso garrantzizko lan bat: txarroa artu eta Lixarbeiko iturritik ur preskoa eramane sorora edo belardira, lanean ari zan lekura. (...)

Goizetan, aita beiak jezterako, oiñetakoak jantzi ta prest egon bear, beiak eta asto txikia artu ta etxe aurreko otadira larrera eramateko; eta antxe egiten zituzten ordu pare bat, alik eta eguzki beroak edo euliak jotzen zituzten arte. Geientsuenetan berak etortzen ziran etxera, erreka aldeko gaztain ostroetan euliei aztindu bat emanda. (...)

Illuntzean ere berdin: beiak kanpora atera bear erreka aldeko gaztain-dira eramane eta preskuran gustora ibiltzen ziran¹⁴¹.

2. **Komunio handia** 11 edo 12 urterekin egiten zen, eta erritu horrek bizitzaren beste aldi bat markatzen zuen. Komunio txikia baino askoz ere garrantzi gehiago zuen, eta bai neskek eta bai mutilak jantzi bereziarekin jantzen ziren. Elizako zeremoniak ere beste maila bat zuen, eta etxean janari berezia egiten zen zelebrazio gisa. Umea gaztetxo bihurtzen zen, eta umearenak ez ziren beste funtzio batzuk zegozkion¹⁴². Eskola utzi egiten zen (askotan emaitza gehiegirik gabe), eta laneko aroa hasten zen. Mutilek lanabes handien maneiua ikasten zuten: aitzurra, sega, igitaia, aizkora, behiak uztartzea eta abar. Aldi berean, baserriaren mantenuaren ofizioak ere ikasten ziren: egurraren lana, igeltserotza, burdinaren erabilera arrunta... Baserria Lanbide Heziketako goi zikloarekin homologa dezakegu; horrek ahalbidetu du baserriarrak edozein lanbidetan erraz integratzea: eraikuntzan, fabriketan, artisauntzan, ikazkintzan, garraioan... José de Orueta diputatuak zioen bezala, baserriarrak “*profesores de energía*” ziren. Beste hainbeste, nesken

¹⁴¹ ZINKUNEGI, Agustín: *Bizi naiak... Op. Cit.*, 28.-34. or.

¹⁴² “Hamaika urte betetzen ziren urtean egiten zen komunio handia, komunio inportantea. Urte osoz katekesian ondo prestatzen ziren egun handi horretarako.” “Traje dotorea eramaten zen, neskek txuriz, mutilak trajez eta korbatuz, eskuineko besoan izugarrizko lazoa jarrita” (Joxemari Olazabal). “ume izatetik gazte izatera” (pasatzen ginen). MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Erljioa”, *Op. Cit.*
“Gazterik asia nintzen anai zarraren ondoren segan belar ebaten-da. Gogoan det bein nola joan nintzan ia bi orduko bidean Neusabera egurretar. Amabi urte ez nituan izango artean”. ZINKUNEGI, Agustín: *Bizi naiak... Op. Cit.*, 39. or.

kasuan: anai-arreba gazteenak zaintzen, sukaldean, haria egiten, lixiban, plantxan, txerriak edo oiloak gobernatzen, baratzean, soroan... Kasu askotan etxetik joateko garaia ere heltzen zen: mutilak, morroi; neskak, neskame. Une gogorra kasu gehienetan: etxetik leku ezjakin batera atera, eta han ohitu beharra. 12 urterekin, edo gutxiagorekin, zenbait kasutan, eta psikologorik gabe. Oraindik gogorragoa zuten ozeanoz bestaldera zihoazenean, han osabak zeudelako eta etxean soberan zeudelako. Utzi gurasoak, etxea, anai-arrebak, lagunak, herria... eta malkoak zerizkiela, joan auskalo nora: Buenos Aires, Montevideo, Habana... Gazteleraz jakin gabe... Emigrazioaren mamu beltza.

Horrela zen Andoainen ere. 1862ko irailaren 9an Josefa Legorburu, 37 urteko nekazari alargunak bere baimena eman zuen 16 eta 10 urte zituzten bere bi semeak, Francisco eta Tiburcio Blas Aristimuño Legorburu "*puedan embarcarse en cualquier puerto y embarcación que se proporcione*", zeren eta "*han determinado trasladarse á Buenos-aires (sic) al llamamiento de su tío Don Blas Legorburu*". Hurrengo urtean agertzen zaigu nola Pedro Ignacio Mugica Iturriozek, nekazari alargunak, 66 urtekoak, baimena ematen dien bere bi seme Jose Ignacio eta Ignacio Mugica Soroari, 21 eta 19 urtekoei, Habanara joateko "*á llamamiento de sus tíos D. Lorenzo y D. Antonio Soroa*"¹⁴³. 1860ko hamarkadako notario-protokoloek erakusten dute nola Tolosaldeko herrietatik ateratzen zen neska-mutil pila, batzuetan umeak oraindik, Buenos Airesera edo Montevideora. Haien gurasoak edo anaia maiorazkoa harremanetan jartzen ziren Martin Dravasa Echeverriarekin, kontratu bat egiteko (horrek Bordele eta Baionatik itsasontziak pleitatzen zituen). Ontziratzearekin aitak edo anaiak kostuaren erdia ordaintzen zuten, eta beste erdia Ameriketara zihoanak ordaindu behar zuten, handik 6 hilabetera edo urtebetera, hemen geratzen zena abal-emaitzat zegoelarik¹⁴⁴.

1876ko Foruen deuseztapenaren ondoren, beste mamu bat ere agertu zen mutilentzat: beharrezko soldaduska. Ematen du bi gerra zibilen ondoren baserritar gaixoek ezin zutela gerraren itzala ikusi ere egin, bestela ezinezkoa da nola hain familia behartsuek horrelako gastuak egitea –legitimak bezala– beren semeek zerbitzu militarra ekiditeko. Batzuetan, nekazariak bere semea behartzen zuten beste nekazari aberatsago baten edo beste profesional baten semea ordezkatzera, ordainketa baten bitartez. Adibide bezala, 1882ko otsailaren 14an, 22 urteko mutil gazte batek, nekazari baten semeak, José Lorenzo Gainzaran Zulaicak, José Joaquín Arregui Sasiain

¹⁴³ A.G.G.-G.A.O., PT 3614, OSACAR, 1862-1863.

¹⁴⁴ Kontratu horiek notarioaren aurrean protokolizatzeko ziren. Bidaia 4 ontza inguru balio zuen (320 pezeta), eta epe atzeratuaren interesa altua zen: %6koa. A.G.G.-G.A.O., PT 3386, FURUNDARENA, 1868.

harginaren semea ordezkatu zuen: prezioa, 1.500 pezeta¹⁴⁵. Soldaduska gutxi balitz, mendearen bukaeran Kubako *desastrea* gertatu zen. 1898ko uztailaren 7an aita alargun batek eta bikote gazteak osatzen zuten familia-sozietatea apurtu egin zen. Denak nekazariak ziren, eta pasiboa aktiboa baino handiagoa zen, eta zorren artean hor ikusten dugu bi semeen soldaduskaren erredentzia¹⁴⁶. Beste batzuk pobreak baino pobreagoak izango ziren, edo ausartagoak. Horrela ikusten dugu Larramendi baserriko maizterren ezkontza kapitulazioan, non aipatzen den, anaia José Manuel Orbegozo Ibarbia "*en el ejército expedicionario de Cuba*" zegoelarik, onartu egin behar dutela, eta gaixotasunaren orduan lagundu¹⁴⁷.

Gerrak utzita, heldua ikasteko urte horietan, maiorazko ez zirenek ere, ikusi dugu nola lanbide bat ikasten zuten, legitimen laguntzarekin: josi, plan txatu, hargintza, aroztogia... Beste batzuetan, zuzenki lanera sartzen ziren: Algodoneran, trenbideetan edo tranbian, eraikuntzan...

Baserriarekin geratu behar zena, nahiz mutila nahiz neska, ezkondu egin behar zen, eta ezkontza horrekin, eta sinatzen ziren kapitulazioekin, baserriari jarraipena eman, zaharrak mantendu eta lagundu, eta beste belaunaldi bat mundura ekarri behar. Horrela zen behararen legea. Maitasunarekin edo gabe, denborak estutu egiten zuten.

- 3. Ezkontza** beste erritu-pauso bat zen, eta hori igarotzean, ezkonduak etxe-kojaun eta etxeandere bihurtzen ziren: estatus desberdin eta altuago bat. Erantzukizun handia zen; familiaren erreferente bihurtzen zen etxejoauna: bere aginpide morala handia zen. Gainera, ezkontzak izugarriko garrantzia zuen kontratu ekonomikoa zekarren. Ezkonduak bikote gazteak eta bikote zaharrak familia-sozietatea eratzen zuten; elkarbizitzen ikasi behar zen; eta

¹⁴⁵ A.G.G.-G.A.O., PT 3427, LANZ, 1880. 1.500 pezetetatik 250, kaxan sartzean ordainduko ziren, eta gainontzekoa soldaduska bukatzean. Zerbitzu aktibotik kanpo geratzen bazen, ordainketa 250 pezetakoa izango zen. Semeak bere boterea eman zion aitari, dirua kobratzeko. Harginak fidatzaile bat ekarri zuen, merkatari bat, Bernardo Achaga izenekoa. Bi urte lehenago Juan Domingo Artolak Francisco M^a Aspiazu ordezkatu zuen, biak nekazarien semeak. Prezioa 1.625 pezetakoa izan zen: 125 berehala kobratu zuen, eta beste 1.500ak, berriz, %5eko interesaren pean geratu ziren soldaduska bukatu arte.

¹⁴⁶ A.G.G.-G.A.O., PT 3776, LANZ, 1898. Maizter familia pobrea zen. Aita alarguna Juan Bautista Zavala Arrastoa zen, alaba maiorazkoa Josefa Antonia Zavala Sagardia, eta senarra José M^a Inurrita Zugasti. Suiak sozietatean 2.000 pezeta sartu arren, kapitala, dote, arrio eta soldaduska erredentzioetan, kea bezala joan zen. Pasiboa aktiboa baino 10 pezeta gehiagokoa zen. Beraz, "*en vista del deplorable resultado que arroja la liquidación de la sociedad de familia y habida consideración á la ancianidad y achaques á ella consigüentes (...) de los sentimientos naturales que no es dable prescindir, se obligan a suministrar á su dicho padre, vitalmente, en su casa y compañía, los alimentos, vestido y demas que necesite y á costear á su fallecimiento los gastos de su entierro y funera*".

¹⁴⁷ Hitz horiek idazten ari den birramonaren anaia, Francisco Sasieta Zabaletak, Urretxuko Mendizabal baserriko maizterren semeak, Kubako gerran eman zuen bere odola. Horrekin zera esan nahi dugu: denok dauzkagula gure familietan horrelako *heroi* miserableak, baina horrek ez gaitu gutxitzen, ez gu biziok ezta hildakoak ere, inolaz ere. Gizaseme anonimo haiek gogoratu nahi ditugu, eta argitara eta memoriara bueltatu, erabat hil ez daitezten.

aurrera eraman behar zen etxeko zuzendaritza, eta epe errealetan kudeatu, legitimak, doteak, arriok, zor zaharrak eta berriak, eta beste betebeharrak. Hori guztia ezkontza aurreko kapitulazioetan ziurtatzen zen, notarioaren aurrean.

Geroago, eta erlijio zeremonia oso goiztiar batean gauzatzen zen aurrekoa. Jaia handia izaten zen baserrietan, kritikoentzat gehiegizkoa: kasu berezietan hiru eguneko jaia, janariz eta edariz bapo egin arte. Bien bitartean, gonbidatuak han-hemenka lo egiten, askotan mandioan nola-hala. Andregaiaren etorrera ikuskizun bat zen, topikoa, baina oso estetikoa: behi edo idi-parea dotore jantzita gurdi oihukaria arrastaka zeramatela, gurdiaren goiko puntan gorua ikusten zelarik¹⁴⁸.

Literaturak eta pinturak islatu duten irudi klasikoa. Prozesio hori askotan zuziriz lagunduta joaten zen. Baserrira heltzean, emakumeek arrioa zabal-tzen zuten. Etxekoandreak buruko zapia hartzen zuen, edo burruntzalia, bere amaginarrebarengandik, etxekoandreaken boterea adierazteko. Hurrengo elizan-sartzean, eta sepulturan, emazte berriak ogia eta argizaria eskaintzen zituen, familiako arbasoen alde; belo beltzez estalia, baserriaren sazerdotisa berriak betiko argia pizten zuen etxeko hildako guztiak gogoratuz¹⁴⁹.

Esaerak *–ezkondutako urtea–* garai ezin hobe gisa gogorarazten du, baina laster bukatzen zen amodiozko urte hori, eta hain gozoak ez ziren besteak zetozen, zamatuak: lanak, haurdunaldi eta erditze arriskutsuak, seme-alabak ilaran, nagusiekin ika-mikak, anai-arrebentzat legitimak eta zorrak, gaixotasunak, zaharren doluak (eta kasu txarretan zaharrenak ez zirenak ere), eta abar. Poz txikiak bizitza gogor baten kontrapuntuak ziren: umeak, urteko zelebrazioak, jaiak, irteera txikiak (gehiago gizonen kasuan), eta ezer gutxi gehiago.

Ez ezkontzea beste alternatiba bat zen. Gazte asko komentuan sartzen ziren. Beste aukera bat zen etxean geratzea, mutilzahar edo neskazahar. Ez zen bizitza hobea: erabakietatik baztertuta, linbo batean, guraso zaharren eta jaun-andre gazteen azpian, besteen ilobak zaintzen, anaiari legitima kobratzeko beldurrarekin... Familian zeukan txikitasuna handitu egiten zen urteekin.

Maiorazkoak eta bere andreak, edo alderantziz, aurrera eraman behar izaten zuten baserriaren norabidea. Familia *–normalean zabala–* eratu behar zen, eta aurre egin bizitzako lan eta gertakizun guztiei. Bikote zaharrek bizitza baketsua eramatea *“mahai eta laguntza berean”* ez zen erraza, eta nahiz eta garai haietan belaunaldien arteko koska hain handia ez izan, zaharrek beste

¹⁴⁸ XX. mende hasierako arri batean dagoeneko josteko makina agertzen da.

¹⁴⁹ Erritu horiek guztiak oso ondo kontatzen ditu Mikaela Elizegik, Pello Errotaren alabak, baita William A. Douglas-ek ere. ZAVALA, Antonio: *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*, Auspoaren sail nagusia. Tolosa, 1992. DOUGLASS, William A.: *Muerte en Murélagu*, Alberdania, Irun, 2003 (1970eko ingeles edizioa).

ikuspuntu bat zuten beren adin biologikoagatik. Dena den, eta kosta ahala kosta, saihestu egin behar zen familia-sozietatearen haustura. Azken zaharra hiltzen zenerako, gazteak ere zahartuta zeuden, eta nahiko lan bazuten beren seme-alaben geroa zuzentzen. Bizitzako askatasuna, sekula izan bazen, aspaldi zegoen bukatuta. Zaharren hiletak ordaindu, eta dolua pasa behar zen, anai-arrebei legitimak eman... Baserriarentzat urduritasun ekonomikoko uea zen; askotan zorpetu behar zen, eta baserria hipotekatu, jabeak baldin baziren. Maizter izanda, jabeari men egin, eta kontratuaren luzapena lortu, momentu horiek ez baitziren beste baserri batera joateko a proposenak.

Bestalde, seme-alabak hazteko garaia zen; maiorazko bat bilatu beharra zegoen, horrek emango baitzion etxeari jarraitutasuna, eta gurasoei segurantzia. Ez zen lan erraza. Seme-alaben borondatea nondik norakoa zen ikusi behar zen; askotan, seme zaharrenak ez zuen baserrian geratu nahi, aurreko protokoloen kasuetan ikusi dugun bezala. Hautagaia izan eta gero, horrek bikotea bilatu behar zuen ezkontzarako. Aldi berean, kalkuluak egin behar ziren: baserriaren ekonomia kontuan hartu, beste seme-alabei legitimak emateko; horiek tartekatu, epeka ordaintzeko (horregatik, ezinezkoa zen bi seme-alaba aldi berean ezkontzea); gehienetan maileguak eskatu; etxera zetorren bikoterearengatik dotea ziurtatu, horrekin ordaintzen baitziren gastu horiek; eta hori guztia legeriari egokitu, gero auzi judizialik ez izateko, herentzia kaskar baten banaketa gaizki egin zelako.

Gizon edo emakume izatea ez zen berdina: bakoitzak bere rola betetzen zuen generoaren arabera. Gure harridurarako, ikusi dugu alfabetizazio tasa igualtsua zela, zeren eta *–Espainian eta Gipuzkoan bertan–* gizonen aldekoa baitzen. Hala ere, komunio handia egin eta gero, betiko rol desberdinak sakondu egiten ziren: emakumearen zeregina etxe barrurantz bideratzen zen, eta gizonarena, berriz, kanporantz. Dena dela, rol horiek ez ziren mugiezinak. Emakumeak laian, ereintzan, jorraketan eta abarretan ibiltzen ziren, eta harritura uzten zituzten kanpoko bidaiariak, haien lurretan horrelako lan astunak egitea ez zelako emakumeen zeregina. Hori horrela izanda ere, emakumeak bere eremuak zituen, eta gizonak bereak. Ukuilua eta behiak gizonen lana zen, eta baita uztarriarekin egiten zirenak ere: goldatu, area pasa, garraioa eta abar, baita mendikoak ere. Emakumearen domeinua, berriz, baratzean, lihoaren lanean, txerri eta oiloen maneian, eta abarretan zegoen; eta, noski, etxe barruan: sua, bazkaria, libiba, plantxa, gelen ardura, garbitasuna.

Berdintasunezko maila bat badago ere, beste lurralde batzuekin konparatuta, batez ere, gizonak estatus hegemonikoa zuen. Ez da aurkitzen dokumentuetan matriarkalismoaren beste mito hori. Etxekojaunak bere tokia zuen, eta baserriaren *negozio* handiak egiten zituen: ganaduaren salmenta eta erosketak, egurraren salmenta, nagusiari errenta ordaindu, eta berarengandik bazkaria jaso, feriara joan... Emakumeak, berriz, gauza txikietan zuen aginpidea:

herriko merkatuan egiten ziren salerosketak, esnea banatzea... Aisialdian ere bazegoen desberdintasunik, gizonarentzat oso aldeko zelarrik: feria, igandee-tako taberna, sagardotegia, eta abar. Horiek emakumeei ukatutako espazioak ziren. Emakumeak, seme-alabez eta lanez zamatua, oso aisia eskasa zuen. Hona hemen bere adierazpen sozialaren bitartekoak: atsolorra¹⁵⁰, elizbideko auzokideekin solasaldiak, eta elizako zerbitzu liturgikoak (elizan, sepulturako espazioan zegoela, andreak beste garrantzi bat zuen, gizonarena baino handiagoa: horrek, beste gizonekin, bankuan, ez zuen ezer adierazten).

“Gizonezko eta emakumezkoen arteko arduren banaketa eman, ematen zen baserrian, baina maiz, zeregin astunetarako ez zegoen sexu ahulik. Gizonezkoena bezain beharrezkoa zen emakumezkoen lana. (...)”

“Baserriko emakumeak otordua jarri, erropa arraskan eskuz garbitu, ume koadrila ederra hazi..., eta gainetik gero, baratzean eta soroan giza-semea bezainbat moldatzen zen” (Joxepa Ormaetxea)¹⁵¹.

Gizona feriara –hirugarren ostegunean Andoainen, edo astelehenetan Tolosan– maiz joaten bazen (nahiz eta ez izan ezer saltzeko edo erosteko), emakumea azokara joaten zen (ostiraletan Andoainen¹⁵²), bere esne, arrautza, fruitu edo barazkiekin. Han ateratakoarekin erosten zituen baserriko behar ziren produktuak: kafea, azukrea, gailetak... Dena dela, esne gehiena etxez etxe partitzen zen. Oinean komentatzen den 1896ko urtarrilaren 11ko dokumentuak emakume horien lanen berri ematen digu¹⁵³, baita beren gizonetik lege

¹⁵⁰ Atsolorra edo bisita, auzoko emakumeen bilera zen, bertakoren batek haurra izaten zuenean: handik egun batzuk barru, bisita egiten zitzaion eta erregaliaren bat eraman. Ama berriak, ongi jartzen zenean, merienda anzeko zerbait ematen zuen: txokolatea, gailetak, eta anisa. Bizilagunek, berriz, oiloren bat, arrautzak, edariren bat edo beste zerbait ekartzen zuten. Esaten denez, gehiegi hitz egiten eta edaten zen, eta bukaerarako ez zuten bat bera ere tente uzten.

¹⁵¹ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Baserria”, *Op. Cit.*

¹⁵² A.U.A., A.11.VII., 40H/12. 1914ko otsailaren 14an Udalak iragartzen zuen hurrengo hiletik aurrera ostiraletan izango zela merkatu eguna, eta hori zela-eta, alkateak Plazaolako trenbidearen zuzendaritzari jakinarazten zion.

¹⁵³ 30 emakume ziren, gehienak ezkonduak, nahiz eta alargunen bat egon: “*M^a Ignacia Muñagorri de Balzusqueta-chiqui; Josefa Azpeitia de Echeverri-calzada; Juana Josefa Ayarbe de Echeberri-Burrunza; Micaela Eluztondo de Ubalategui menor; Josefa Ignacia Chinchurreta de Beletegui; Gerónima Echeverria de Ipurcaiz; Josefa Antonia Arrese de Echave; María Clara Echeveste de Illurramendi; María Múgica de Echave; M^a Ignacia de Iturbe de Labra, calle Mayor; M^a Josefa Múgica de Ondarreta; Josefa Igarategui de Galará; Micaela Zumalacaregui de Merdilledi; Ramona Beloqui de Elizagarate; Josefa Zubeldía de Echeveste; Joaquina Gorostidi de Bulano; Jesusa Ormechea de Chicharrain; Angela Múgica de Idiazabal mayor; Josefa Sasaián de Ancizu; Juana María Gurruchaga de Ancizu borda; Gabriela Iturrioz de Donechale mayor; Juana Josefa Ubillos de Becaitzegui; Victoria Iruretagoyena de Echemuno zarra; Dolores Lanzaco de Olaverria; Magdalena Tellería de Atorrasagasti; M^a Chinchurreta de Camio-chiqui; Josefa Ignacia Iraola de Chuchurtegui; Francisca Amiano de Bulano; Anastasia Echeveste de Echemuno erdicoa; Micaela Ignacia Múgica de Aspillaga*” denak Andoaingoak. Eta Micaela Antonia Zubillaga, M^a Josefa Galará eta Josefa Ignacia Zubeldía, ezkonduak, eta Urrietako nekazariak. Historiari eta historialarioi emakumea isiltzea leporatzen zaigu. Horra hor Andoaingo baserriar errebelde horien izenak. Gogorki kritikatzin zuten agoazilak igandean Bandoan irakurritako merkatuaren araudi berria, baita ere nola egin zen “*en castellano, aunque se hallan en el centro de la basconia*” (sic). Araudiak zioen elikagaien salmenta goizeko hamarretatik aurrera egin behar zela, eta marmita bakoitzeko 3 zentimo ordaindu behar zela. Emakumeek zioten ordu desegokia zela, zeren eta “*jornaleroak*” goizeko bostetan joaten baitziren lanera; beraz, baraurik joan behar ziren, eta beraiek egon behar ziren “*hasta las diez de la mañana cruzadas de brazos*”. Gainera, zergaren kontra zihoazen marmitaren tamaina aipatzen ez zuelako, eta zerga bi aldiz kobratzea izango zelako, behiengatik ere zerga ordaintzen baitzuten. Dokumentu horrek erakusten digu zer-nolakoa zen jende xumearen bizitza garai haietan: “*la cuasi totalidad de la jente (sic) de la calle es jornalera de la fábrica*”; andre-gizonen lan egiten zuten, zeren eta baitio uzten zutela atsoren bat umeak eta etxea zaintzeko; soldata baxuak zeuzkatzen (“*apenas ganan el sustento ordinario*”); eta zerga gehiago jartzea “*es tratarlos con dureza*”. 30 emakumeetatik 6k bakarrik zekiten sinatzen (%20), eta bi mutilek sinatzen zuten “*a ruego de mi madre*”. Horrek adierazten digu analfabetismoa noraino hel zitekeen baserrian. A.U.A., A.8., 233H/3.

mendekotasuna ere (“*por sí y con el beneplácito de sus maridos*”); beren asal-dura araudia ez zen baten aurka (“*figura decorativa*” zela esaten dute) eta herriko agintarien aurka (“*lo cual no corresponde á la seriedad de personas á administrar un pueblo de la categoría de Andoain*”).

Lan horien berri ematen digu Patxi Irizarren oroitzapenak, eta azpimarratzen digu zein garrantzi handia izan zuen astoak:

“Nola eramaten zuten suila, gero, egurrezko ontzi hura, buru gainean! Baltzuneke askarik Garro baserriko bidea, nahiz aldapa izan, egiten zuten poliki poliki, kanpora ttanttorik batere bota gabe. Eta eskua hari eusten? Bai zera! Marmitako baldeak esku banatan hartuta!”¹⁵⁴

4. **Heriotza** azken erritu-pausoa zen. Baserriarra oso adin zaharrera ailegatzin zenean, edo larriki gaixorik zegoenean, elizakoak eta testamentua egiteko ordua zen, maiorazkoaren kapitulazioetan utzitakoa azpimarratuz edo aldatuz. Kontuan hartu behar zen alargun utzi behar zenaren egoera ere, familia-sozietatearentzat aldaketa suposatzen baitzuen. Birbegiratu egin behar ziren zor zaharrak eta berriak, eta hipotekak. Testamentu-betearazle bat eta ondasun-partitzaile bat izendatu behar ziren; eta txikiak zeudenean, tutorea, eta familia-kontseilu bat. Hiltorian zegoenak lan asko zuen azken momentuetan ere. Baserria, bere pobrezian eta txikitasunean ere, jabetzan edo maiztertzan, familia gehiagorekin eta gutxiagorekin, konplexutasun handiko *bizitza negoziua* zen, eta gauzak ondo burutu behar ziren.

Halaber, heriotza ona izateko garaia zen, eta horretarako azken igurtziaren eta azken sakramentuen garaia zen.

Hil eta gero, hildakoa ez zen zentzu osoan desagertzen. Jarraitu egiten zuen hiletaren, segizioaren eta doluaren inguruan egiten ziren erritu zehatzetan. Santuen komunioaren oinarri kristaua bizirik zegoen baserrietan: hildakoa bizirik zeudenen ondoan zeuden eguneroko zenbait eginkizunetan, eta bizidunek hildakoei laguntzen zieten purgatoriotik ateratzeko. Igandeetako mezetan, urteurrenetan, eta etxeakoandreak sepulturan argizaria pizten zuen bakoitzean, han zeuden *manes* zahar haiek, bizirik, elizako bizitzara itzuliak, sinbolikoki.

¹⁵⁴ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Baserria”, *Op. Cit.*

3.3. Erljioa.

Gipuzkoako Diputazioak 2009ko azaroan kaleratu duen txostenean ikus daiteke gazteen %6 bakarrik doala elizara, eta katolikoak baino askoz ere gehiago direla ateoak eta agnostikoak. Zenbait udalek gune bereziak prestatzen hasita daude *bataio zibilak* (sic) eta hileta zibilak egiteko. Garai bateko identitate katolikoa hutsa balitz bezala desegiten ari da; katoliko adjektiboa ere soinu zakarrekoa bihurtu da, elizkoi izatea iseka bihurtu, eta abar. Bien bitartean, beste *erlijio* batzuk sortzen dira. Chestertonek zioena gertatzen ari da Gipuzkoan. *Euskaldun-fededun* printzipioa bir-formulatu behar omen da, bere antonimoa jarritz. Baina orain dela 40, 50 edo 100 urte, gauzak ez ziren berdinak, eta Gipuzkoa *orgia* katoliko baten barruan bizi zen.

“Eguneroko bizitza elizako kanpaien arabera egiten zen eta bizi-ohiturak ere apaizak esandakoaren arabera zehazten ziren. (...) Elizako ohituretan zegoen ongia, bide zuzena, eta horretatik ateratzen zen guztia, bekatua, infernua, edo linbo hitz zehazgabe baina beldurgarriekin identifikatzen zuten herritarrek”¹⁵⁵.

Aurrekoa ezar dakieke Andoaini, Gipuzkoa osoari, ia Euskal Herri guztiari, eta oraindik azpimarratua, nekazaritza munduari.

Francisco de Etxeberriak¹⁵⁶ zehazki deskribatzen digu Andoaingo bizitza erlijio-soa, batez ere, Goiburukoa.

Baserrira edo etxera sartzean egiten zen agurra *Ai Maria* edo *Ai Maria pruxuma* zen. Eta erantzuna: *Sin pecado concebida* edo *Aurrera bidia*. Haurrek, goizean jaiki eta sukaldean sartzerakoan ere, antzeko agurra egiten zuten, edo eskolatik bueltan; nahiz eta azken ohitura hori galtzen joan zen XX. mendearen hasieratik. *Aitare*n egiten zen goizean, Angelusarekin, gaueko abemarien garaian, edo lan bat hasterakoan: uztarria jartzean¹⁵⁷, aitzurrean edo segan. Apaizak abemariarekin agurtzen ziren, gizonek txapela kentzen zutela.

Otoitzak baserritarren ohitura ziren. Emakumea zen (ama edo amona) umeei erakusten zizkiena. Otorduen aurretik bi aitagure eta salbe bat errezatzen ziren purgatorioko arimen alde¹⁵⁸. Zetorren eskaleak¹⁵⁹ *pater noster* batzuk errezatzen

¹⁵⁵ MANUEL DE LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Erljioa”, *Op. Cit.*

¹⁵⁶ ETXEBERRIA, Francisco de: “Andoain. La religiosidad del pueblo”, *Op. Cit.* 48.-78. or.

¹⁵⁷ Zenbait nekazarik behiak edo idiak uztartzean hauxe zioten: *Aingeru guardakoak guardatu gaitzala gabian da egunian; janian da edanian; jeikiin da etzarian; gabiltzan pauso guztian, partikularmente geren eriotzako orduan*. Eta aitagureak, abemariak eta gloriak jarraitzen zioten.

¹⁵⁸ Aurretik hauxe esanez: “*Maria Santísima alabantzán salbia, alkantza dezaigun bizitza on batekin eriotz on bana o Ama Doloretakuan izenian salbia*”.

¹⁵⁹ Baserriak pobreak ziren, eta ez zuten emateko gauza handirik, baina badirudi baserri, eskale, elbarri eta fraide ugari zebilela limosna eskean. Etxeberriak Andoaingo pobre bat aipatzen du, Gabriel Kitarra, ospitalean bizi zena, eta baserri baserri zihoala umeentzat ogi koskorak emanez eta limosna jasoz.

zitzen baserriko hildakoen alde eta purgatorioko arimen alde. Berari limosna emateko, atearen bi orriak zabaltzen ziren, musu ematen zitzaion ematen zenari, eta eskalearen eskuan uzten zen; horrek aitaren egiten zuen berarekin, eta musu ere ematen zion. Baserriko haurrek mendearen hasierara arte gurutze bat egiten omen zuten helduen eskuineko eskuan, eta musu ematen zioten. Horri *prestun* deitzen zitzaion. Gaueko arrosarioa ere beste ohitura bat zen.

Baserriko ikonologia arruntena hau zen: Gurutzea, Karmengo Ama, San Ramon Nonato, Aralarko San Migel edo Paduako San Antonio (azken hori ukuiluan kokatzen zen). Ur bedeinkatuarentzakoa ere gelako eta arriko ohiko elementua zen.

Urteko jai erlijioso garrantzizkoenak hauek ziren: Kandelaria eguna (argizaria urte guztirako bedeinkatzen zen eguna –ekaitz egunetan erabilera berezia zeukan argizariak–); San Antonio Abadea (Santa Krutz ermitan bedeinkatzen ziren ogia, gatza, baratxuria, tipula eta artoa –azken hori animaliei ematen zitzaion jateko–); Santa Krutz (erramu bedeinkatuarekin egindako gurutzetxoak jartzen ziren: leihoetan, atean eta soroetan); San Joan (baserri bakoitzak bere sua pizten zuen, eta loreak, belarrak eta fruituak bedeinkatzen ziren); abuztuaren 29a, San Joan Bataiatzailearen lepo-moztea (Ernioko *Via Crucisa* egiten zen, erromesek zintak ekartzen zituztela); eta abenduaren 24ko gaua (gazteak baserri baserri gaueko 10etatik goizeko 3rak arte joaten ziren eskean erlijio gaiko bertsoak kantatuz).

Aipatu dugu sakramentuen garrantzia, batez ere, bataioarena eta eukaristiarena. Azken hori ez zen hartzen gaur egun bezala, baizik eta modu murriztuagoan, eta aitortpena eskatzen zuen aurretik gehienetan. Garrantzi berezia zuen Pazkoakoa egiteak. Antzina, Garizumako igandeetan apaizek doktrinaren azterketa egiten zuten, eta gaintu ondoren, txartela eskuratzen zuten, Pazkoan komunioa jasotzeko. Dagoeneko, aldi hartan, nahikoa zen aitortzaren sakramentuarekin.

Honela zioen 1923ko txartelak:

Aurrekaldea:
“KRISTAU DOKTRIÑA BADA
Andoain-go Elizan, 1923-en urtean
BERRONDO, BIKARIOA”
Atzekaldea:

“¿Noiz aitortu bear gera?”

Urtean bein gutxienez aitortu bear gera, ta orrezaz gañera iltzeko arriskuan gaudenean, eta jaunartu baño len oben astunean bagaude.

¿Iltzeko arriskuan aitortzeko erarik ez duanak, zer egingo du?

Iltzeko arriskuan aitortzeko erarik ez duana, aitortzeko asmoz maite-damuz damutu bedi”¹⁶⁰.

¹⁶⁰ ETXEBERRIA, Francisco de: “Andoain. La religiosidad del pueblo”, *Op. Cit.*, 69.-70. or.

Igandeetan meza 6etan, 7etan, 8etan eta 10etan zegoen parrokiaren; eta 7etan Santa Krutzen. Parrokiako 7etakoa bakarrik zen gazteleraz. Arratsaldeetan bezperak zeuden, 15:00etan edo 14:30ean, udako edo neguko ordutegiaren arabera. Igandeetako meza jakina zen. Aipatu dugu baita ere zein garrantzia zuten Luisek eta Mariaren Alabek gazteriaren kontrolerako.

Erreguteak dira nekazaritza munduaren beste erlijio adierazpen bat. Etxeberriaren arabera, berak 1925ean ezagututako azkenak 1923ko abuztuaren 16an, 17an eta 18an gertatu ziren, euria ekartzeko. Lehenengo egunean Santa Krutzen izan ziren, bigarrenan San Estebanen, eta hirugarrenean berriro Santa Krutzen.

San Estebanek bere apaiza izan omen zuen XIX. mendearen bukaerara arte, eta hamarrena biltzen zuen baserri baserri. Goiburuko 25 baserriak, bi astez behin ermitaren garbiketaz arduratzen ziren¹⁶¹. Han, gaur bezala, abuztuaren 3an ospatzen zen jaia. Ospakizunak kanpaia jotzearekin hasten ziren; gero, 10etako meza, santuaren panegirioa, tuntuna eta tradiziozko dantzak. Hurrengo igandean familiakoak gonbidatzen ziren baserrira bazkaltzera; arratsaldean, banda etortzen zen, eta Andoaingo eta inguruetakozko gazteria ere bai. Dantzatzen ziren *“toda clase de bailes (sueltos y agarraos) que nada tienen que ver con las tradiciones del país. Al anochecer se retiran todos”*. Hala aipatzen du Etxeberria apaizgai gazteak, eta beste aipamen bat ere egiten du, doitasunez: *“el día 12 de noviembre de 1922, a la tarde, en la plaza que está frente a la iglesia parroquial (= Goikoplaza) la dicha banda tocó entre otras cosas un paso-doble español, y sin embargo, todavía no todos bailaban el agarrado”*¹⁶².

Heriotzak eta haren errituek interes berezia zuten. Gaurko ikuspegitik, heriotza industria katearen beste elementu bat bihurtu dugularik, orain dela 50 urteko heriotzaren itzal soziala Egipto zaharrarena bezain arraroa, baina aldi berean ikaragarria eta aberatsa iruditzen zaigu, Douglasssek erakutsi digun bezala. Goiburun honelako osagaiak zeuden: agonia, heriotzaren kanpai-hots ondo neurtuak¹⁶³, hildakoa beztitzea, segizioa¹⁶⁴, hiletak (lehendabiziko berezia, lehendabizikoa, bigarrenkoa, hirugarrenkoa), hurrengo mezak, urteurrenak, dolua... Elementu guztiek zuten beren erritu eta betearazte zehatza eta distiratsua.

¹⁶¹ Bulanon gordetzen zen giltza.

¹⁶² *IBÍDEM*, 64. or.

¹⁶³ 33 kanpai-hots, hiruak tarte txiki bat eginez. Hirutasun santua eta Jesusen 33 urteak. Ez ziren gauzak nolana ere egiten. Heriotza gertatu eta gero jotzen ziren, goizez eta arratsaldean, eta 1919tik aurrera Angelusarekin.

¹⁶⁴ Gorputza eramatea mendeetan ondo markatutako bideetatik egiten zen: *herri-bidea* edo *gorputz-bidea*. Apaizak lideratzen zuen segizioa, ondoan monagiloa, gurutzea zeramala. Zerraldia andetan eramaten zen Aldakaitzeraino *“donde se detienen todos”*. Handik aurrera, bizkarrean, eta Santa Krutzetik pasatzen zenean, kanpaia jotzen zen. Segizioa etxeokak ez ziren familiarrek eta bizilagunek osatzen zuten (*lenbizi aldenekoa*). Garai horretan janzkera aldatzen hasi zen. Bakarrik zaharrek jantzen zituzten garai bateko kapak eta kapela luzeak. Emakumeen *mantuba* ere galtzen joan zen. Etxeberriak dio *“Las mujeres de la calle apenas la usan, y las caseras quieren seguir la moda, la rechazan sin protesta”*. Aldaketak ez dira, bada, gaurkoak: kaletik gora zetozen *“sin protesta”*.

Elizako sepulturak, bere ohol zahar argizarizatuekin, bere argizaiola piztuekin, bere andre belaunikatu beltzez jantzitakoekin, handitasun erlijioso, sinboliko eta estetikoak zuen. Badakigu, jada, mito-apurtzaila bezala zihoana mito-egiletzat hartua izango dela, baina horrelakoa da gure sentimendua, orain ikusten dugun heriotzaren estandarizazioaren eta taylorismoaren beste elementu baten moduan hartua denean. Txarrena da, berrikuntzaren, berezotasunaren eta askatasunaren banderapean egiten dela hori.

Etxeberriak dio parrokiaren 185 sepultura zirela: 91 Ebanjelio alderdian, eta 95 Epistolenean, denak elizako oinaren norabidearen arabera. *“Cada sepultura tiene su número y mide dos metros de largo y 0,61m. de ancho”* zehazten du. Dena den, eta lehen aipatu dugun bezala, XIX. mendearen hasieratik sepultura zerbait sinbolikoa zen, eta, ziur aski pixkanaka bere garrantzia galdu zuen, zeren eta pribatizazioaren beste elementu bat bihurtu zen, baserriaren beste elementu bat bezala.

Horrela, adibidez, Miguel José de Ateaga eta Francisca Eguino, Andoaingo nekazariak *“que como dueños que fueron de la casa de Echeverriburunza les pertenece una sepultura (...) existente en la cuarta hilera ó fila entrando por la puerta principal hacia la ofrenda y la primera de la grada ó camino que se dirige al altar principal de la Iglesia (...) y no necesitando esta sepultura por tener otra en la misma Iglesia á donde pueden asistir”* José Zabalari eta haren emazte Dominica Barriolari saldu zieten, 150 errealegatik, *“y sucesores para siempre jamás”*¹⁶⁵.

Erljioak izugarriko pisua zuen testamentuko xedapenetan. Lehenengoa fede aitortpen bat zen (*“Declara que es católico, apostólico, romano y que cree en todos los dogmas de la Iglesia”*), eta bigarrena limosna txiki bat kristau gatibuen askatasunaren alde, Leku Santuen alde (XIX. mendean), ekintza errukiorren alde, edo santutegi berezi baten alde –Arantzazu, esaterako–.

Horrelako adibide bat dugu Juan Cruz Gurtiak –80 urte, Aritzaga baserriaren jabea– emandako testamentuan. Ondorengorik ez zuenez, baliteke ulergarriagoak izatea haren azken borondateak: sepultura José Joaquín Esnali uzten zion, eta limosnak uzten zituen (250 pezeta ospitaleari, beste 250 Santa Krutzen edertasunarentzat eta kultuarentzat, eta beste 250 Arantzazuri). Bere neskameari 2.500 pezeta uzten zizkion, eta bere altzari eta gauza guztiak. Aritzaga saltzeko agintzen zuen, ahal bazen maizterrari, horrek egindako hobekuntzak ordainduz. Geratzen zen guztia mezetarako uzten zuen *“de 3 pesetas cada una”*, eta horretarako, testamentuaren betearazle, Juan Ignacio Barriola apaiza uzten zuen¹⁶⁶.

¹⁶⁵ A.G.G.-G.A.O., PT 3614, OSACAR, 1862.

¹⁶⁶ A.G.G.-G.A.O., PT 3776, LANZ 1898. Hori hiltzen bazen, beste apaiz bat izango zen: Juan Ignacio Munita edo erretoarek izendatzen zuena. Apaizek garrantzi handia zuten testamentu legatuetan. Mailegu-emeleak ere baziren, hor aipatzen den Barriola hori bezalaxe. Seguru asko, heriotzaren inguruan mugitzen zen diru guztiaren onuradun apaizak izan ziren. Beste apaiz baten testamentuan (Valeriano Fermín Lizarraga Zabaleta, 49 urtekoa, leizarra, eta Andoaingo apaiza) ikus dezakegu bere adinerako eta mailarako ondasun garrantzizkoak zeuzkala, adibidez, Flores eta Olazaga, Hernialdeko baserrien erdiak.

Hileta mota ere zehaztuta geratzen zen testamentuan edo semearen nahiz alabaren ezkontza kapitulazioetan. Gutxitan ziren lehenbizikoak, gehiago bigarrenkoak, eta normalean hirugarren mailakoak, eufemismo desberdinen pean: “*con arreglo á personas de mi clase*” edo “*á disposición de mi albacea*”. Mezak ere zehazten ziren; hala, Buruntzako gazte baten kapitulazioetan hau ezarri zioten gurasoek: “*deberá destinar para sufragio de los individuos de las familias cuarenta pesetas en cada uno de los cuarenta años siguientes á contar desde el próximo de 1898*”¹⁶⁷.

Hala ere, mundu katoliko eta konbentzional horren azpitik Frazerrek *supervivencias* bezala aipatzen zituenak ikus daitezke, hau da, oso zaharra eta prekatolikoa den mentalitatea. Etxeberriak dio bazeudela heriotza aurreikusten zuten emakume aziak, edota oilarrak orduz kanpo egindako kantuak heriotzaren seinale zirela. *Es-kumukaziyua* bezala ezagutzen zen erritu bat ere deskribatzen du; horren arabera lapurreta bat jasan zuena apaizarengana joaten zen; horrek aurrez aurre hitz egiten zuen Jesukristorekin, eta lapurra lehorra eta belztua geratzen zen. Hildakoen agerpenak ere aipatzen ditu Etxeberriak:

“Bein batean anima agertu omen zitzaion lagun bati; eta, lagun arek zer ofrezitzen zitzaion galdetu. Len, meza eskañi ta etzuala atera-ta, Andoain ´go Gurutze Santuaren aurrian meza bat ateratzia nai zukeala erantzun omen zion. Gero meza entzutera jun da ezin egonik eduki zutela. Ta elizatik ateratzerakuan, animak ur bedeinkatuz busti egin zuala, ta, ua zerura bazijuala ta arentzako etzala paltako esan ziola. Anima iñork etzuala ikusi izan.

Ala aditu izan degu guk”¹⁶⁸.

Mikaela Elizegik mundu magiko bat deskribatzen du, sorginez (Asteasuko erre-torea erasotzeko ausardia zutenak XX. mendean), zakur amorratuz, salutadorez eta abarrez osatua. Ernioko erromeria ere ikuskizun berezia omen zen, dena eskalez, elbarriz eta itsuz betea, eta Etxeberriak hauxe dio: “*En general asiste allí elemento joven, y no del mejor; aunque siempre hay honrosas excepciones*”.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta harridurazko sendotasuna mantendu, erlijioaren mundua ere aldatzen ari zen. Kultu berriak sartzen ari ziren, garrantzitsuenak Jesusen Bihotzarena eta Mirarizko Birjinarena. Azken horren imajina baserriz baserri hasi zen pasatzen 1924an. Kofradia berriak-eta, aipatu dugu, nola beste zaharren gainean inposatzen ziren. Etxeberriak zenbait aldaketa aipatzen ditu: “*los jóvenes y los que no son naturales del pueblo observan poco las prácticas*”. Ez zen

¹⁶⁷ A.G.G.-G.A.O., PT 3763. LANZ, 1897. Jose M^a Beracochea Ariztik eta Magdalena Arana Urdampilletak ezarri zioten beren seme Agustini, Ramona Atorrasagastirekin ezkontzean.

¹⁶⁸ ETXEBERRIA, Francisco de: “Andoain. Creencias y ritos funerarios”, *Anuario de Eusko-Folklore*, Eusko Ikaskuntza, 1923, 103. or.

lehen bezala betetzen *benedictio post partum* izeneko ohitura; hiletaren ondorengo bederatzurrrena ahultzen ari zen; *valseoa* eta pasodoblea, tuntun zaharra alboratzen ari ziren “*por el ejemplo de gente extraña*”; Garizumako doktrinaren azterketa galtzen hasita zegoen; eta abar. Kaskoko populazioa 300 biztanletan handitu zen “*siendo casi todos erdeldunes*”, baina hauxe ere esaten zuen:

“*Influencias extrañas llegan también al pueblo por medio de las personas naturales de Andoain que vuelven a su pueblo después de haber pasado alguna temporada, bien por razón de estudios, bien por aprender algún oficio o por servir en la milicia o en casas particulares (en Tolosa, San Sebastián)*”.

Ohitura *disolbatzaille* horiek beranduago sartu ziren baserrira. Baserritarrek oraindik eusten zieten, eta Buruntzakoek 1908an jaso zuten San Rokeren baseliza, hori bai, zementu armatuz.

Patxi Etxeberria Asiako ekialde urrunetik etorri zenean, harritura geratuko zen ikusiz nola aldatu zen Euskal Herriko eta Andoaingo erlijio identitatea. Dagoeneko baserritarrek ere ahaztuak zituzten mendeetan iraun zuten “*buenos usos y costumbres*” haiek. “*Influencias extrañas*”-en garaipena osoa zen.

“Zaila da gaurko metroarekin orain 60-70 urteko gertaerak neurtzea: oso zaila. Batzuek esango dute engainatuta bizi ginela, baina ez ginen engainatuta bizi; denek genuen kultura bera, hura zen naturala. Gaurko metroarekin neurtuta gauza negatibo asko zeuzkan mundu harek, baina esan nahi nuke positiboak ere asko zeuzkala. Eta hori ondo erakusten dute garai hartan herrian sortu ziren mugimenduak: mugimendu apostolikoak” (Joxemari Olazabal)¹⁶⁹.

3.4. Hezkuntza.

Aipatu ditugu hezkuntzaren gabezia eta analfabetismo tasa handia. Mende erdian aurrerapenak egin ziren, baina arazoa hortxe zegoen. Baserritarren kasuan arazoa larriagoa zen. Oso gogorra zen urrutiko baserrietatik egunero bi aldiz eskolara joatea. Sorabillan izan ezik, ez zegoen nekazaritza eskolarik, eta umeak herrira jaitsi behar ziren. Baserrien urruntasunak, bide txarrek, eta negu gogorrek, ez zioten laguntzen eskolatzeari. Baliteke gurasoen aldetik ere ez egotea adore nahikoa hori bultzatzeko: seguru asko, garrantzi gehiago ematen zioten doktrinari eskolari baino.

¹⁶⁹ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Erljioa (eta II)”, *Atzoko Andoain eta andoaindarrak*, 7. zka., 1999-07-25.

Urruntzeko beste faktore bat hizkuntzarena zen. Eskola gazteleraz zen, doktrina izan ezik. Baserriko umeek ez zekiten hizkuntza hori; beraz, egokitu beharra zegoen, eta hori oso zaila zen. Zaila da 6 urteko haur baten baitan sartzea: maisuak edo maistrak zioena ulertu gabe, bera baino pixka bat gehiago zekiten ume kaletarrek iseka egiten ziotela, etxetik oso urruti zegoen mundu batean... Euskaraz zekiten maisu-maistrak saiatuko ziren zerbait egokitzen edo itzultzen; badakigu nola Ignacio Tolosa maisuak euskaraz ematen zituen zenbait klase... Dena dela, ingurune horretan gutxi samar ikas zitekeen.

Lanak ere oztopatzen zuen eskolaratzea. Baserrian inor ez zegoen soberan; umeen lanekua garrantzizkoa zen; horregatik, udaberritik aurrera eskola-absentismoa handitu egiten zen. Baserriko lanek egutegia markatzen zuten. Soroan lan egiten ez bazen ere, sorora joaten zirenak ordeztu behar ziren etxean, adibidez, ama eta haren lanak. Horrela, bada, eguraldi ona zenean lana zegoelako, eta txarra zenean, horrexegatik, aldizkako jarduera bihurtzen zen eskola. Aipatu dugu lehentxeago nola kontatzen zituen Zinkunegik haurtzaroko bere lanak.

Eskola urtea oso luzea zen: irailaren hasieran hasten zen, eta uztailaren erdialdean bukatzen. Maisu-maistrek beren memoriak idazten zituzten kurtso bukaeran eta nahiko esanguratsuak dira.

1916an mutikoen maisua zen Rafael Egiluzek honela laburtzen zituen hezkuntzaren helburuak:

“inculcando en sus corazones el amor de Dios para conseguir nuestra felicidad eterna, el amor al trabajo como fuente de riqueza, y el amor y respeto a nuestros padres, a la patria y la región como consecución de la paz y felicidad temporal.”

Hau da, eskolak gizarteak zituen baloreak azpimarratzen zituen: erlijioa, familia, lana, eta abertzaletasun bikoitza.

Maisu horrek ere ikasteko zailtasunak aipatzen zituen: eskolaratzea “irregular” edo “mediana” zen, zergatia aipatuz: “ayudar a los padres en sus faenas generalmente agrícolas”. Gaineratzen zuen: “el desconocimiento del idioma castellano”. Beste maisu batek, Víctor Perezek hauxe zioen “hay niños que pasan meses enteros sin presentarse”. Perezek memorian idazten zuen 1915-1916ko kurtsoan 112 ume zituela matrikulatuak, eta hauxe zen hileko batez besteko eskolaratzea: irailean 73 ikasle, urrian 72, azaroan 72, abenduan 71, urtarrilean 93, otsailean 93, martxoan 86, apirilean 81, maiatzean 67, ekainean 65, eta uztailean 77. Gaineratzen zuen: “no es fácil que cuando asisten tres meses de invierno, faltando el resto, se obtengan buenos resultados”.

Neskatilen eskolari buruz beste hainbeste esan genezake, nahiz eta helburuak desberdinxeagoak izan. 1914an Ascensión Echeverría maistrak helburu bezala jartzen zuen “instruidas, temerosas de Dios y útiles á la familia” izatea, eta Jacinta Mas Garmendiak 1916an bertutea goraiatzen zuen, neskek izan behar zirelako “las encargadas de labrar la felicidad del hogar enjugando las lágrimas del dolor y sembrando la paz y el bienestar en la familia y en la sociedad”. Horrela, bada, neskek “patria eta región” gutxiago, eta “paz y familia” gehiago. Ez eskolaratzeari buruz, hauxe zioen Echeverría maistrak:

“La asistencia particularmente la de las niñas mayorcitas o sea la de las que están en mejores condiciones para aprender, ha sido muy irregular, sobre todo en la Primavera y en el Otoño, pudiendo decirse que hasta el 1º de Noviembre no se normalizan las clases (...) el principal obstáculo ante el cual se estrellan los medios educativos en esta escuela es la mala asistencia de las niñas, originada, sin duda, por las condiciones de vida de las familias, que se ven precisadas a valerse de ellas desde edad temprana y a retirarlas de la escuela (...), las obligan a abandonar las clases para servir de niñeras o para otros oficios.”

Aurreko berrietatik atera dugu nola bizi ziren maisu-maistrak: adin desberdineko ehun bat ikasle, kurtsoa oso luzea, eta interes txikia ikasle eta gurasoengan. Soldatari buruz, ez dugu errepikatuko esaerak dioena, baina Diktadura garaian maisu titularrak soldata dezentea kobratzen zuen: 3.500 pezeta. urtean. Gainera, Udalak ematen zien etxebizitza.

Sorabillako eskolan ez ziren gauzak hain errazak. Eskola mistoa zen, bertako maisua Natalio Pajarín Garagorri zen¹⁷⁰, eta eskola-etxean bizi zen bere familia zabalarekin. 1902ko urriaren 20an (“Hallándome en clase” dio Nataliok), etxearen jabea zen Juan Bautista Larreta agertu zen, eta agindu zion etxea uzteko hilabete barru, zeren eta berak etxea eskolarako bakarrik alokatua baitzuen, ez maisuaren

¹⁷⁰ Natalio Pajarín Garagorri Galdós-en nobela bateko pertsonaia ematen du. 1840an Donostian jaioa, maisu titulatu zen, eta Josefa Joaquina Iturrioz Garragorriekin ezkondu zen (bi urte zaharragoa zen andoaindarra). Hori, garai hartan, Sorabillako serora zen. Bi alaba zituzten: zaharrena 34 urtekoa, ezkondua (senarrarekin batera, La Algodonera lan egiten zuen) eta 4 seme-alaba zituena; eta gazteena, berriz, 30eko, “sin ocupación aparte de sus labores”. Denak serora-etxean bizi ziren, eta behi bat ere bazuten. Pajarín 1863rako agertzen da Andoainen, ezkondua. Aitaginarreba José Antonio Iturriozek Zumea 7ko Oriozabala Mayor etxea saldu zien hiru semeei; horregatik, alaba Josefa Joaquinari 3.025 errealeko legitima eman zitoten. Garai horretan Pajarinek gozogile lana egiten zuen. Oraindik morbo gehiago emateko bere biografia xumeari, karlista eta liberalen bi soldadu zerrendetan agertzen da II Karlistada garaian. Gerra bukatuta, mailegu-emaile ikusten dugu (Adunako aita-semeei): 1876an confitero, baina 1879an profesor de instrucción pública. 10 urte beranduago Sorabillan bizi zela badakigu. A.G.G.-G.A.O., PT 3614, OSACAR, 1862; PT 3498, SARASOLA, 1876; PT 3426 LANZ, 1879.

etxebizitza izateko. Pajarinek auzi¹⁷¹ bat izan zuen Udalarekin, eta hortik dakigu 468,75 pezeta kobratzen zuela urtero. Soldata negargarria, kontuan hartuta *bracero* delako baten soldata 2 pezetakoa zela. “¿En qué país vivimos?” zioen Pajarinek, eta ez zen gutxiagorako.

3.5. Baserritar zuzenbidea.

Gure nagusiek dena protokolizatzen zuten. Eskribaua, eta beranduago, notarioa, ziurtasun juridikoaren bermatzaileak ziren, eta haiengana jotzen zuten edozein dokumentu legeztatzeke: testamentuak; ezkontza kapitulazioak; lursail, baserri, behi, artalde eta abarren salmentak; ordainketa gutunak; hipotekak; maileguak; obligazio eta botereak... Gure garaira gerturatzen garen heinean, ematen du fidakorrango bihurtu garela.

1999ra arte Gipuzkoak ez du berezko araudi bat izan baserrien ondorengotzarako. Gure lurraldea Erdi Arotik Gaztelako zuzenbidearen pean egon da: Errege Forua, Alcalako Ordenamendua, Partidak edo Toroko Legeak. 1889ko Espainiako estatu liberalak Kode Zibila ezarri zuen¹⁷².

Probintziako erakundeak, bai Batzarrak bai Diputazioa, XVI. mendetik XX. mendera arte, egoera hori aldatzen saiatu ziren, eta betiko ohitura lege bihurtzen, baina porrot egin zuten. Hala ere, estrategia anitzen bitartez eta eskribauen eta notarioen laguntzaz, ohituraren izpiritua nagusitu zen. Dena den, eskizofrenia juridiko horrek makina bat auzi eta prozesu luze ekarri zituen.

Baserriari zegozkion oinarri juridikorik garrantzitsuenak hiru ziren:

1. Baserriaren ondasun higiezinazkoen zatiezintasunezko oinarria, horren barruan ganadua eta etxean zeuden altzariak eta gauzak sartzen zirelarik. Oinarri horrek, bere neurrian, bai jabeentzat bai maizterrentzat balio zuen.

¹⁷¹ 1886an Loreto Arzacek (Larretaren ama) alokatu zion serora-etxea urteko 30 pezetako errenta kaskarragatik. Harrezkero, han bizi zen Pajarín familia. Larreta Pajarirengana herriko *notable* batzuekin aurkeztu zen: Manuel Olariaga, José Moleda eta José Antonio Amondarain. Pajarinek Udalarari eskatzen zion, *okupa* bezala bizi baldin bazen azken 16 urteetan, urte haietako alokairuaren balioa emateko. Tolosako auzitegira joan zen; han dohainezko justizia eskaini zioten bere pobreziazatik, baina Andrés Pérez epailea Udalaren alde agertu zen, esanez Pajarinek ez zuela ezer erreklamatzetik etxea izan zuelako Larretaren eskuzabaltasunagatik. Udalak etxe bat eskaini zion Larremendi kalean, baina Pajarinek zioen oso urruti zegoela. Bitartean, Pajarín familia apezetxean bizi izan ziren. Ez ziren horrela bukatu Larretarekin izandako gorabeherak, zeren eta 1903ko martxoaren 29an hark zioen erreformak egin nahi zituela etxean, eta handik hiru egunera maisuak zioen eskolaren sarraila eta mahaiko kaxoia-rena bortxatu zizkiola. “¡Buenas son las que han resultado referentes (las reformas) á la escuela! ¡Harian reir si no dieran lástima!” zioen suturik Nataliok. Ez dakigu nola konpondu ziren gauzak, baina gutxienez handik hiru urtera Nataliok, bere familiak eta bere behiak Sorabillako serora-etxean jarraitzen zuten.

¹⁷² NAVAJAS LAPORTE, Alvaro: *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostia, 1975.

Baserriko bizitza ahalbidetzen zuten ondasun eskasak ez zatitzea zuen helburu. Seme edo alaba batek, normalean zaharrenak, maiorazkoa zenak, baserria oso-osorik jarauntsi behar zuen, familia jabea bazen, edota baserriaren maiztergoa, ganaduekin eta gauzekin, maizterrak baziren.

2. Enbortasunaren oinarriaren arabera, familia-sozietatea oinordekorik gabe disolbatua geratzen bazen, edo horiek adin txikian edo *ab intestato* hilak baldin baziren, orduan jatorrizko ondasunak eta irabazitakoen erdiak, atera ziren enborrera bueltatu behar ziren, hau da, ezkontidearen familia zaharrera.
3. Diruak beste seme-alabei legitimak ordaintzeko balio zuen. Legitimak, ikusi dugun bezala, gauza hauek ordaintzeko ziren: lanbide baten irakaskuntza, soldaduskaren erredentzia, Ameriketarako bidaia ordaintzea, dotea edo andregaiaren arrioa. Horretarako, ezinbestekoa zen maiorazkoarekin ezkontzen zenak ekarritako dirua. Ordainketak epeka egiten ziren, baserriak ez baitzuen nahikoa ekoizten bat-bateko ordainketarako, eta kasu gehienetan legitimak ordaintzeak hipoteka-bermedun zentsua edo maileguak zekartzan, zerbait hipotekatzeko bazegoen.

Toroko Legeak (1505) Erdi Aroko Errege Forua baino mesedegarriagoak izan ziren Gipuzkoan zegoen ohiturazko zuzenbiderako. Alde batetik, zera zioten: *propter nuptias* emandako ondasunak eta andregaiantzako doteak, emandako unean, patrimonio osotik ateratzen zirela, legitimen zenbaketatik kenduz. Beste aldetik, testamentuetan herenaren eta bostenaren hobekuntzak zeuden, eta horregatik, baserriaren eta ondasunen zatieziezintasunerako tarte zabalagoa ahalbidetzen zuten. Madrilgo Gorteen Legeak (1534) oztupoak jarri zituen hobekuntza horiek emakumeentzat zirenean, eta auziak pilatu ziren hori zela-eta.

Praktikan, berriz, hauxe egiten zen: ezkondu behar ziren egunean, edo pixka bat lehenago, ezkontza kapitulazioak sinatzen ziren, eta horien arabera, gurasoek baserria eta lehen aipatutako ondasunak ematen zizkieten, edo ondasunak bakarrik, maizterren kasuan, baina beti herenaren eta bostenaren hobekuntzen arabera. Emaileak, hau da, gurasoak, usufuktuarekin geratzen ziren, edo beren bizitza bermatzeko beste bide batzuk ahalbidetzen zituzten: baserria zatitzeko aukera, edo espazio eta diru bat bermatzea, baldin eta familia-sozietatea zaharren eta gazteen artean hausten bazen (“*una casa, mesa y compañía*”). Aldi berean, bikote gaztea bere anai-arrebei (koinatu-koinatei) legitimak ordaintzeko erantzukizunarekin geratzen zen, epeak alde aurretik erabakiz. Azken horiek, aitaren eta amaren aldeko legitimak jasotzerakoan, ordainketa-gutuna sinatzen zuten, non erabakitzen zen inongo kasuan auzitara ez jotzea. Bizitzaren bukaeran egiten zen testamentuak bizitzaren balantze bat egiten zuen: kapitulazioetan erabakitakoa birbegiratzen zen, oraindik bete gabekoa betetzeko, eta erlijioaren eta hiletaren legatuak uzten ziren.

Toroko Legeek enbortasunaren oinarria ere ahalbidetzen zuten, baina horretarako VI. Legeari espresuki uko egin behar zitzaion.

Kode Zibila ezarri zenean, 1889an, oraindik errazagoa izan zen ohiturazko zuzenbidearen oinarriak betetzea. Hobekuntzarako bi herenak zekartzan, eta 1.056. artikulua transmisio zatiezina aurreikusten zuen. Artikulu horrengatik ezkontza kapitulazioak gutxitzen joan ziren.

Legitimak saihesteko beste bide bat baserria saltzeko itxura egitea zen. Gurasoentzat bazituen bere arriskuak, eta gainera, Auzitegi Gorenak deuseztatu egin zuen; beraz, praktika hori galdu egin zen. Horrelako salmentak agertzen dira mende aldaketan, adibidez, Lekunategin¹⁷³ 1899an edo Etxaberen erdian 1901ean.

Beste notario-dokumentu batzuek emaile alargunak edo umezurtzak babesten zituzten. Azken kasu horretan tutore eta protutorea izendatzen ziren; testamentu-betearazle batek ondasunen inbentarioa eta zatiketa egiten zituen; eta hori guztia zuzentzeko eta erabakiak hartzeko, Familia Kontseilua eratzen zen, presidente batez eta zenbait bokalez osatua.

Horren adibide bat Kontrarregistro (Kontrarregistro edo Kontraixto) baserrian gertatu zen. Hango nagusia José Antonio Garmendia Aguirre zen. 27 urte zituela M^a Bautista Olanorekin ezkondu zen; eta zegozkien kapitulazioak egin zituzten, andreak 1.500 pezetako dotea ekarri zuela. 5 seme-alaba izan zituzten. Ezkonduta zegoen bitartean, 1892an, Isasi eta Zulueta (La Algodonerako nagusiei) Txitibar Txiki baserria eta hango kotxe-tokia erosi zizkien. José Antoniok eraikinak bota, eta beste berri bat jaso zuen, Kontrarregistro¹⁷⁴, 1,69 areakoa, eta lursail hauek zituela: 302 a-ko soro-sagastia, San Migel Zelai izenekoa; 25,12 a-ko belaze-sasitza; eta 49,04 areako otadi bat, Goiko Otarea izenekoa. Gainera, beste hauek erosi zituen: 67 a-ko mendi bat, Montua, eta beste bat 67 a-koa, Malo.

Erosketa horiek egiteko, eta etxea jasotzeko, mailegu handia eskatu zuen, 11.625¹⁷⁵ pezetakoa, eta erdibana José M^a Beracocheak eta Miguel M^a Pilonak okinak eman zioten.

¹⁷³ Lekunategiren kasua familia-sozietatearen apurketa baten ondorioz etorri zen. José M^a Setien maiorazkoa hil egin zen, eta alarguna (zeinari eskubideak eta betebeharrak baitzegozkion) baserrik irten zen bere alaba Dolores Setien Olanorekin. Guraso zaharrek "le requirieron con vivas instancias (...) para que ella y su hija volviesen a casa y compañía de los otorgantes, instancias á las que se ha negado rotundamente". 60 urtetik gora zuten gurasoek elkarte desegin zuten eta aurreko kontratua baliogabetu, eta, agian, ustekabe gehiago ez izatearren, beste seme bati, Juan M^a Setien Zabaletari, *saldu* egin zioten 7.000 pezetagatik, nahiz eta ezkongabea eta 24 urte besterik ez izan. A.G.G.-G.A.O., PT 3778, LANZ, 1899. Etxaberen kasuan, M^a Carmen Galardik –ama alarguna– ezkongabea zen bere seme Prudencio Santa Cruz *saldu* zion baserriaren mendebaldeko zatia, 20.000 pezetagatik. Kasu horretan amak baldintza batzuk jarri zituen haserrea heltzen bazen: gela eta ohe bat, sukalderako eskubidea, eta 1,5 pezeta eguneroko. A.G.G.-G.A.O., PT 3794, LANZ, 1901.

¹⁷⁴ Ez dakigu zergatik aukeratu zuen halako izen modernoa. Baliteke trenbidea eta La Algodoneraren ondoan zegoelako, eta industrialismoz kutsatua. Gutxi balio izan zion, zeren eta handik gutxira egokituta zegoen, eta beste izen hauek hartu zituen: Kontraixto (Etxeberriak) edo Kontrabixto (Zinkunegik).

¹⁷⁵ Harrezkero, 12.125 pezetakoa zen, interesak zirela medio.

Andrea hil egin zitzaion, eta 5 seme-alaba txiki zituela, berriro ezkondu zen 50 urterekin. Bigarren andrea Joaquina Antonia Carrera Iturrioz zen: 34 urte zituen, eta familia nekazari baten alaba izan arren, neskame lan egin zuen. Kapitulazioak 1896ko urtarrilaren 3an sinatu zituzten. José Antoniok Kontrarregistro eta bere zorrak jarri zituen, eta Joaquinak, berriz, bere lanetik aurreztuak zituen 170 pezeta, eta bere anaia Pablok legitima modura eman zizkion 250 pezeta, eta ohe bat: gutxi samar, aurreko emaztearen herena. Baina zer espero zezakeen José Antoniok 50 urterekin, 5 seme-alabarekin eta zorrez beteta? Joaquinak ere prezio altua ordaindu zuen ezkongabetasunetik ateratzeko.

Zorionak ez zuen luzaro iraun, ordea. Alaba Carmen hil egin zen, Joakina haurdun geratu zen, eta handik hilabete gutxi barru José Antonio gaixotu, testamentua eman, eta urriaren batean hil zen. Hilabete lehenago, 1899ko abuztuaren 31ko testamentuan heren bat uzten zuen andrearentzat, eta beste bi herenak bere 4 seme-alabentzat, amaren usufruktuarekin. Testamentu-betearazlea, tutorea, protutorea, eta Familia Kontseilua utzi zituen¹⁷⁶.

Hilondoko semea jaio zen, Miguel M^a, baina bi urte beranduago egoera izugarria zen. 1898ko uztailaren 1ean egin zen inbentarioa: behi bat, bere txekorrarekin, eta 6 oilo ziren ganadu guztia¹⁷⁷. Zorrak 13.843,15 pezetara heltzen ziren jada, eta aktiboa gutxitua zegoen. Zorra birnegoziatu beharra zegoen, eta mailegu-emaileek erabaki zuten 500 pezeta hartuko zituztela urtero, interesa %4koa izango zela, eta finka berriro hipotekatu behar zela.

Egoera kritikoa zen. Joaquinak 5 seme-alaba zituen: bat berea, eta beste 4 senarraren lehen ezkontzarenak. Neskazaharrerako zihoan Joaquinak berriro ezkondu behar. Salbazioa *serviente* zen, Hernaldeko Teodoro Azpeitia, "sin segundo apellidado"; beraz, suposa dezakegu inklusatik zetorrela. Lan ederra Teodoro gizarajoarentzat: bereak ez ziren 5 seme-alabak, zor itzelak eta behi bat! Horrela ziren gauzak.

Kontrarregistroko istorioak ez dira Filadelfiako istorioak! Informazio hori guztia protokolatua dago¹⁷⁸. Ez dakigu zer gertatu zen gure protagonistekin. Hamar urte beranduagoko estatistikan agertzen da Teodoro jabe bezala: 3 behi gorri, 2 txekor, eta 1 txerri zituen. Gutxiegi 1.000 pezeta eta interesak ateratzeko. 1925ean Kontrarregistro ez da Azpeitia edo Garmendia abizena duen inor agertzen.

¹⁷⁶ Tutorea Francisco Cipitria zen (tutoreek errendimenduen %8a jasotzen zuten), eta protutorea, berriz, Antonio Erasuskin. Kontseiluko kideak Hipólito Erasuskin (presidentea), José Antonio Egibar, José Joaquín Urchoegui, Pablo Carrera, eta Pedro Manuel Urchoegui (bokalak). Testamentu-betearazlea eta zatitzailea Cecilio Goicoechea. Cipitriak ez zuen onartu tutore izatea eta amaren aldeko aitona José M^a Olanok ordeztu zuen.

¹⁷⁷ Nekazaritzako lanabesak 20 pezetan baloratuak zeuden. Ez dakigu zer zegoen. Etxeko gauza hauek ziren: 3 armairu hondatu, 1 komoda, 5 ohe, hormako 1 erloju, 14 koadro, 2 kupel, 22 izara, 1 ohe-estalki, 4 almoada, 3 koltxo, beste 7 estalki, 4 lastaira, 1 aulkitxo, 2 gurdi, 1 sutontzi, 4 kandelero eta sukaldekoak; denak 208,5 pezeta balio zuten.

¹⁷⁸ A.G.G.-G.A.O. PT 3752 LANZ, PT 3753 LANZ, PT 3776 LANZ, PT 3786 LANZ.

Historia txikiak dira, egunerokoak, eta kapitulazioak, testamentuak, inbentarioak, familia-sozietateak, tutoreak, hartzekodunak, hipotekak, eta halakoak dituzte: baserrietako estrategiak bizitzaren ezbeharrei aurre egiteko.

3.6. Auzolana eta elkarreak.

Elkartasunaren oinarriak zaharrak ziren Euskal Herrian. Elkarrekiko laguntza oso arrunta zen zenbait lanetan: laiketean, gariaren uzta jasotzean eta harri-jotzean, artazuriketan... Lan horietan eskulan asko behar zen, eta familia urria zenean, batik bat, auzokoez edo familia urrutikoez laguntzen zuten. Lan horiek elkarrekikotasun oinarriaren arabera gauzatzen ziren. Thalamasek¹⁷⁹ *ordeak* edo *lan-trukeak* deitzen die. Horrelako lanak merienda edo afari batekin bukatzen ziren.

Elkartasunezko beste era bat *lorrak* izenekoak ziren. Askotan apaizak pulpitutik laguntza eskatzen zuen familia behartsu batentzat. Ez zen lana bakarrik, baizik eta simaurra (*simaur-lorra*), artaldea osatzeko (*bildots-lorra*), etxea egiteko zura (*zur-lorra*), gurdia eta behiak uztea *sanmartingoa* egiteko (*etxe-aldatz*), edo ezkonberriak baserrian ezartzeko (*arigotza*).

Oso arrunta zen, baita ere, azaldu dugun bezala, pobreekiko karitatea edo behartsu horiei atarian edo etxe barruan ostatu ematea.

Auzolan klasikoa, berez, auzoko baserritarrek elkarrekin eta helburu komunitario bat zutela, lan instituzionalizatua zen. Hona hemen erakunde horren lanak: bidearen edo elizbideen konponketa, baselizaren konponketa edo mantenua, garbitokiaren eraikuntza, auzora ura ekartzea, edo karea egitea. Askotan, lan horiek zuzentzeko, auzoko maiordomo bat zegoen.

Baita ere ikusi dugu nola heriotza ez zen bakarrik gertakari indibiduala edo familiarra, baizik eta soziala, eta nola giza harremanen sare estu bat erakusten zuen.

Komunitate barruko harreman sare hori ere aldatzen ari zen. Indibidualismoa, propietate pribatua, muga zehatzak, hesiak, eta abar, auzo elkartasun hori ahultzen joan ziren, eta fenomeno hori bat zetorren herri ondasunen galerarekin. Mundu zahar oso bat krisian murgildu zen.

¹⁷⁹ THALAMAS LABANDIBAR, Juan: *Aspectos de la vida profesional vasca. El campesino. El pescador. El obrero*, Euskaltzaleak, Beñat idaztiak, Donostia, 1935, 71.-82. or.

Horren adibide bat karobien hondamendia izan zen. Karea egiteari utzi zitzaion, eta karobiak sasiz betetzen joan ziren. Karea egitea lan handia eta lanasko eskatzen zituen: harria; otea; egurra erruz ekarri behar zen, gurdika. Gero erre egin behar zen, eta ondoren karea atera, banatu, eta garraiatu. Denborarekin ikusi zen askoz ere erosoagoa zela erostea.

Batez ere, auzolana bideak konpontzeko mantendu zen. Udalari ere sistema hori komeni zitzaion, eta horretarako, lehengaiak eta ogi eta ardo errazioak banatzen zituen. Hori eskatzen zuten Goiburuko baserritarrek Unanibia zubia konpondu eta San Estebanerainoko bidea hobetu nahian¹⁸⁰.

Patxi Irizarrek dio auzolana bide eta garadientzat erabiltzen zela, baina Roke Ansak Andoainen izan zuen gainbehera aipatzen du:

“Andoaindarrok fama txarra genuen, eta ez zen gutxiagorako. Bata bestearen teman, elkarlanak geratzen ziren egiteko. Urnietan eta Hernanin gureak ez bezalako bideak izaten zituzten”¹⁸¹.

Garoaren ustiapenari buruz ere, ezin dugu esan adiskidetasun handirik zegoenik. Udalak bazituen oraindik garadiz betetako herri sailak, eta irailaren hasieran bando bat argitaratzen zuen bideak konpontzeko. Bidea konpontzen laguntzen ez zuen baserriak ez zuen garoa jasotzeko eskubiderik. Urriaren hasieran ailegatzen zen *Harrapazka* eguna. *Mendebaldeko Konkista* pelikulako eszena ekartzen digu gogora: denak korrika, nor bere garo saila hartu nahian. Horrela gogorarazten digu Agustin Zinkunegik:

“Mendizaiak-goardak izentatuko zuan eguna ta ordua Otitako zelaira biltzeko, urteroko lekura.

An azalduko ziren mendizaiak, bizkar-morralla jan ta edatekoz bapo beteta.

Baserritarrak ere bai, abarkak ondo lotu, igitaia gerrikoan sartu, alkondara-besoak azi ta goardak txalo jotzen zualarik, ea, motell, saillik onena arrapatzera! Orixe esaten zitzaion Arrapazka.

Katebieta edo Malon gora danak errenkan jarrita, lyuya lenengo irixten zanak izaten zuan alako garaipen bat. Orientzat etzan garaipena garosail onena arrapatzea, lenen irixtea baizik.

Garo-sail oien jabetzeak bazituan gizarte onak eskatzen dituan bete bear batzuk. Alabaiña izaten ziran, zoritxarrez, legepean ongi etzetozen jokaera batzuk naiko makurrak; eta gero, izketa mikatzak eta asarreak”.

¹⁸⁰ 27 auzokidek hauxe eskatzen zuten: “*hacer prestacion personal conforme uso y costumbre que está establecido en esta villa con ración de pan y vino*”. Materiala eskatzen zuten: 30 zaku zementu, 2 gurdi kare “*y para extraer la piedra media caja de dinamita*”. SEGUROLA JIMENEZ, Marco eta MURO ARRIET, Koro: “Herri lanak...”, *Op. Cit.*, 3. agiria, 254. or.

¹⁸¹ MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: “Baserría”, *Op. Cit.*

Upategi baserriko Roke Ansak horrela ikusten ditu lan haiek:

“Garaketara oso urrutiko mendietara joan ohi ginen, Usabelartza, Osi-naundi eta alde horietara, ganaduen ikuiluko etzanlekuak txukuntzeko, eta bidebatez, ximaurre egiteko gero lurra ongarritzeko. Egun guztiko bidajea, eta, ganadua eta gerok ere, neka-neka eginda etxera”.

Badirudi haserreak ohikoak zirela, baita Udalarri egindako kexuak ere. Hori ikusita, Udalak beste era batean antolatzea pentsatu zuen: garadiak sailetan zatitu eta zozketa egin. Baina ez ziren horregatik liskarrak bukatu: “Zozketako garai aietan ezagutuak gaude elkarri lepaitezakia ederki berotu akuiluaren ipurdiarekin, eta gero epaitegi-bidean ibili ziranak”, dio Zinkunegik¹⁸².

Auzolan zaharra behera eta indibidualismo gartsua gora zihozazenen sintomak dira. Hasieran, kostatu bazen ere, propietate pribatuaren oinarri liberala baserrian errotuta zegoen, beste guneetan baino sakonago, eta hala dirudi jarraitzen duela.

Beste elkartasun mota berri bat sortu zen garai horretan, modernoagoa, instituzionalizatuagoa. XIX. mendean suteen kontrako elkarrekin agertu ziren auzoetan. Elkarrekiko ezagupena eta konfiantza zuten baserriarren artean sortu ziren. Ez dugu horietako baten berri ere Andoainen, baina egongo ziren. Gogora dezagun suteak baserrietako izurrite bat zirela, eta oraindik horrela direla. Sukaldeko betiko suak eta nonahi zeuden material sukoiak edozein deskuidutan sua piztea zekarren: sugar batek, zikin samarra zegoen tximini batek, edo katuak ilean eramandako suak tragedia zekarten.

Halaber, herri guztietan bezala, ganaduaren gaixotasunen aurkako ermandadeak, kofradiak edo terramak bazeuden. Artxiboan Tolosako kofradia baten estatutuak¹⁸³ gordetzen dira: baliteke herrian zeudenen eredugarri izatea. Baserriarrak auzoz auzo antolatzen ziren, eta ermandadeak, normalean, santu baten izena zeraman. Badakigu San Anton –animalien zaindaria– eta San Pedro –seguru asko, Kaletxikikoa– zeudela, baita ere beste bi: Goiburun eta Sorabillan. Istripuz edo gaixotasunez hiltzen zen behia partitu egiten zen kideen artean: bai haragia eta bai larrua. Etxeberriak dio nola 1925erako larrua banatzea anakronikoa zen, larruzko abarkak ez baitziren egiten.

¹⁸² ZINKUNEGI, Agustín: *Bizi naiak...* Op. Cit., 39. or. Serorategiko Arantxa eta Txomin Usandizagak diote Udalak bazituela belaze sailak Buruntzan eta zatitan ematen zitzaizkiela auzoko baserriarrei.

¹⁸³ 1892ko martxoaren 7ko Araudia da. Ermandadeak ganaduen errolda bat zeukan, eta alde aurretik albaiteoak ikuskatzen zituen animaliak. Zoritxar kasu guztiak hartzen zituen bere baitan. Ganadua sakrifikatua eta lurperatua bazen, jabearen balorearen %75a ematen zitzaion, eta ganadu buruen artean proportzionalki ordaintzen zen; haragia aprobetxagarria bazen, hori kideen artean banatzen zen, erraldekoko 5 pezeta ordainduz. Eratatutako fetuak edo hildako jaioberriak ere ordaintzen ziren, 6 erralde baino gehiago bazuten. Halaber, hiltegiaren minusbaliorekin saltzen zirenen alde ere ordaintzen zen. A.U.A., B.8., 19H/11. Ermandade askotan ordaintzen zen porzentajea txikia izaten zen; horregatik, baserriarrak beldurrez egoten ziren behi onak eta garestiak edukitzeko, eta txekorren kasuan ere, nahiago zuten ahalik eta lasterren hiltegiara eramatea.

Anaitasunak Diputazioak bultzatutako ermandadeak izan ziren. Probintzian zehar, araudi bera zutela, antzeko elkarrekin eratzea zen Diputazioaren helburua. Araudiak baserriarra zoritxar guztietatik babestu behar zuen. Epizootia edo izurrite orokorrak zirenean, Probintziako Aseguru Kutxa publiko batek babestuko zuen ganadua, Probintziako kutxa hori haragiaren gaineko zerga batez finantzatzeko zelarrik. Bakarrik Anaitasunaren araudia zeukatenak sar zitezkeen kutxa horretan, eta horregatik bihurtu ziren hain interesgarri.

IZENA	KAPITAL ASEURATUA	BAZKIDEAK
Anaitasuna 1	255.000	58
Anaitasuna 2	96.000	20
Goiburu-bilera	99.000	20
San Antón	96.000	18
Sorabilla-bilera	72.900	13
San Pedro Berona	79.200	15

Gerra Zibilaren bezperetan ermandade hauek zeuden Andoainen¹⁸⁴:

Ziurrenik, lehenengo lauak zaharrenak ziren. Badakigu 1908an eratu zela Anaitasuna 1, Diputazioak babestu eta berehala. Anaitasuna 2 eratu baino lehenago, 1916an, 80 kide eta 314 ganadu buru zituen, eta 1917an 86 kide eta 339 buru. Aseguratutako kapitalaren garapenaren arabera, estabilitatea izan zuen ezaugarri bere lehen hamarkadako bizitzan.

URTEA	ASEURATUTAKO KAPITALA
1908	137.725
1909	139.650
1910	147.165
1911	150.655
1912	150.015
1913	154.660
1914	147.750
1915	133.485
1916	142.430
1917	158.905

¹⁸⁴ A.U.A., B.8., 238H/18.

1927an sortu zen Anaitasuna 2¹⁸⁵, eta 19 kide, 105 abelburu eta 91.800 pezeteta-ko kapitala zituen. Hurrengo urtean beste bi bazkide zituen. Presidente Agerre Borda baserriko Felipe Jauregui zen. Horrek bere zezen sementala zuen; beraz, ziurrenez, ermandade hori bere bezeroez osatuta egongo zen.

Beste elkarte moderno batzuk sindikatuak izan ziren. Lehenengo sindikatuak ere Diputazioak bultzatu zituen, eta berak idatzi zituen haien araudiak. Apaizgoak ere, Leon XIII.aren *Rerum Novarum* entziklikak bultzatuta, bere laguntza eskaini zien. 1905ean Zizurkilgo erretoreak eta Fraisoroko kaperauak sortu zuten lehendabizikoa. Urte horren bukaeran, ordea, Vicente Laffittek Alkartasuna izeneko sindikatua sortu zuen Donostian. Hurrengo urtean Laffitte Diputazioko diputatu bihurtu zen, eta Alkartasunak Probintzia guztian zehar barreiatu ziren. Horiek Federación Católica de Sindicatos Agrarios delakoan federatu ziren, Laffitte presidentea zela.

1911n, artean ez zegoen Andoainen sindikaturik¹⁸⁶, baina 20ko hamarkadarako bazegoen eratuta. Horrela, 1924an José Ignacio Gaztañaga eta Juan Bautista Arruti, sindikatuaren bokal gisa, gaitzen aurkako udal batzorde batean agertzen dira¹⁸⁷. 1927an, beste batzar bat eratzen denerako, Alkartasunako 6 kide bokal gisa sartu ziren¹⁸⁸.

Alkartasuna ez zen gaur egun imajinatzen ditugun sindikatuak bezalakoa: zerbait erreibindikatzailea eta ezkertiarra. Aldeantiz, erabat katolikoak eta kontserbadoreak, baina apolitikoak ziren. Haien helburua zen, haziak, ongariak, eguneroko gauzak, erregaiak, pestizidak, edo artoa, baldintzarik onenetan erostea. Andoainen errota elektrikoa izan zuten Kaletxikin. 1934an afiliazio oso zabala zuten, “220 *labradores que trabajan y callan*” ordezkatzeko baitzituzten.



ENB Zumarragan, 1933ko otsailean sortu zen, eta Andoainen ekainean sortua zegoen. Federazioa abuztuan eratu zenerako, Andoaingoa eta beste dozena bat herritako sindikatuak kide fundatzaileak bihurtu ziren. Iturria: A.U.A.

¹⁸⁵ Probintziako Aseguru Kutxako presidenteagatik dakigu. Datu interesgarri bat: kide guztietatik, batek bakarrik zituen idiak. A.G.G.-G.A.O., JDT 209, 6.

¹⁸⁶ Urte horretan herriko nekazaritza batzarra eratu zen. Sindikatuari bokal bat izatea zegokion, baina ez zegoenez, zerga gehien ordaintzen zuten nekazarien artean Cándido Mendizabal aukeratu zuten. A.U.A., B.8., 235H/10.

¹⁸⁷ A.U.A., B.8., 55H/3.

¹⁸⁸ Fermín Yeregui, Domingo Sorroa, Ventura Leiceaga, José M^a Oyarzabal, José Balerdi eta José Antonio Carrera ziren. A.U.A., B.8., 232 H/5.

II. Errepublikan Eusko Nekazarien Bazkuna sortu zen, eta Andoainen eratu 1933ko San Joan bezperan¹⁸⁹. Sindikatu nazionalista zen, EAJri lotua, eta bestea baino erreibindikatzaileagoa. Orokorrean, haren proposamenik interesgarriena maizterrek jabegoa lortzea izango zen. Gutxi dakigu haren bizitza laburrari buruz. Ikusi dugu nola protestatu zuten larre komunalaren debekua zela-eta. Pitarrari buruzko zerga ez kobratzeko ere eskatuko zuten, eta ezer gutxi gehiago. Presidenteak Primo Irulegi (1933-1934), eta hortik aurrera, Isidoro Arabaolaza izan ziren; idazkaria, José M^a Garagorri zen.

3.7. Eguneroko bizitzaren zenbait alderdi.

Elikadura eguneroko bizitza bezala ulertzen dugun horren alderdi garrantzitsu bat da. Baserritarrak halabeharrez ia begetarianoak zen dieta bat eraman zuten XIX. mendean. Artoa zen elikagai nagusia: haren irinarekin egiten ziren labean erretako arto ogia, eta sutan egiten ziren taloak. Babarrun gorriak ziren eguneroko beste ohikeria bat, bakarrik igandeetan hautsita, beste egoskari batekin: garbantzuak edo babarrun txuriak. Esnea, artoaren zopekin jaten zela, baserritarraren ezinbesteko beste osagai bat zen. Gaztainak ziren afariko betiko beste elikagai bat; morkolaren barruan mantentzen ziren, eta askotan hidratatu egiten ziren, udaberriaren bukarara arte ailegatzeko. Barazkien artean azak eta porruak ziren nagusi. Patatak, esan dugun bezala, oso poliki sartu ziren dietan¹⁹⁰. Sagarrak ziren –normalean erre-ak– gaueko afaria bukatzeko beste fruitu bat.

Bakarrik bazkarian jan zitekeen haragi zatiren bat: urdaia edo zezina, babarrunekin edo azarekin batera. Arrautzak, oiloak, eta oilaskoak, ezohiko jakiak ziren, eta merkaturako ziren. Behi edo txekor haragia ere ilusioa besterik ez zen, eta bakar-bakarrik jaten zen istripuagatik edo gaixotasunagatik akabatzen zirenean, edo ermandadearen bitartez zatiren bat suertatzen zenean. Neguan, txerria akabatzen zenean, orduan izaten zen *gularekin* amesteko unea (*txerria hiltzen zen astea*): odolkiak, barrukoak, txorizoak, eta abar, jaten ziren, eta bizilagunei nahiz familiakoei partitzen; gainontzekoa, berriz, gatz eman eta urte guztirako haragia zen. Olio ere luxua zen, eta haren orde txerriaren gatz erabilzen zen.

¹⁸⁹ 24 jabek eta 35 maizterrek eratu zuten. Urte horren bukaerarako “*cerca de un centenar de afiliados*” zutela zioten. A.U.A., E.8., 20H/7 eta B.8., 238 H/3.

¹⁹⁰ Ataunen, 1880an, oraindik uste zuten patatak txerrientzat zirela. ARIN DORRONSORO, Juan: “La labranza y otras labores complementarias en Ataun”, Separata del *Anuario de Eusko-Folklore*. T. XVII, 1957-1960, 25.-31. or.

Horren elikadura espartarra hobetzen joan zen, baserritarraren bizitza maila igotzen zen heinean, eta hori merkaturako irekierarekin eta diru pixka bat sarztearekin batera etorri zen. Hobekuntza horretan emakumeek ekarpen handia izan zuten. Horiek, baserriko produktuak kaleratzen hasi zirenean, diru pixka bat ateratzen hasi ziren, eta harekin etxerako bueltan beste zerbaitek ekartzen zuten: kafea, azukrea, garbantzuak, arropa, ardoa, pattarra...

Ogi *txuria* eguneroko gauza bihurtzen hasi zen XX. mendean. Astero egiten zen labekada bat ogi. Gero, hori ere desagertzen joan zen, eta ogitegiko ogiak ordeztu zuen etxekoa. Baratzuri zopa gauza arrunta bihurtu zen, gehienbat gosaltzeko edo afaltzeko. Kafesnea zopekin ere XX. mendeko elikagai klasiko bihurtu zen.

Elikaduraren hobekuntza horrekin, otorduak ere ugaritzen joan ziren: gosari txikia, hamarretakoa, eta merienda. XIX. mendean hiru otordu zeuden: gosaria (goizean, pixka bat lan eginda, edo ukuiluko lehenengo lana egin eta gero), bazkaria (eguerdian), eta afaria (gauean)¹⁹¹.

Gosarian artoa esnearekin hartzen zen, edo kafesnea zopekin, beranduago; baita ere, porrusalda edo gaztainak, baina beti alternatiba errespetatuz.

Bazkarian babarrun gorriak, batzuetan azarekin, urdaiarekin edo zezina zatiren batekin. Arinek dio, aurretik, baita ere jaten zela babarrunen salda taloarekin. Bukatzeko, sagar erreren bat, edo gazta pixka bat taloarekin.

Afarian gaztainak eta esnea talorik gabe, edo gaztainak ez bazeuden, sagarrak eta esnea taloarekin.

Zer esanik ez, platerak bakarrik jaiegunetan erabiltzen ziren, eta normalean familiak lapiko edo erretilu bakarretik jaten zuen.

1860an Ataunen jaio zen Vicenta Agurrek zioen bere etxean urtean bi bider jaten zela ogi txuria: Gabonetan eta herriko jaietan. Horiek ziren, hain zuzen, zerbaite berezia jaten ziren egunak: aia, haragia, bakailaoa edo arroz-esnea. Gariaren edo artoaren uzta garaian ere, salbuespenerako egun aproposak ziren. Baita ezkontzak edo apaizen lehenengo mezak ere.

XX. mendean asko hobetu zen elikadura. Arinek dio Gerra Zibilaren aurretik taloa desagertua zegoela, eta okindegiko ogia jaten zela; gaztaina ere "*floja*" zela zioten, eta ez zen hain preziatua jada; haragia zabaltzen hasi zen, bai etxekoa bai harategikoa; babarrunak olioarekin bakarrik bijiliazkoa bezala ikusita zegoela,

¹⁹¹ Artzainek eta ikazkinek bi otordu besterik ez zituzten: gosaria eta afaria (hori, arratsaldean).

eta muzin egiten zitzaioela; eta kafe, ardo eta pattarraren kontsumoa asko igota zegoela. Hauxe gaineratzen zuen: "*y hay quienes acuden al consumo de aves y pescados finos*".

Ez dugu berri zehatzik Andoaini buruz, baina esandakotik oso urruti ez zen ibiliko. XX. mendearen hasieran jaiotakoek gogoratzen dute:

"Babarrun gorriak egunero. Urdai edo aza piska bat izango zen igoal baina beti babarrun gorriak" (Joxemari Amutxastegi).

"Babarrun zuriak eta garbantzuak igande eta jai egunetan jaten ziren. Egun horietan haragi piska bat tomatearekin ere izaten zen tarteka" (Imanol Egibar)¹⁹².

Sagardoa, bai haren bertsio klasikoan bai pitar bezala, baserritarren edari arruntena izan zen. Baserriko dolareetan eta baita kaleko sagardotegietan ere egiten zen. 1913an 9 sagardogile zeuden kaskoan: 2 Zumean (Garagorriren alarguna 10.000 litroekin, eta Fernando Urrutia beste hainbesterekin), 3 Kaleberrian (Federico Orbegozo, 8.000 l; Artolaren Oinordekoak, 6000 l; eta Luis Irazu, 8.000 l), 2 Kale Nagusian (José Antonio Mugica, 8.000 l; eta Francisco Elizondo, 4.000 l), eta beste 2 San Pedron (Ignacio Zalacain, 9.000 l; eta Maximino Lasarte, beste hainbesterekin). Sagarraren uzta oso irregularra zenez, eskasia zegoenean Asturiasko sagarra ekartzen zen. 1918rako, Artola, Irazu eta Zalacain sagardogileak desagertu ziren, baina beste berri bat agertu zen: Eusebio Lizarribar Kaleberrian. 1920an beste bat agertu zen: Juan Martín Labaca San Pedron. 1922an, mantentzen ziren, baina hamar urtean (1913-1922), ekoizpena %20 jaitsi zen.

Sagardo jatorraren jaitsiera kanpoko ardoaren -batez ere, Nafarroakoa- kontsumoaren igoerarekin ulertzen da. 1912ko kontsumoa 2.000 hl-koa izan zen, baina 12 urtean %100eko igoera izan zen, eta 1923an 4.000 hl kontsumitzen ziren, nahiz eta haren prezioak sagardoarena hirukoiztu.

Janzkerari buruz ezer gutxi berri aipa dezakegu. Garai hartako baserritarren janzkera fosilizatuta bezala geratu da, eta gaur egun euskaldunarena bezala saltzen da. Nekazaritza mundua, hiritar munduak garaitu eta baztertu ondoren, garaipen bat lortzen ari da identitatearen eremuan: garaipen pirriko eta faltsua. Kontraesanak. Liburuetan denok modernoak baginen, janzkeran denok baserritarrak. Hala ere, gogoeta horiek alde batera utzita, egia da gaur egun egiten den baserritar dotorearen janzkerak apurtu egin duela orain dela gutxi zegoen eskematismoa. Duela hogeitun urtera arte dualitate gerontokratikoa zegoen: aitona eta amona. Gaur egun, aniztasun gehiago agertzen da bai formetan bai koloreetan.

¹⁹² MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: "Etxeko lanak", *Atzoko Andoain eta andoaindarrak*, (1999-10-31).

Ziurrenik, neska gazteak kolore alaiagoekin apaintzen ziren, batik bat lepoko zapi zabaletan. Eramaten zituzten txirikorda oso luze haiek plastizitate elementu bikaina ematen zieten. Gizonen kasuan ere, ile luzearen moda XIX. mendean zehar luzatu zen; halaber, lebitak, kaperak, kapusaia, eta abar, mende bukaerara arte eramaten jarraitu zuten. Gero, zegoen aniztasuna monokordeago bihurtu zen bai gizonen eta bai andreen kasuan, erdi-doluko koloreak bere eginez: hori bai, forma eta koloreen armonia mantenduz.

Oinetakoak ere aldatu ziren. Etxean egindako larruzko abarka tradizionala galzten joan zen, eta gomazkoak ordeztu zuen. Apreta txuriak izan zuen garai hartan izugarrizko arrakasta, kaleratzeko.

Baserritarraren beste bereizgarri bat bizarra moztearena izan zen. Garai hartan gizon kaletarrek bibote handia, bizar zaindua eta patilla zabalak eramaten zituzten. Ez zegoen baserritar bat ere horiek zeramatzanik. Astean behin bazen ere, baserritarrak bizarra moztu egiten zuen. Apaizak bezala. Moda horixe jaso zuen gure aurreko belaunaldiak. Baserritarren aurpegi itxura erabat zabaldu zen gure herri eta hirietan ere. Geroago, *popak* eta 1968ko haize berriek ekarri dituzte aitona zaharren bizarrarekiko joerak baztertzea¹⁹³. Garai haietara bueltatuz, ordea, esan beharra dago baserritik irteten ziren mutil askok berehala uzten zutelako bibotea, adieraziz beste mundu batean sartzen ari zirela. Zenbat eta baserritik urrutiago joan, orduan eta errazago utzi bibotea: soldaduak, indianoak, Espainiako beste lurraldeetara edo hirietara joandakoak. Zabaleta baserritik Gaztelara lanera joandako Joanes artzainaren bigarren semearen kasua, *Garoa* nobelan kontatzen dena, hemen esandakoaren adibide da:

—Ana Josepak ostera, betondoa zimurtuta, betiko aserre itxuran:
—Mutil, gauza batekin natxiok arrituta. Zer ekarri dek or, ezpain gañean?
—Orixen da galdera. *Bibotea*.
—Bibotea? Kendu izak bizar oiek ainbat lasterren, gurean eztek orrelako zikinkeririk beñere izan ta.
—Bai zera kendu! (*Beatzez igortziaz*). Ondo egoki dauzkat.
—Egoki? Zertarako egoki? Sudurreko urentzat malatua egiteko? Kendu bearko dituk laster, edo ta bestela...
Semeak etzitian kendu, baño Ana Josepak egin zion egitekoa. Juan Andres lotan zegoan txolartean, guraiza zorrotzez, trist, trast, moztu zizkion goi-ezpañeko bizarrak. Ze demontre! *Fuera bizarrez!* Zabaletan etzan bear biboterik”.

¹⁹³ Duela hiru urte, ETB 1ean, orain dela 100 urteko baserrian zeramaten bizitzari buruzko *reality-show* bat eman zuten astez aste: *Baserría 1907*. Lehiaketan parte hartzen zutenek jarri zituzten arropa zaharrak, baita ere, antza denez, azpiko arropak kendu; baina protagonistaren batek hantxe jardun zuen bere espainazpiko bibotearekin, bi hitzetik bat “ostia” zelarik. Horiek ez ziren, ez, gure arbasoen *reality*-aren jardunak.

4. BALTZUKETA HANDIA ETA CÁNDIDO MENDIZABAL ZATARAIN.

Baltzuketa Handia (“Nagusia”, “*de suso*”, “*mayor*”) XVI. mendeko dokumentuetatik¹⁹⁴ aurrera agertzen da. XVIII. mendera arte bertako biztanleek abizentzat eraman zuten oinetxearen izena, XVII. mendetik aurrera Echave-Balzusqueta abizen konposatuarekin. XIX. menderako, ordea, baserriaren izena galdu egin zen, eta Echave bakarrik geratu. Mendizabal abizena Baltzuketara (edo Baltzuketa edo *Balzusqueta* edo *Balzuqueta*) Sevastian Joseph Mendizabal y Sarobe Irurtiarekin etorri zen. Sevastian Anoetan 1777an jaioa zen, eta 1805eko San Jose egunean, baserriko maiorazkoarekin, Jesusa Maria Echaverekin ezkondu zen (nahiz emakumea izan, *Jesus* Maria izenarekin agertzen da normalean).

Ezaguna dugu Sevastian, berarekin eta beraren aitagarreba Martin Jose Echave-Balzusketarekin hasi baitugu lan hau. Sevastian ez zen makala izango. Anoetatik etorri arren, eta baserritarra izan arren, zazpi aldiz izan zen Andoaingo alkatea, urte hauetan: 1811, 1812, 1815, 1822, 1826, 1833-1834 eta 1841¹⁹⁵. Gainera, denok dakigu garai oso gogorak izan zirela. Marka! Ez zuen izango ideologia oso nabarmenik, bere ondorengoez bezala. Horrela, 1822an alkate konstituzionala zen, baita Milizia Nazionalaren tenienteordea ere, biak teoriak kargu liberalak. Bera ere ez zen esku-hutsik etorri Baltzuketara: Anoetako Sarobe (edo Saroe) eta Arreseña (edo Arreseigor) bere legitima bezala ekarri zituen. Ezkondu ondoren ere ez zen geldirik egon: 10 ha baino gehiagoko herri lurra erosi zituen¹⁹⁶, haiengatik 12.000 erreale baino gehiago ordainduz. Beraren seme Martin Joséren kapitulazioetan gogoratuko du:

“*Asi mismo, que es tambien dueño y propietario legitimo de diferentes vienes raices, adquiridos por compras hechas asi en vida de su difunta consorte Doña Jesus Maria como posteriormente de su muerte, que son la casa de Garro, tierras sembrados, montes trasmochados, jarales, argomales, y pastos, de la cantidad de cincuenta y seis mil reales vellón*”.

Herri lurra baino zerbait gehiago erosiko zuen, 40.000 erreale baino gehiagoko aldea baitago inbertitu zuenaren eta Udalarai ordaindu zionaren artean. Agian, Garro baserria erosteko behar izan zuena.

¹⁹⁴ AYERBE, Rosa eta DíEZ DE SALAZAR, Luis Miguel: *Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615)*, *Leyçaur*, o, 1996, 325.-326. or.

¹⁹⁵ “Andoaingo Alkateak”. Eranskina. *Leyçaur*, 10, 2008.

¹⁹⁶ Gehienbat Independentzia Gerraren garaian erositakoak dira, 1808 eta 1813 artean: 907 postura Larrabiden, 520 Baltzuketan, 270 Garron, 730 Azpiurdinan, eta 382,5 Leizozgainan. 1836an ere Leizotzen beste bi garadi erosi zituen. Ziurrenik, izan zuen botere politikoa erosketak horiek egiteko mesedegarri izango zitzaion. OTAEGI NEGREDO, Karmele: “La primera guerra carlista en Andoain”, *Leyçaur*, 1, 95.-112. or.

Horretarako, zentsuak eskatuko zituen, eta, ohi zen bezala, baserria hipotekatuta. Zentsuak zaharrak ziren Baltzuketan, beste baserrietan bezala, eta legitimen ordainketatik zetozen. Andrearen aitona Manuel Echave-Balzusquetak¹⁹⁷ 25 zentsu baino gehiago zituen onartuak.

Lehen ikusi dugun bezala, Lehenengo Karlistada baino lehentxeago, ikaragarria zen lur gosea. Baserriar askok, errenta bat jasotzeko, maizter bati alokatzen zioten bizi ziren baserriaren zati bat. Horrela, Baltzuketan, garai horretan, maizter bat agertzen zaigu: Juan Bautista Zuaznabar. Garai horretako beste estatistika batek baserriak zuen ganadu mota erakusten digu: uztarrirako idi-pare bat eta behi-pare bat, eta beste 6 behi. Behi-azienda gehien zuen Andoaingo baserria zen.

Sebastian 1856an hil zen, 79 urte zituela. Alarguna zen aspalditik. Halere, 1840tik aurrera, etxejoaun berria beraren seme Martín José zen. Data horretan

Usurbilgo Juana Josefa Zatarain Beldarrainekin ezkondu zen, eta familia berria sortu zuten Baltzuketan. Ordainketa-gutun batetik dakigu¹⁹⁸, haren anaia Joseph gazte hil zela, eta beste anaia batek, Miguel Domingok, bere legitimaren zati bat hartu zuela *“para probar fortuna á la Habana ó Isla de Cuba (...)*



Cándido Mendizabal Zatarain (1841-1911), bere emazte Josefa Berreyarzarekin, bera lau alabekin (Juana Josefa, Eufemia Paula, Catalina eta Dolores), eta seme gazteena -baina maiorazko- Cándido Claudiorekin, 1890 inguruko argazkian. Cándidok trajea, pajarita, bonbina, zapatak, poltsikoko erlojua, eta purua daramatza, eta horrela nahi izan zuen inmortalizatu geratzea. Iturria: Mendizabal familiaren argazkia.

¹⁹⁷ Hartzekodunak erlijio erakundeak ziren gehienetan: inguruetako parroketako kabildoak (Andoain, Villabona, Anoeta, Larraul, Urnieta, Sorabilla, Tolosa, Aia, Lasarte), komentuak (Tolosako Santa Klara, Donostiako San Bartolome), Hernaniko ospitalea, Tolosako Santisimoaren Kofradia... Badirudi Elizak mailegu-emaile bezala garrantzi izugarria zuela Antzinako Erregimenean. Zentsu horiek eperik gabe ematen ziren, eta askotan mende bat baino gehiago irauten zuten. Antzinako Erregimenaren *tenpoak* oso bestelakoak ziren. G.P.A.H. 40401, 221 i.-222 a.

¹⁹⁸ A.G.G.-G.A.O., PT 3609, BERGARA, 1849

*con inclusión del pago del pasaje del barco, el avio de vestidos que necesite, y cuanto le conviene llevar en su faltriquera”*¹⁹⁹. Arreba María Bautista kaskora ezkondu zen.

Jabetza-erregistroak erakusten digu zein zama zituen baserriak: 10 zentsuk eta mailegu batek²⁰⁰ hipotekatzen zuten Baltzuketan, eta gainera, haren gainean erortzen ziren fidatzaile bezala agertzen ziren beste 22 zentsu. Gure gaurko jarduerarako ikaragarria iruditu arren, garai hartarako oso normala zen. Baltzuketaren finantza osasuna ez zen txarra.

Lanean barrena ikusi dugun bezala, legitima horiek guztiek zorrak zekartzaten. Ordurako ez ziren zentsu zaharrak, epe motzerako maileguak baizik, eta horiek gogorrakoak ziren. 1866an Martinek Andoaingo botikari Serapio Sobernil y Baquerorengandik 1.000 ezkutuko mailegua jaso zuen (10.000 erreal)²⁰¹. Handik bi urte barru bueltatu zion, baina 1868rako etxejoaun gaztea haren seme Cándido zen, eta nahiz eta biak Malcorra notarioarengana joan, Cándidoren sinadura bakarrik agertzen da²⁰². Dokumentu honek ezbehar baten berri ematen digu: Baltzuketan *“incendiada en su totalidad”* omen zegoen, eta haren ordeztu beste baserri bat jaso zen: *“otra casa nombrada Balzuzqueta-berri”*. Beste gastu-iturri bat, eta handia. Etxe zaharraren zabalera 4 posturakoa zen, eta berriarena, berriz, *“de 6 posturas y 392 pies cuadrados”* (200 m² baino gehiago); beraz, askoz ere handiagoa²⁰³.

Cándido María Mendizabal Zatarain Andoaingo Baltzuketan baserrian jaio zen, eta San Martingo parrokan bataiatu zuten, 1841eko irailaren 4an. Martín Joséren eta Juana Josefaren seme zaharrena zen.

Cándido, 26 urte zituela, 1868ko otsailaren 24an, Usurbilgo San Salvador parrokan, Josefa Dolores Echeverria-Berreyarza²⁰⁴ Zatarainekin ezkondu zen. Seme-alaba hauek izan zituzten: lau alaba -Juana Josefa Dolores (1868-12-27),

¹⁹⁹ Miguel Domingok 5.022 erreal jaso zituen, eta beste 10.378 erreal zituen kobratzeko. Guztira, 15.400 erreal: kopuru handi bat baserri batentzat.

²⁰⁰ Mailegu hori 13.000 errealekoa zen. Martinek eta Sevastianek eskatu zieten Francisco de Izaguirri eta Gertrudis de Lasari, eta Martinek bueltatu zuen 1863an.

²⁰¹ A.G.G.-G.A.O. PT 3616, MALCORRA, 1868. Furundarena notarioaren aurrean protokolizatu zen.

²⁰² Martín José 1894ko apirilaren 8an hil zen, 82 urte zituela. XIX. mendean maiorazkoak, bere ezkontzatik aurrera, etxearen zuzendaritza hartzen zuten, eta etxejoaun zaharra menpeko gertatzen zen. XX. mendera goazela, bikote zaharra bere boterea gordetzen saiatuko zen. Familia-sozietateek zaharren egoera gordetzen zituzten klausula gero eta gogorrakoak zituzten, eta kapitulazioak arraro bihurtu zirenean, zaharrek, kasu askotan, kasik heriotzara arte, ez zituzten boterea eta jabetzaren pasako.

²⁰³ Etxe zaharraren balioa 800 ezkutukoa zen, eta berriarena, berriz, 4.000 ezkutukoa (40.000 erreal edo 10.000 pezeta).

²⁰⁴ Harrigarria da abizenak nola higitzen eta aldatzen diren. Echave-Balzusqueta, Echave geratu zen; Mendizabal y Sarobe, Mendizabal; eta Echeverria-Berreyarza, Berreyarza. Gauza bitxi bezala, Cándidoren seme-alabek lehenengo 8 abizenetatik 3 Zatarain izango zituzten.

Eufemia Paula (1871-01-26), Catalina (1877-11-25), Dolores (1880-04-04)–, eta seme bat, Cándido Claudio (1882-10-30). Cándido, gazteena izan arren, maiorazkoa izan zen; Catalina eta Dolores, ezkongabetasun eterno batean, Baltzuketan bizi izan ziren; eta bi alaba zaharrenak, berriz, Teruelgo komentu batean moja sartu ziren²⁰⁵. Emakume askoren patua garai haietan.

Cándido Andoaingo alkatea izan zen, bere aitona Sevastian eta bere aita Martín José bezala, eta kontzejala urte askotan. Ezkondu zen urtean, 1868an, kontzejala zen, eta bi urte beranduago, José Antonio de Larramendi alkatea gerrilla karlistarekin joan zenean, 29 urterekin izan zen alkate. Cándido karlista zen eta bere biloba Nicanorrek dioenez, komandante maila lortu zuen Bigarren Karlistadan. Geroago (1878, 1879, 1881, 1887, 1889 eta 1893an) alkateordea izan zen, eta berriz alkate 1895, 1901 eta 1904an. Karrera politiko luzea benetan²⁰⁶.

Gipuzkoa mailan, 1895 eta 1901 artean aritu zen Diputazioko Nekazaritza Batzorde Bereziko partaide zela. Nekazaritza eta abelazkuntza sustatzeko, politikari ohiz, teknikariz eta baserriar *ilustratu*²⁰⁷ osatu zuen Diputazioak batzorde hori. Ez zen batzorde politikoa, kontsultakoa baizik, baina garrantzi handia izan zuen, Diputazioak sortu zituen politika berriak hor sortu zirelako: nekazaritza konkurtsoak, zezen paradak, Suitzatik zezenak inportatzea, Fraisoroko etxaldea... Batzorde horren barruan, eta gauzak arinago egiteko, azpibatzerde bat eratu zuten, eta hiru kidez osatuta zegoen: Salustiano Olazabal²⁰⁸, Matías Arteaga²⁰⁹ eta Cándido Mendizabal. Azpibatzerde horren lana Probintzian hiru etxalde-eredu aukeratzea izan zen. Hiru baserri aukeratu behar zituzten Zumarragan (Probintziako goiko alderdia), Tolosaldean (erdiko alderdia), eta Hernanin (beheko alderdia). Azkenean, eta baserriak miatu ondoren, arrazoi tekniko eta praktikoak zirela medio, bat bakarrik aukeratu zuten: Fraisoro, Zizurkilan. Horrela hiru etxalde izan behar zirenak, bat bakarrean geratu ziren.

Fraisoro martxan jartzeko lehenengo arduraduna Cándido izan zen: han lehenengo lanak egingo zituen morroi bat jarri zuen bere idi-parerekin, Ángel Eceiza Fraisoroko lehenengo zuzendaria ailegatu arte. Garai berean, eta Diputazioak

²⁰⁵ Mojekin gaudela, Cándidoren ama Juana Josefa Zatarain, Juana Josefa Cipitriaren amabitxia izan zen, eta izena ere eman zion 1845eko maiatzaren 31n. Bitxiene da, neskatila hori moja sartu zenean, Ama Cándida izena hartu zuela. Kointzidentzia izango da, baina bere amabitxiaren seme zaharrenaren izen berdina zen.

²⁰⁶ Haren seme Cándido Claudio ere alkate izango zen gerraondoa, eta iloba Nicanor, berriz, zinegotzi. Mendizabaldarren bost belaunaldi Andoaingo Udaletxean.

²⁰⁷ Cándido baserriar *ilustratu* horien kide bezala sartu zen.

²⁰⁸ Salustiano Olazabal irundarra zen. Herriko alkate eta diputatu probintziala izandakoa zen. Nekazaritza ustiapen garrantzitsua zuen Irunen, eta 1880ko hamarkadarako *Schwitz* arraza sartua eta espermentatua zuen. Haren seme Carlosek Liejan ikasi zuen Ingeniaritza Agronomoa, eta haren seme Juan José diputatu probintziala ere izan zen.

²⁰⁹ Matías Arteaga legazpiarra zen, Eraikuntza maisua, eta Donostiako zabalkundeko etxegintzan parte hartu zuen. Aldi berean, San Millan markesaren administratzailea zen Donostialdean. Ezkongabea zen, eta hil ondoren, Loiolan, nekazaritza sustatzeko fundazio pribatu bat eratu zuten: Fundación Arteaga delakoa. Orain dela 25 bat urte Zabalgirekin bat egitean, Kutxaren babeseko fundazio bihurtu da.

emandako 25.000 pezetarekin, Salustiano Olazabalekin Suitzara joan zen *Schwitz* zezenak erostera. Zezen horiekin osatu zen lehenengo zezen-parada ofiziala. Olazabal eta Mendizabal adituak ziren behi-arraza horretan, zeren eta beren baserrietan bazituzten horrelako behiak. Adibidez, 1899an Cándidok Diputazioari bere txekor suitzar bat saldu zion zezen-paradarako. "Alkartasuna" Gipuzkoako nekazaritza sindikatuaren zuzendaritzako bokalea era izan zen, *Baserriarra* hamabostekariaren eskelan agertzen den bezala²¹⁰.

Ikusi dugu Cándido baserriar *ilustratu* eta kosmopolita zela. Haren argazkiek ere hori erakusten dute: dotore, trajez eta bonbinez jantzita. Ikusten denez, negozio inmobiliarioetan ere sartu zen. Horrela, 1880an Londres izeneko etxea jaso zuen, La Algodonerako jabeen lurretan²¹¹. Harrigarriena zen, Londres etxeak²¹² Pequin eta Babiloniarekin muga egiten zuela. Zumean: Londres, Pekin, eta Babilonia. Gure zaharrak tradiziozaletzat dauzkagu, baina horrelako bitxikeriek gure *cliché* guztiak behera botatzen dizkigute.

Ganadu tratulari bezala ere aritzen omen zen. Horrela erakusten digute 1895 eta 1904ko *Guía General de Guipuzcoa-k*, garai hartako *Who is Who*-a²¹³. Baltzuketan Handia baserri *fuerte* zen. Ramon Soraluze²¹⁴ 1902an Gipuzkoako baserri edo nekazaritza ustiapen eredugarriak aipatzen zituen. Andoainen bakarra aipatzen zuen: Baltzuketan Handia.

1840ko eskriturak honela deskribatzen zuen: "*un terreno sembradío y manzanal, castaña, robledal, hortaliza y helechal de 969 areas de estension*"²¹⁵, ia 10 ha dena batera. Haren balioa 7.278 ezkutukoa zen. Lursailak hauek ziren: soro-lurrak (490 a), sagastia (70 a), "*plantas de manzanos que hoy se hallan sin ingertar*" (50 a), sagasti zaharra (103 a), belazea sagarrondo zaharrekin (34 a), gaztainondoak eta haritzak (210 a), baratzea (7 a), alfer-lurra "*con leñas, helecho y demás combustibles*" (8 a). Batuketa egin eta gero 972 a ateratzen dira, 3 a gehiago, baina lursailen proportzioa harrigarria da: %50 zerealezako soroak, %23 sagastia, %22 basoa eta mendia, %3 belazeak sagarrondoekin, %1 baratzea, eta beste %1 alfer-lurra. Haren balioa 12.000 ezkutu zen (30.000 pezeta): kapital izugarri handia.

²¹⁰ *Baserriarra*, 155 zka., 1910-9-10.

²¹¹ Zulueta eta Isasirena zen orubea, eta zentsu enfiteutikoan jaso ziren hiru etxeak: Londres, Pequin (erretiratua zegoen tenienteorde Gaspar Barbeitok jaso) eta Babilonia (Pedro M^a Garagorrik jaso).

²¹² 100 m²-ko oina zuen: beheko solairuan dendarako egokitua zegoen, eta 1. eta 2. pisuetan hiru etxebizitza zituen.

²¹³ LANCIS, Lamberto: *Guía General de Guipuzcoa, Imprenta de los Hijos de I.R., Baroja*, Donostia, 1895. *IBÍDEM*, Imprenta y librería de L. Lancis, Donostia, 1904.

²¹⁴ SORALUCE, Ramón: "La agricultura en Guipúzcoa", *Euskal-Erria*, T 47, 1902, 487-489. or.

²¹⁵ Jabetza Erregistroa, Miguel de Bergara eskribaua, 1840-7-18. Mugak hauek zituen: iparraldetik, etxea eta gurdibidea; ekialdetik, Garroko otadia eta soroa, eta Baltzuketan Txikiko gaztainadia eta belazea; hegoaldeetik, Olaberriko olara zihon gurdibidea, Ondarretako belazea, eta Baltzuketan Txikiko soroa; eta mendebaldetik, Dondineako belazea, eta Jauregi eta Baltzuketan Txikiko soroak.


Halaber, lursail horietatik kanpo Sevastianek erositakoak zeuden: gaztainadia Garroaldian (34 a), haritzen mintegia Pagamendin (30 a), otadia Pagamendin (70 a), gaztainadia eta garadia Ubaranen (270 a), haritzia eta artadia Aizgorri Aldean (270 a), “*existiendo en el centro una borda de ganado*”. Guztira 1.000 ezkutuko baliua mendi eta basoko lurretan, ia 7 ha aurreko %22 eskas hori orekatzeko.

1897ko estatistikak 22,5 golde-lur bakarrik ematen digu (7,5 ha inguru), honela banatuak: 0,5 (gaztaina), 3 (sagarra), 3 (garia), 5 (artoa), 4 (belazeak), 4 (garadia), eta 3 (basoa). Beraz, portzentajeetan: %38 soroak, %32 basoa, %17 belazeak, eta %13 sagastia.


XX. mendeko datuak kontraesanezkoak dira. Hamar urte beranduagoko datuek ia bikoiztu egiten dute baserriko lursailen zabalera (13,4 ha). 1925eko datuek bakarrik 16 golde-lur (5,3 ha) ematen dituzte, eta portzentajeak hauek dira: %50 belazeak, %25 basoa, %12,5 sagastiak, eta %12,5 soroak.

Hiru grafiko hauek edozein azalpen baino esanguratsuagoak dira.


BALTZUKETAKO LURSAILEN BILAKAERA (1897)



BALTZUKETAKO LURSAILEN BILAKAERA (1925)



BALTZUKETAKO LURSAILEN BILAKAERA (1840)



Cándido 1911ko irailaren batean hil zen, 70 urterekin, baina bere baserriar hazia bere familian utzi zuen: beraren seme Candidok jarraitu zion, eta horri haren seme Nicanorrek. Horren emazteak eta bi alaba eder eta abegikorrek jarraitzen dute Baltzuketako etxe berrituetan. Beste ildoari jarraituz, biloba Cándido Mendizabal Cipitriak eta horren seme Javier Mendizabal Eguibarrek, biak albaitekoak, aitonak utzitako arrastoari segitu diote. Harritzekoa gure garaian!

5. ZENBAIT ONDORIO.

- Perspektiba pixka batekin begiratuta, XIX. mendea, bai Gipuzkoarentzat eta bai Andoainentzat, zoritxarrekoa izan zen: frantses okupazioak, gerra zibil izugarriak, miseria ekonomikoa, bukaezinezko zorrak, emigrazioa, foru erakundeen galera... Horiek denak gertaera eztabaidaekin dira. Hori bera, baina azpimarratuago, baserriari buruz esan dezakegu: pobrezia orokorra, sute asko, bereizi gabeko arpilatzeak, neurritz gabeak zergak, eta abar. XX. mendea oso onuragarria izan zen herriarentzat: industriako lana ekarri zuen; emigrazioari neurri batean amaiera eman zitzaion, eta gerra gutxiago egon ziren. Gure begirada –historikoki eta periodistikoki– azken gerra zibilean fokalizatu bada –bere hildako eta bere zigortutakoekin, eta askatasun demokratikoen galerarekin–, Andoainen gerra hori ez zen karlistaden parekoa izan. Halaber, azken mendean baserriaren bizitza asko hobetu zen, nahiz eta herriko ekonomian haren garrantzi espezifiko asko jaitsi, industria eta hazkunde hiritarra zirela-eta.

- XIX. mendearen hasierako hondamendi beliko eta ekonomikoak herri ondasunen *pribatizazioa* ekarri zuen. Ikertu gabeko gaia da, baina zegoen lur-goseak berarekin ekarri zuen lehengo borda zaharretan baserri berriak eratzea. Baserri eskasak ziren, familia bat sostengatzeko gauza ez zirenak. Herri-larreen galerak, ganaduaren bazka librearen debekuak, eta ganadu harrapaketak (*prenderia* direlakoak), urruti zeuden baserri kaskar haiek uztea ekarri zuten. Ziur asko, XIX. mendearen bukaeran, eta XX. mendearen hasieran, baserrien %10 galdu ziren.

- Ez da oso ulergarria gure historiografiak alor *modernoetarako* duen joera (burniolak, merkataritza, marinela, Gorteko administrariak...). Lehen sektorea, eta haren barruan nekazaritza-ekonomia, hegemonikoak izan ziren XVII. mendetik aurrera, gutxienez, historialari askoren gustukoa ez bada ere. Bestalde, Europa ia osoan eta Espainia osoan bezala. Planta egitea. Zertaz? Kurioso da, eta ez dakit patologikoa ote den, alde batetik, modernoak izateko grina hori, eta, beste aldetik, *arkaikoa* eta *jatorra* kontzeptuak bilatzea *euskalduna* definitzeko garaian: “*baserritarra=euskalduna*”. Eskizofrenia ote?

- Gure intelektualen aurpegi bikoitz horretatik (Dr. Jeckill ala Mr. Hyde?) sortzen da "Joanes artzaia"-ren irudia, *Garoako* pertsonaia nagusia eredu bihurtuz. Ez da gure mitoa bakarrik. Txapela kenduta, Rousseauren *basati onarengana* joan gitezke, edo antropologo eboluzionistekin bat eginez, basatia edo nekazari zaharra gizateriaren ume garaia bezala ikus genitzake. Bestela, idazle erromantikoen amets gozoetara edo falansterio sozialistetara joan gitezke. Hirietako *señorito* aspertuen ikuspegiak dira. Baserri txuri eta bukolikoaren mitoa, 5x8ko zortzikoarena, txistu eta tuntunarena, erromeria eta sagardotegiarena, gizon indartsu eta bertsolariena, etxejoaun patriarkalena, etxejoandre botere-tsuen, aiton-amonek sutondoan erakutsitako legenda, errezu, eta aholku zaharrena. *Usadio eta ohitura zaharrena*, alde batetik, benetakoa da, baina orokorrean gezurra galanta ere bai. Bertsolari batek ere ez zizkion baserriari laudorioak bota. Bazekiten errealtate gordinaren berri. Ez ziren zinismoan erori. Gai barregarriagoak edo egunerokotasunetik kanpokoak nahiago izan zituzten.
- Gipuzkoaren gainontzekoak bezala, Andoainek ere modernizatoruntz joatearen ezaugarri bereziak ditu. Ez dago iraultzarik, ez haustura bortitzik, eta ez zen zerotik abiatu. Modernoa eta tradizionala hamarkada askotan elkarrekin bizi izan ziren. Modernizatorako bide kontserbadore bat dugu. Industria, elektrizitatea, zerbitzuak, komunikazio-bide berriak, erakunde politiko eta sozial berriak, eta abar, ezarri ziren aurrekoarekin apurtu gabe: katolikotasun integrista, indar eta era politiko erreakzionarioak, familia tradizional patriarkala, emakumeen mendekotasuna... Zaharra eta berria, tradizioa eta aurrerabidea, immobilismoaren eta aldaketaren arteko dialektika horretan ere kokatzen da nekazaritza mundua.
- Baserria eta nekazaritza-mundua ere Andoaingo aldaketetan murgildurik zeuden. Baserritarra edozein lekutan dirua irabazteko prest egon zen, monetarizatorako joera zuen mundu batek horrela bultzatzen zuelako. Herriko noizbehinkako lanetatik aparte, mende hasieratik baserritar askok denbora partzialeko nekazaritzaren alde egin zuten apustu, baserriko lana bigarren sektorean egindakoarekin tartekatuz. Industrializazioaren eta urbanizazioaren hazkundeak nekazaritza gune zaharrak inbaditu zituen, eta, zenbait lekutan, inorena ez zen espazio bat sortu zen, mistoa, erdizka landatarra eta hiritarra.
- Udal ondasunen desagertzearekin mendeetan iraun zuten bizimoduak behera etorri ziren. Artzaintza librea gutxitzen joan zen eta ganaduaren ukuiluratzeak ordeztu zuen; propietate pribatuaren oinarri liberala indartsu errotu zen, eta lursailak hesitzen joan ziren, ikuspegi indibidualistagoak gailenduz. Basoa, XIX. mendean arpilatua, lekua irabazten, eta lehengo luberriek kendutakoa errekuperatzen joan zen.

- Joera pribatizatzaile horiek ez zuten lurraren edukitzan islarik izan. Etxekojoaun libre eta independentearen mitoaren aurka errealtatea setatia da: ia baserritarren hiru laurdenak maizterrak ziren; errenta txikia, baina irabazteko zaila ordaindu behar zuten, eta kanporatzearen beldurra sortzen zuen segurtasun ezaren azpian bizi ziren. Beste herriekin konparatuta (I. Mundu Gerraren garaitik aurrera maizter dezente jabe bihurtu ziren), Andoainek Gerra Zibilaren ondoren arte ez da jabetzaren aldaketarik gertatzen.
- Baserriaren alor materialak sakonki aldatu ziren. Etxeak, maiztergoa zela-eta, aldaketa txikiagoak ezagutu zituen, baina, dena den, erosotasunean eta higie-nean hobetu zen. Etxeko ura eta elektrizitatea aldaketa sakonak izan ziren, baita sukalde ekonomikoa ere. Baserriaren joera ere aldatu egin zen: merkatura eta monetarizazioa zabaldu zen. Hala ere, baldintza estrukturalak zirela-eta, lanak ahalbideratu zituen mudantza horiek, kapital metaketak baino.



Ubillots, kili-kolo. Oinetxe zaharraren armarria hiriaren menpean: betiko teilak eta sagardoa, uralitaren eta domecgen aurrean makurtuak. Iturria: A.U.A., F.6., © Belen Leizeagak utzitako argazkia.

- Laboreetan aldaketa handiak izan ziren. Zerealak –batik bat, garia– desagertzen joan ziren eta belazeek ordeztu zituzten. Sagastiak bere lehenagoko garrantzia galdu zuen, eta lihoa desagertu egin zen. XIX. mendean erdialdeko baserri baten lursailek, paisaiak, eta lurren koloreek ez zuten antzik ere 1925eko baserri berarekin.
- Abeltzaintzak nekazaritzaren menpeko izateari utzi zion, eta baserrian nagusitu zen, batik bat behi ganadua. Azken hori ukuiluratu egin zen; trakzioan baino esnean eta haragian espezializatu zen; eta arrazaz aldatu zen (*Schwitz* suitza-

- rra bertako gorriaren orde]. Bere merkaturako produkzioak izugarri igo ziren, eta aldi berean produktu horien prezioak I Mundu Gerra garaitik aurrera ere igo egin ziren. Oso onuragarria izan zen baserriarentzat. Aitzitik, artaldeak gutxitu egin ziren, larreen ustiapenerako zeuden oztopoak zirela-eta. Aldi berean, txerri ganadua, astoak eta oiloak garrantzitsuago bihurtu ziren. Ahuntz eta zaldi ganaduekin kontrakoa gertatu zen.
- Giza esparrua ere ez zen aldaketa historikoetara inmunea izan. Euskal baserri pobreaken bizi baldintzak eta elikadura, hobetzen joan ziren. Auzolana bezalako erakunde zaharrak birmoldatu ziren, eta garai bateko garrantzia galdu zuten. Erakunde berriak sortu ziren, ordea: suteen kontrako elkarteak, ganaduen hilkortasunaren kontrako erakunde berriak, eta zenbait sindikatu. Erljio katolikoak baserriaren giza ardatza izaten jarraitu zuen, baina aldaketak egon ziren: debozio berriak, ohitura eta erritu zaharrak ahaztea, zenbait praktikaren malgutasuna, eta abar. Dibertsio berriak –futbola ingelesa edo espainiar pasodoblea, esaterako– zaharrekin bizi ziren. Bizimodu modernoek erakargarritasuna kendu zioten maiorazkoaren instituzioari: erantzukizun handiko elementua zen, eta balore ekonomiko, sozial eta sinboliko txikia zuen. Matriarkalismoaren mitotik oso urruti, emakumeak gizonak baino bizitza gogorragoa eraman zuen, haren lasaialdiak oso gutxi zirelarik.
 - Baltzuketak Handia baserria joera ekonomiko, sozial eta kultural horien guztien adibidea da. XIX. mendearen hasierako Baltzuketak eta mende bat berandua-gokoak antz txikia dute. Andoain eta Gipuzkoa mailan, baserri *fuerte*a izan zen. Hango bizilagunak, Mendizabaldarrak, nekazari berritzaileak izan ziren, eta udal administrazioan parte-hartze handia izan zuten. Cándido Mendizabal Zatarain nekazari *ilustratu*aren eredu izan zen, eta garrantzia izan zuen Gipuzkoako nekazaritzaren berpizkundean.

6. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.

6.1. Iturriak.

- ANDOAINGO UDAL ARTXIBOA (A.U.A.).

- A.11.II.: 10H/10, 10H/11, 10H/12, 37H/12, 40H/12, 68H/11, 233H/3, 235H/1, 240H/16.
- B.7.: 5H/9, 5H/8.
- B.8. 29H/5, 19H/11, 238/18, 68H/9, 238H/21, 60H/1, 19H/9, 55H/3, 235H/10, 238H/2, 238H/4, 68H/10, 232H/5, 44H/9, 72H/9, 72H/11, 238H/3, 68H/12, 238H/19.
- B.9. 238H/1, 48H/1, 243H/21, LH/211, 48H/2, LH/52, 69H/16, LH/210, 48H/3, 48H/4, 69H/17, 3H/3-T, 48H/6, 62H/14, 67H/1, 67H/2, 67H/3, 67H/4, 67H/5, 67H/6, 70H/1, 70H/2, 70H/3, 70H/4, 70H/5, 70H/6, 70H/7, 70H/8, 55H/10, 62H/13-T, 48H/5, 75H/3, 17H/1, 17H/4, 75H/1.
- B.10. 235H/2, 57H/2, 31H/1, 31H/4.
- E.8.I. 20H/7, 245H/5.

- TOLOSAKO UDAL ARTXIBOA (T.U.A.).

- B-8-4-2-1.

- DONOSTIAKO UDAL ARTXIBOA (D.U.A.).

- B.10.II., 366.4

- GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA (A.G.G.-G.A.O.).

- JD T 209, 6.
- JD IT 1478, 2421; 1523, 71; 1540, 396; 1548, 165; 4071, 15; 2930, 25; 4231,3
- PT 2794, 3386, 3424, 3425, 3426, 3427, 3428, 3498, 3608, 3609, 3610, 3614, 3744, 3752, 3753, 3762, 3763, 3775, 3776, 3777, 3778, 3786, 3787, 3794, 3825, 3841, 3844, 3849

- GIPUZKOAKO PROTOKOLOEN ARTXIBO HISTORIKOA (G.P.A.H.).

- 40401. PT 2812.

- DONOSTIAKO ELIZBARRUTIKO ARTXIBO HISTORIKOA.

- GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN ERREGISTROA (1848-1876).

6.2. Bibliografía

- AGUIRRE, Domingo de: *Garoa*. 5. argitaraldia, Arantzazuko Franziskotar Argitaldaria. Oñati. 1981.
- ALIJOSTES OLASAGASTI, Gorka eta GARMENDIA AYESTARAN, Aitor: "Andoaingo benefizentzia eta ongizate sozialaren bilakaera historikoa, XVII. mendearen bukaeratik XX. mendeko 30. hamarkadara arte", *Leyçaur*, 4, 1996, 139.-210. or.
- AGUIRRE, José de: "Casas de labranza", *Anuario de Eusko-Folklore*, T.V, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1925.
- AÑIBARRO, Ricardo: "Higiene rural", *Gipuzkoako Nekazaritza*, 2. zka, 1903-09-03.
- ARIN DORRONSORO, Juan: "La labranza y otras labores complementarias en Ataun", Separata de *Anuario de Eusko-Folklore*, T.XVII, 1957-1960.
- ARREGUI, Ricardo: *Aspectos de la vida e historia de Andoain*, Publicaciones de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, Donostia, 1970.
- ATXUKARRO, Inaxiomari: *Irriparrezko printzak*, Sendoa, Donostia, 1982.
- AYERBE IRIBAR, Rosa: *Servicio Forestal de Gipuzkoa. I.- Desde los orígenes a 1925*, Diputación Foral de Gipuzkoa. Departamento para el Desarrollo del Medio Rural, Donostia, 2005.
- AYERBE, Rosa eta DÍEZ DE SALAZAR, Luis Miguel: "Andoain, de tierra a villazgo (1379-1615). Un caso modélico de preoautonomía municipal en Gipuzkoa", *Leyçaur*, 0, 1996.
- BAESCHLIN, Alfredo: *La arquitectura del caserío vasco*, Biblioteca Vascongada Villar, Bilbao, 1968 (1. argitaraldia, 1930).
- BALZOLA, Policarpo: *Aritmética con la explicación del sistema métrico escrita por encargo de la Diputación de la M.N. Y M. L. Provincia de Guipúzcoa*, Donostia, Imprenta de Ignacio Ramon Baroja, 1853.

- BARANDIARÁN, José Miguel: «Contribución al estudio de la casa rural y de los establecimientos humanos. Pueblo de Ataun. Barrios de Arinberriaga, Murkondo, Arrate-kale y Ugalde-karrika», *Anuario de Eusko-Folklore*, T.V, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1925.
- BARRUSO BARÉS, Pedro eta PICAVEA SALVIDE, Pedro: "Andoain en 1900: análisis demográfico, económico y social de un municipio guipuzcoano a principios del siglo XX", *Leyçaur*, 3, 1994, 195.-263. or.
- BELAUSTEGUIGOITIA, Ramón de: *La cuestión de la tierra en el País Vasco*, Imp., Lit. y Enc. Viuda e Hijos de Grijelmo, Bilbao, 1918.
- BENGOCHEA DORRONSORO, Javier: "La incorporación de Andoain al moderno proceso de industrialización. Apuntes de una evolución: 1850-1925", *Leyçaur*, 1, 1990, 139.-173. or.
- BERRIOCHOA, Pedro: *El sector agrario guipuzcoano y las políticas agrarias durante la Restauración*, Diputación Foral de Gipuzkoa, Donostia, 2009.
- ÍDEM: "Política anticabras de la Diputación de Gipuzkoa durante la Restauración", *Boletín de la RSBAP*, Donostia, 2007.
- CABEZÓN, Xabier: *Historia del ferrocarril de Plazaola*. www.plazaola.net.
- CARO BAROJA, Julio: *Vasconiana*, Donostia, Editorial Txertoa, 2. argitaraldia, 1974.
- ÍDEM: *De la vida rural vasca*, Estudios vascos IV, Txertoa, Donostia, 1974.
- CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*, Siglo XXI, Euskal Herriko Unibertsitatea, Madril, 1987.
- DIRECCIÓN GENERAL DEL INSTITUTO GEOGRÁFICO Y ESTADÍSTICO: *Censo de la población de España (1877)*, Madril, 1883.
- DOUGLASS, William A.: *Muerte en Murélaga*, Alberdania, Irun, 2003.
- ELORZA, Antonio: "El tema agrario en la evolución del nacionalismo vasco", *La cuestión agraria en la España contemporánea*, Edicusa, Madrid, 1976.

- ERAUSKIN, José Ramón: *Aien garaia*, Auspoa, Tolosa, 1975.
- ETXEBERRIA, Francisco de: "Pueblo de Andoain. Barrios de Goiburu y Karrika", *Anuario de Eusko-Folklore*, T.V, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1925.
- ÍDEM: "Andoain. La religiosidad del pueblo", *Anuario de Eusko-Folklore*, T.IV, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1924.
- IDEM: "Andoain. Creencias y ritos funerarios", *Anuario de Eusko-Folklore*, T.III., Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1923.
- GARMENDIA AYESTARAN, Aitor: "Bigarren Guda Karlista Andoainen". *Leyçaur*, 5, 1998, 111.-194. or.
- GUIMÓN, Pedro: *El caserío*, Litografía Ugarte, Bilbo, 1907.
- IBARGUREN, Sinfaroso de: "Pueblo de Ezquioga", *Anuario de Eusko-Folklore*, T.VII, Eusko Ikaskuntza, Gasteiz, 1927.
- IRAZU, losune: *Ingurua ezagutzen. Andoingo Paperak*, 6, 1991.
- LANCIS, Lamberto: *Guía General de Guipúzcoa, Imprenta de los Hijos de I.R., Baroja, Donostia, 1895.*
- *IBÍDEM*, Imprenta y Librería de L. Lancis, Donostia, 1904.
- LAFFITTE, Vicente: "Agricultura y ganadería vascongadas", *Provincias vascongadas. Geografía general del País Vasco-Navarro*, Editorial de Alberto Martín, Barcelona, 1918.
- LARRAMENDI, Manuel de: *Corografía de la muy noble y muy leal Provincia de Guipúzcoa*, Editorial Amigos del Libro Vasco, Bilbao, 1985.
- LARRINAGA RODRÍGUEZ: Carlos: "Los saltos hidráulicos del río Leizaran y su contribución a la electrificación de Andoain y del País Vasco entre 1896 y 1936", *Leyçaur*, 5, 1998, 195.-224. or.
- LEFEBVRE, Théodore: *Les modes de vie dans les Pyrénées Atlantiques Orientales*, Librairie Armand Colin, Paris, 1933.
- LINAZASORO, Iñaki: *Caseríos de Guipúzcoa*, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1974.

- MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA: *Atzoko Andoain eta andoaindarrak*, Andoain, 1999-2000.
- MÚGICA, Serapio: "Agricultura, Industria y Comercio", *Tomo Guipúzcoa, Geografía General del País Vasco-Navarro*, Editorial de Alberto Martín, Bartzelona, 1918.
- MÚGICA ERQUICIA, Asun: "Elecciones municipales en Andoain (1850-1915)", *Leyçaur*, 3, 1994, 113.-158. or.
- NAVAJAS LAPORTE, Álvaro: *La ordenación consuetudinaria del caserío en Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostia, 1975.
- OSTOLAZA, Maitane: *Entre Religión y Modernidad. Los colegios de las Congregaciones Religiosas en la construcción de la sociedad guipuzcoana contemporánea*, EHU, Bilbo, 2000.
- OTAEGI NEGREDO, Karmele: "La primera guerra carlista en Andoain". *Leyçaur*, 1, 1990, 71.-137. or.
- PIRALA, Antonio: *Historia de la guerra civil y de los partidos liberal y carlista*, Felipe González Rojas editor, Madrid, 1890
- RODRÍGUEZ ÁLVAREZ, Miguel José: "Andoain durante la Dictadura de Primo de Rivera (1923-1930)", *Leyçaur*, 7, 2002, 255.-338. or.
- RODRÍGUEZ PÉREZ, Ana Isabel: "Las cofradías en Andoain", *Leyçaur*, 7, 2002, 45.-146. or.
- RUIZ HOSPITAL, Gonzalo: "La fundación «Legarra Echeveste»", *Leyçaur*, 1, 1990, 17.-69. or.
- SANTANA, Alberto: *Baserría*, Bertan. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 1993.
- SEGUROLA JIMÉNEZ, Marco y MURO ARRIET, Koro: "Herri lanak Andoaingo eraikuntzan (1850-1900)", *Leyçaur*, 4, 1996, 211.-260. or.
- SORALUCE, Ramón: "La agricultura en Guipúzcoa", *Euskal-Erria*, T. 47, Donostia, 2. seihilabetea, 1902.

- THALAMAS LABANDIBAR, Juan: *Aspectos de la vida profesional vasca. El campesino. El pescador. El obrero*, Euskaltzaleak, Beñat idaztiak, Donostia, 1935.
- USABIAGA FLORES, Amaia: *Andoingo toponimia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1993.
- ZAPIRAIN, Salvador "Ataño": *Txantxangorri kantaria*, Auspoa, Sendoa, Oiarzun, 2. argitaraldia, 1993 (Lehenengoa, 1979).
- ZAVALA, Antonio: *Pello Errota. Pedro Elizegi Maiz (1840-1919)*, Auspoaren sail nagusia, Tolosa, 1992.
- ÍDEM: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, Auspoa, Tolosa, 1992.
- ZINKUNEGI, Agustín: *Bizi naiak lege zorrotzak*, Auspoa liburutegia, Oiarzun, 1995.

7. ERANSKINA: 1925eko NEKAZARITZA ESTADÍSTIKA.